

goiena

Zu hemen zaude.

JANARI BILKETA HANDIRAKO JENDE BILA

Supermerkatuetan azaroaren 19tik 24ra bitartean egingo duten bilketarako
boluntarioak behar dituzte Bergarako Elikagaien Bankuan / 4

Bergarako
Elikagaien
Bankuko
boluntarioak,
eguaztenean.

XABIER URZELAI



Kolektorearen iturburua. IBAI ZABALA

SINADURAK

	IGOR ARIZMENDIARRIETA / 6		ELIAS ZUMALDE / 34
	JOSU ZUGASTI / 10		MIKEL IRIZAR / 48



ETXEBIZITZA ETA ERAIKUNTZA
ORRIALDE BEREZIAK / 21

Tropa frankistek 1936an erail zituzten hiru mondragoetar omendu dituzte

Jesus Uranga Urrutia,
Agustin Aranburu Zabaleta
eta Gregorio Gonzalez
Rubiori gertatutakoa,
oroimenean gordeta / 10



Omenduen senideak eta alderdietako ordezkariak, eguazteneko ekitaldian. U.I.

Antzuolako ur zikinak errekaraz ez isurtzeko neurriak eskatu dituzte / 3



Aspace
Gipuzkoa: 50 urte
gizarteratzea lantzen

Ane Pikaza
aktoreari
elkarriketa

BLACK FRIDAY

**%15eko
deskontua
ukipen lenteetan**



Kontsultak eta laguntza profesionala eskaintzen dugu.

Otalora Lizentziaduna, 18
943 79 29 95
ARRASATE

Ibargarai, 16
943 76 15 75
BERGARA

www.multipopticas.com


MULTIÓPTICAS
50 urte zuen ikusmena zaintzen



KORONABIRUSA

Intzidentzia-tasaren eboluzioa

DATUEN ITURRIA: EUSKO JAURLARITZA ETA NAFARROAKO GOBERNUA



Positibo kasuak eta intzidentzia

	Positiboak aste honetan	Positiboak aurreko asteen	Positibo metatuak	Positiboak biztanleekiko	Intzidentzia tasa 14 eguneko, 100.000 biztanleko
Arrasate	23	1	3.576	%16,19	108
Antzuola	17	9	320	%14,69	1.193
Oñati	11	11	1.727	%15,06	191
Bergara	9	7	1.887	%12,55	106
Aretxabaleta	7	2	988	%13,95	127
Elgeta	3	0	87	%7,69	265
Eskoriatza	1	3	533	%12,99	97
Aramaio	0	0	245	%16,55	0
Leintz Gatzaga	0	0	16	%6,40	0
DEBAGOIENA	71	33	9.379	%14,47	160

OHARRA: EGUAZTENERA ARTEKO DATUAK

ITURRIA: OSASUN SAILA

Positiboak bikoiztu egin dira: 71 atzeman dira azaroko lehen astean

Hilaren 1etik 7ra, Arrasaten eta Antzuolan erregistratu dira kasu gehien; bailaran erregistratu diren 71 kasuetatik 40 atzeman dira bi herrietan. Bestetik, 160koa da Debagoieneko intzidentzia-tasa; EAEkoak baino 50 puntu gehiago ditu.

Uxue Igarza Loiola DEBAGOIENA

Azaroko lehenengo astean egin dako probek 71 kasu baieztatu dituzte Debagoiengan. Kasuak bikoiztu egin dira; izan ere, urrian zehar, 33 eta 35 artean erregistratu ziren asteko.

Herriei erreparatuta, Arrasaten eta Antzuolan erregistratu dira positibo gehienak. Gainera, deigarria da Arrasateren kasua: hain zuzen, urriko azken astean kasu bakarra atzeman zen eta oraingoan 23 hauteman dira. Antzuolan ere gora egin dute kasuek: bederatzi izan ziren urriaren 25etik 31ra bitartean atzemandakoak eta hamazazpi azken astekoak. Gainerakoei dagokienez, Aretxabaletan bitik zazpita igo dira positiboak, Elgetan hutsetik hirura eta Ber-

garan zazpitik bederatzira. Oñatin, berriz, berdina mantendu dira zenbatekoak eta Eskoriatzan hirutik batera murriztu dira koronabirus kasuak.

INTZIDENTZIA-TASA

**DEBAGOIENEN
INTZIDENTZIAK
EAE-KOAK BAINO 50
PUNTU GEHIAGO DITU**

Pentsatzekoa den moduan, positiboekin batera gora egin du intzidentzia-tasa ere: urriko azken domekan, 101ekoa zen bailarako tasa; eta azaroko lehenengoan, berriz, 160koa. EAEkoaren gainetik dago, baina Gipuzkoakoaren azpitik, goiko grafikoan ikusten denez.

Debagoieneko herriei dagokienez, azpimarratzekoa da Aramaio eta Leintz Gatzaga eremu berdean direla -azken bi asteetan ez baita kasurik erregistratu-, eta gorri dagoen bakarra Antzuola dela, 1.193,21eko tasarekin. Datuek erakusten dutenez, oro har, gora egin dute tasek eskualdeko herrietan.

Erkidegora bueltatuz, intzidentziaren gorakadak eta egunero erregistratu diren positibo kopuru handiek kezka eragin dute osasun agintariengan. Gortzune Sagardui Osasun sailburuak asteon adierazi duenez, Osasun Sailak "ez du baztertzeko" Gabonei begira neurriak zorrotza. Sailburuak onartu du bilakaera epidemiologikoa ez dela "nahi bezalakoa".

OSPITALEETAKO EGOERA DEBAGOIENEN OSPITALEAN EZ DAGO COVID-19AREKIN INGRESATUTAKORIK

Positiboek gora egin arren, Debagoieneko Ospitalean ez dago koronabirusaren eraginez ingresatutakorik astelehenaz geroztik. Eta EAEen ere, kasuek gora egin arren, momentuz, erietxeetako okupazioa ez da nabarmen aldatu. Guztira, 90 lagun daude ospitaleratuta -aurreko astean baino lau gehiago-. Baina Zainketa Intentsiboetako Unitateetan daudenak bi gutxiago dira: orotara, 24.

Sagardui Osasun sailburuak datu bat ere eman du ospitale-razteei lotuta. Adierazi duenez, txertatu gabeko herritar batek lau aldiz aukera gehiago ditu ospitalean bukatzeko. Hala, oraindik txertatu ez direnei txanda hartzeko dei egin die, "norberaren eta gainerakoen osasunarengatik".

TXERTAKETA-KANPAINA

**ERKIDEGOKO
HERRITARREN %91
DAUDE TXERTATUTA
DAGOENEN**

Koronabirusaren kontrako txertaketa-datuei dagokienez, 12

urtetik gorako herritarren %90,1ek lortu dute immunitate handiena dagoeneko -1.783.231 herritarrek-, eta %91,1 dira lehenengo dosia hartu dutenak -1.802.542-. Hala, momentura arte, 3.453.448 dosi jarri dira guztira EAEen; iritsitakoen %92,9.

Adin-tarteei dagokienez, orain arte, 20 eta 29 urte bitarteko herritarrek izan dira gutxien txertatu direnak, eta hala jarraitzen dute; baina dagoeneko lehenengo ziztada hartu dutenak iritsi dira %80 izatera. Pauta osoa dutenak, oster, %78,4 dira.

Bestetik, aste honetan hasi da Osakidetza Janssen txertoa hartu zutenei erreformatu-dosia jartzeko. Erkidegoan 99.000 herritar inguruk hartu zuten Janssen etxeko txertoa, eta dosi bakar hori indartzeko Pfizerren edo Modernaren bigarren dosiak jasotzen ari dira dagoeneko.

Eta COVID-19ari aurre egiteko txertaketaz gain, gripearen kontrako txertaketa-kanpaina ere egiten ari da Osakidetza, eta, jakina denez, 70 urtetik gorako herritarri COVID-19aren kontrako hirugarren erreformatu-dosiarekin batera jartzeko ari zaie gripearen aurka egiteko.

Osakidetzaaren webgunean -osakidetza.eus- edota norberaren osasun-zentrora deituta hartu daitezke txandak, bai koronabirusaren eta bai gripearen txertoa hartzeko.

Ur-zikinak errekarera doaz, azpiegitura faltarengatik

Lehenengo ur-kolektoreak jarri zirenetik 40 urte igaro badira ere, Antzuolako eta Elgetako ur-zikinak oraindik ez dira araztegiara eramaten. Hiru eremutan ez dago hoderik, eta herritarrek beste behin aldarrikatu dute loturak amaitzeko premia

Uxue Igarza Loiola ANTZUOLA

Antzuolan eta Elgetan pilatuta ur-zikinak errekarera isurtzen dira, azpiegitura faltagatik, eta herritarrek, beste behin, Ura Agentziari eta Foru Aldundiari lanak amaitzeko eskaera egin diete. Zehazki, hiru eremutan falta dira saneamendu-hoditeriak; horietatik bi Antzuolan daude. Ura Agentziak, berriaz, aurreratu du Antzuolako Arizti baserri inguruko zatia urte honen amaieran lizitatzeari aurreikusten dela, baina Antzuolako bigarren zatia gehiago itxaron beharko du.

Antzuolan duela lau hamarkadatik jasotzen dira kolektore batean ur-zikinak; halere, oraindik, ez dago azpiegiturarik hondakin horiek Mekolaldeko araztegiara bideratzeko. Bi zati daude amaitu gabe: Arizti eta Burubiko inguruan bat eta Galaratzatik Bergaranzko zatian bigarrena. Azken hori bidegorriarekin batera egitea aurreikusten zen.

Bi eremuetako lanak 2020an ziren egitekoak, eta, horren harira, Bidegorria eta Ur-kolektorea Bukatzearen Aldeko Antzuolako Plataformak gogora ekarri du oraindik lanek egin gabe jarraitzen dutela eta "premiatzeko kontua" dela herritar nahiz ingurumenarentzat. Gotzon Madina plataformako kideak "onartezintzat" jo du egoera: "Udan edo errekar ur gutxi daramanean sekulako kiratsa egoten da; nazkagarria da, eta errekarako arrain eta bestelakoei ere eragiten die. Gaur egun, hori onartezina da".

Horrekin batera, Madinak azaldu du kolektorearen bide beretik joango den bidegorria ere amaitzeko dagoela: "Bi gauzak aldi berean egitea eskatzen dugu; bide beretik baitoaz. Bidegorrian, 200-300 metro daude bukatu gabe gasolindegitik San Antonioraino, eta arriskutsua da zati hori. Gainera, jende asko ibiltzen da egunero oinez nahiz



Antzuolako hainbat herritar, asteen, ur zikinen hodiaren ondoan. IBAI ZABALA

UR-KOLEKTORERIK EZ EGOTEAK ERREKAKO BIODIBERTSITATEA KALTETZEN DUELA SALATU DUTE

bizikletan, eta dugu inolako ez-beharrik nahi".

Ura Agentzia, Antzuolako Udala eta Aldundia sarri bildu dira gaia lantzeko, baina herri plataformak "prozesua azkartzea" nahi du. Ura Agentziako komunikazio arduradun Eneko Albizurik azaldu du ibaian gorako lehenengo zatia urte honen amaieran lizitatzeari aurreikusten dela, eta, bigarren zatia dago-kionez bidegorria ere proiektuan sartzen denez, Aldundiko Mugikortasun Sailarekin koordinatuta ari direla: "Proiektuaren idazketa esleitu berri da eta 2022an lizitatzeari eta gauzatzen hastea aurreikusten da".

Antzuolako plataforma duela hiru urte eratu zen, eta, pandemiak jarduna eten bazuen ere, Madinaren hitzetan, "martxan dira berrir". Proiektua "lehenbailehen" egitea nahi dute.

Elgetan ere, errekarera

Antzuolan bezala, Elgetan ere ur-zikinak ez doaz araztegiara; herrian pilatu ostean, Sesto errekarera joaten dira. Gainera, horren ondorioak elgetarrek ez ezik, Bergarako Ubera auzokoek ere jasaten dituzte.

Gorka Buruaga Uberako auzo-alkatearen esanetan, errekarako ura ez da gardena izaten eta usaina ere igartzen dute: "Material organikoen uraren kalitatean eragiten dute: oxigenoa murrizten da eta bertako biodibertsitatea hiltzen joaten da". Auzoan Plan Estrategikoaren azterketa egin zuten duela bi urte, eta kolektorea San Juan-goarekin konektatzeari beharrezkoa zela ondorioztatu zuten. "Europatik datorren agindua da ur-kolektoreak egoki jartzea, kutsadura ekiditeko", dio auzo-alkateak.

Ura Agentziak orain dela urte batzuk iragarri zuen saneamendua lanak egiteko asmoa, baina, oraingoz, ez dute urratsik egin. Elgetarrek ere arazoa konpontzeko eskaera egin dute, eta gehitu dute sarri "martxan jartzeaz dagoela" entzun arren ez dela pausorik ematen.



Astelehenean aurkeztu zuten ekimena, Donostian. EUSKALTZALEEN TOPAGUNEA

Helduak eredu izateko ekimena abiatuko dute Euskaraldian

Azaroaren 22tik abenduaren 5era bitartean egingo da hizkuntza ohiturak aldatzeko ariketa soziala

U. I. L. DEBAGOIENA

Euskaltzaleen Topaguneak *Haurren aurrean helduok heldu* ekimena aurkeztu du. Helburua da haurrekin egoten diren helduek gurasoak, hezitzaileak, lagun helduak, zaintzaileak... euskararekin duten harremana sendotzea. Modu horretan, helduak "eredu izatea" lortu nahi dute, eta portaera linguistiko horiek "herritar guztien praktiketan integratzea".

Haurrek, sarri, "mezu kontraesankorrak" jasotzen dituztela azaldu dute ekimenaren sustatzaileek, eta, erabilera eredurik

ez badago, haurrek "hizkuntza ikasi bai baina ez dutela jardungo". Finean, euskaldunen artean euskaraz egiteko arau soziala indartu nahi dute.

Euskara, espazio berrietan

Parkean, eskola inguruan edo umeak dauden bestelako eremuetan ariketa norekin egin daitekeen pentsatzea da lehenengo urratsa. Ondoren, proposamena egin, eta *ahobizi* eta *belarriprest* direnekin euskaraz jardutean datza ekimena. Euskarak "espazio berriak irabaztea" da dinamikaren helburua.

Donostiara joateko autobusa antolatu dute pentsiodunek

10:15ean irtengo da autobusa, Arrasaten, eta Elorregin eta Bergaran egingo ditu geldialdiak jendea batzeko

U. I. L. DEBAGOIENA

Bihar, zapatua, mobilizazioak egingo dituzte Hego Euskal Herriko hiriburuetan, "pentsio eta soldata duinak" eta "zerbitzu publiko unibertsalak" aldarrikatzeko. Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimendua eta Eskubide Sozialen Kartak egin dute deialdia. Donostian, Alderdi Edertik abiatuko da martxa, 12:00etan; Gasteizen ere, 12:00etan, Artiumetik; eta Eibarren ere egin dute deialdia 12:00etarako.

Debagoieneko pentsiodunek Donostiara joateko autobusa

jarri dute. Arrasatetik irtengo da, 10:15ean, eta bidean eskualdeko herritarrek batuko ditu, Elorregin eta Bergaran 10:30 bueltan. Autobusean lekua hartzeko, 630 74 81 95 telefono zenbakira deitu behar da.

Madrilgo Gobernuari, Kongresuko taldeei eta euskal erakundeek izapidetzen ari den lege-proiektua indargabetzeko eskaera egingo diete bihar. "Ez dugu onartuko 2011ko eta 2013ko murrizketak iraultzen ez dituen erreformarik", azaldu dute pentsiodunen plataformatik.



Boluntarioak lanean Bergarako Elikagaien Bankuan. XABIER URZELAI

Urteko bilketa handirako boluntarioak behar dira

Bergarako Elikagai Bankuak datorren barikuan, hilak 19, ekingo dio Gabonen aurretik egin ohi duen janari bilketari; astebetez egongo dira bailarako supermerkatuetan bonu bidezko dohaintzak jasotzen, jakiak zuzenean ematea saihestu baitute aurten ere

Hasier Larrea DEBAGOIENA

1977an sortutako Gipuzkoako Elikagaien Bankuko bi pabiloietako bat Bergarako San Juan auzoan dago; 2012an jarri zuten martxan, eta hala jaio zen Bergarako Elikagaien Bankua. Bertatik Debagoieneko, Debabarreneko, Urola Garaiko, Urola Erdiko eta Goierriko herritarren eta denden dohaintzak kudeatzen

dituzte, Donostiako egoitzara eramateko. Elkarre solidarioei banatzen diete gero; horiek arduratzen dira, hain zuzen, oinarritzko jakiak behar handien dutenen eskutara iristeez.

Jendearen erantzunaren zain

Euren jardunak aste barruko egun guztiak hartzen baditu ere, urtero bi janari bilketa handi

zehazten dituzte: udaberrikoa eta udazkenekoa. Azken horretan jartzen dute itxaropen handiena, orduan jasotzen baitituzte kopururik handienak. Baina kontziente dira aurten iaz baino gutxiago biltzen ari direla: "2020ko udaberrian jasotakoaren %44 baino ez dugu lortu aurten-go udaberriko janari bilketan", aipatu du Joxemari Beitiak,

Bergarako Elikagaien Bankuko kideak. Zehazki, 2.000 janari tona baino gehiago lortu zituzten 2020an Gipuzkoa mailan.

Beraz, kopuru horietara hurbiltzeko, datorren ostiralean hasiko duten kanpainan herritarren aparteko erantzuna jasotzea komeni zaie. "Jendeak kausa honetan bere aletxoak jartzea da eskatzen dugun bakarra; bakoitzak euro gutxi batzuk jartzen baditu, nahikoa da", esan du Beitiak. Izan ere, pandemiaren testuinguruagatik herritarrek elikagaiak zuzenean ematea saihestu zuten iaz, eta beste horrenbeste egingo dute aurten. Ondorioz, dohaintzan ematen den diru-kantitate bakoitzeko bonu bat banatuko dute.

Baina supermerkatuetan dohaintza horiek jasotzen ibiltzeko boluntarioak ere behar

dituzte. "Arrasaten, Oñatin eta Bergaran 32na pertsona batu nahi ditugu; bailarako beste herri bakoitzeko, berriz, dozena erdi bat", azaldu du elkarteko kide Jesus Mari Larreak. Horretarako, 943 76 21 90 zenbakira deitzeko gonbidapena egin dute. Kanpainako lehen bi egunetan, esaterako, lau orduko txandak egingo dituzte.

Hiru motatako jakiak

Urtean zehar merkatu handietatik iristen zaizkie jakiak. Astero banatzen dituzte produktu galkorrak; esaterako, barazkiak eta frutak. Hilero, berriz, lekaleak eta kontserba-poteetan mantentzen diren produktu ez-galkorrak. Eta Europatik jasotzen duten hirugarren lerro bat ere badute, Caritasera eta halako elkarreetara eramateko.

"Ez genuke existitu beharko"

Bergarako elkarteak 58 kidez osatuta dago, erretiratuak gehienak. Bost taldetan daude banatuta, eta asteko egun bakoitzeko talde batek lan egiten du. Hala, egunero hamar lagun inguru egoten dira pabiloian, batzuk produktuak banaketarako prestatzen eta beste batzuk jasotzen dutenaren kalitatea aztertzen. Soldatepeko pertsona bat ere badago, biltegiaren arduradun kargua betetzeko.



Janaria kaxetan sartzten. X.U.

Antolakuntza zehatza

badaukate ere, diote ez luketela lan hori euren gain hartu beharko: "Gizakion beharrianik garrantzitsuenetako bat jatea dela aintzat hartuta, instituzioek arduratu beharko lukete pertsona guztien elikadura bermatzeaz. Tamalez, ez da horrela, eta behartuta gaude halako elkarteak sortzera. Elikagaien bankuak ezin du konponbide bakarra izan jendeak gosea pasa ez dezan".

Zuberoako ikastolak babesteko janari-otarreak eska daitezke

Hilaren 28an amaituko da elkartasun saskiak eskatzeko epea; Errigoraren kanpaina atzora arte egon zen irekita

H.L. DEBAGOIENA

Hemezortzigarren urtez jarraian, hango produktuekin osatutako *Ahuzki*, *Irati* eta *Orhi* saskiak jarri dituzte salgai *ikaskoli.eus* webgunean, Zuberoako ikastolen aldeko Eguberrietako saski sal-

menta kanpainaren baitan. Abenduaren 9an eta 10ean banatuko dituzte Debagoienean: Oñatin, Ulma Embedded enpresan; eta Arrasaten, Emun erakundearen eta Arrasate Euskaldun Dezagun elkartearen.

Nafarroa hegoaldeko uzta

Errigora egitasmoaren kanpainak, osterar, urriaren 23tik azaroaren 11ra arte iraun du. Hor ere hiru otarre desberdin jarri dituzte aukeran, eta bildutakoaren %25 hango euskalgintzari bideratuko diote. 2013a ezkerre, 1.400.000 eurotik gora lortu dituzte horrela. AEK euskaltegiko Oskar Elizburuk aipatu du aurten batutakoa "euskara ikasleen bekak osatzeko, lokalak berritzeko eta euskara planak definitzeko" izango dela.



Zuberoako Basaburuako ikastolako gurasoak, ikasleak eta irakasleak. GOIENA

BBCko kideak, Goienan eta Tokikom sarietan

BBC hedabide britainiarrak tokiko hedabide txikiekin egiten duen lankidetzaren arduradun nagusia, Matthew Barraclough, euskarazko tokiko hedabideen funtzionamendua ezagutzera etorri da; hitzaldia egingo du gaur, Tokikom sarietan

Hasier Larrea DEBAGOIENA

BBCko Matthew Barraclough, Local News Partnership taldeko burua, Goienaren egoitza bisitatzen egon zen herenegun, Tokikom erakundeak gonbidatuta. Hala, Debagoieneko hedabidearen instalazioak, funtzionamendua, historia, produktuak eta lan egiteko modua lehen eskutik ezagutu ahal izan zituen.

Gaur, berriz, Tokikom sarien urteroko ekitaldia egingo dute Arrasateko Garaia Parke Teknologikoan. Eta euskarazko tokiko hedabideen lana aitoritzeko galaren baitako finalistetako bat da Goiena telebistan emititzen den *Hala bazan* saioa.

Bestalde, jardunaldi interesgarri bat ere jorratuko dute, bertan parte hartuko dutelako, besteak beste, Espainiako *Eldiario.es*, Belgikako *Het Belang van Limburg* eta Britainia Handiko BBC hedabideetako ordezkariak. Hala, Local News Partnership proiektuko arduradun nagusiak BBCren eta inguruko hedabide txikien artean 2017tik garatzen diharduten esperientzia kontatuko du, besteak beste. Nolanahi ere, gaur 18:00etan, 20:00etan eta 22:00etan emitituko den *Hemen Debagoiena* saioak sakontasunez jorratuko du gaia, kazetari britainiarri eginiko elkarrizketaren bitartez. Datorren asteko *Puntua* aldizkariak ere ekarriko ditu Barracloughen hitzak.

Eredu berritzailea

BBCko ordezkariak gogora ekarri du nola sortu zen lankidetzaren hitzarmen hori: "Esango nuke 2014 aldera hasi zela BBCren eta, batez ere, paperezko egunkarien arteko elkarrizketa. Horren aurretik, tokiko egunkariak harreman zaila geneukan, BBCk webgunean tokiko albisteak doan eskaintzen zituen, komunikabide txikien negozio eredua kaltetu zezakeen sentsazioa zegoelako".



Barraclough, Goienaren egoitzako paretan bere sinadura idazten. MARKEL ARRAYAGO

ERRESUMA BATUKO HEDABIDEEN ARTEKO ELKARLANAK GAKOAK EMATEN DITU GUREAN ZER EGIN ADOSTEKO

Harreman irregular hura iraultzeko sortu zuten Local News Partnership izeneko elkarlana. Hiru arlo zehatzetan gauzatzen da: "Batetik, BBCk egindako bideoak industriarekin partekatzean; bestetik, datuen kazaritzan eta datuekin lotutako edukien partekatzean; eta, azkenik, Erresuma Batuko tokiko gobernuen berri ematean". Modu horretan, 170 konpainiarekin egiten dute lan, eta Erresuma Batuko mila hedabide baino gehiago daude lankidetzaren barruan.

Tokiko kazetaritzaren aldeko apustuak abantaila ugari dakartzala nabarmendu du Barraclough: "Bertakoa ez den kazetari batek baino hobeto epaitzen dute gertakari baten interesa; guk dirua jartzen dugu, eta tokiko kazetari taldeek, aldiz, informazioa eta trebetasuna".

Efektibotasun hori adibide baten bitartez azaleratu du: "Gure arteko bilera batean Midlands lurraldeko kazetari batek jakinarazi zuen poliziak erabiltzen zituen *taser*-ek ez zeukatela bateriarik, diru publikoa alferrik erabili zela, alegia; elkarlana egin aurretik, oso zaila izango zen informazio hori hain modu zuzenean lortzea".

Harremanak definitzen

Gurean EITBk eta Tokikomek badute hitzarmen bat, eta, Iban Arantzabal Tokikomeko presidentek azaldu duenez: "Bi aldeak hitzarmen horri edukia jartzeko interesatuta gaude orain".

Bide horretan BBCren eredia "inspiratzailea" dela gaineratu du: "Konfiantzan oinarritutako sistema bat azaldu digute, letra larri idatzitako kazetaritzak, hau da, goitik behera eta goitik behera egiten den lan aitorituak, demokrazia sozialerako balio izateko".

Bi entitateak etorkizuneko lankidetzaren hori marrazteko bilerak egiten dabilta buru-belarri: "Gure hasiera zein den asmatu nahian gabilta; arriskuak, gutxienez, hartuko ditugu".

Oinetako bilketa, Lesbosen dauden errefuxiatuei bidaltzeko

Zaporeak gobernu kanpoko erakundea bailarako bost herritan izango da oinetakoak biltzen bihar goizean

H.L. DEBAGOIENA

Neguaeren etorrerak Greziako Lesbos uharterako kanpamenduetan dauden errefuxiatuen bizi-baldintzak asko zailduko dituela jakitun, Zaporeak elkarteak oinetako bilketa solidarioa antolatu du. Egoera onean dauden botak, zapatilak eta takoirik gabeko zapatak batuko dituzte datorren zapatuan, hilaren 13an.

EAEko hiriburuetan eta beste hainbat herritan egingo dute bilketa hori, baita Debagoienean ere. Hala, Oñatin udaletxeko arkupeetan egin dute hitzordua, 10:00etatik 14:00etara; Arrasaten, Herriko Plazan, 10:00etatik 13:30era; Aretxabaletan, udaletxe zaharrean, 10:00etatik 14:00etara; Eskoriatzan, Kontzejupean, 10:00etatik 13:00etara; eta Aramaion, Sastiñan, 11:30etik 13:00etara –gaur ere bai, 17:00etatik 18:30era–. Asteazkenean zehar zen-



Arizmendi ikastolan batutakoa. ALMEN

bait ikastetxetan ere ibili dira oinetakoak biltzen.

Zaporeakeko kideek egunero 1.200 errefuxiatu baino gehiagori jaten ematen diote Lesbosen: "2015az geroztik, bi milioi bazkari duin baino gehiago banatu eta prestatu ditugu, maitasunez".

Kulturen arteko familia bazkaria egingo dute domeka honetan

'Bizilagunak' ekimenak familien arteko topaketak antolatu ditu Euskal Herrian, baita Debagoienean ere

H.L. DEBAGOIENA

Bederatzigarren aldiz egingo dute herritarren arteko estereotipoak eta aurreiritziak apurtzeko zein arrazakeriaren aurka borrokatzeko helburua duen kulturarteko bazkaria. Bertako zein migratzaile, hiru aukera dituzte herritarrek bazkarietan parte hartzeko: anfitrioi den familia bezala, gonbidatu den familia gisa edota familiak elkar ezagutzen laguntzeko ardura izango duten dinamizatzaile modura. Urtero bezala, familia bakoitzaren ardura izango da bere jaioterriko plater edota janari tipikoa prestatzea.

Bizilagunak egitasmoa etxetatik Arrasateko Ferixaleku ikastetxera eramango dute oraingo honetan. Bertan parte hartzeko beharrezkoa izango da aurrez izena ematea. Interesadutenek 943 32 18 11 telefonora



Aretxabaletan eginiko otordu bat. GOIENA

deitu edo bizilagunak@sosracismo.eu helbidera idatzi dezakete.

Bailaran Arrasateko Udaleko Aniztasun Saila, Ekin Emakumeak, AMS, IMME, Goyeneche Fundazioa, Harrera Etxea Arrasate eta Gipuzkoako SOS Arrazakeria ari dira antolatzen.



ZABALIK

IGOR ARIZMENDIARRIETA

0,5: hain gutxi, eta hainbeste

Glasgow aldean COP26 dela-eta darabilten zenbakiak hautsak harrotzen ari dira egun hauetan. 2 gradu. Hori da, hain zuzen ere, gure Lurrak gainditu behar ez duen batez besteko tenperatura, ondorengo urteetan ondorio larriak pairatu ez ditzan. 2 graduko igoera horrek eragin nabarmenak izango lituzke gure planetan. Horregatik, Glasgown egin den nazioarteko herrialdeen bileran, hurrengo urteetan Lurreko tenperatura gehienez 1,5 gradu igotzea dute helburu. 2 graduko igoerara iritsi gabe. 1,5 gradutik 2 gradura 0,5 graduko tartea txikia izan arren, badirudi eragina esanguratsua izango litzatekeela Lurrarentzat. Tamalez, jadanik ezinezkotzat jotzen dute igoera saihestea. Berandu gabilta, zauria egina dago eta isuria txikitzen saiatzea besterik ez dugu helburu.


Baina hor dabilta tirabiraka hainbat herrialdetako gobernuburuak eta estatuburuak, bakoitza bereari tiraka. Badirudi gehien kutsatzen duten herrialdeak interes gutxi eta zailtasunak jartzen ari direla bete beharreko epeei dagokienez. Bitartean, sukarra

goraka.

Hori horrela, besteek egiten dutenari erreparatu beharrean, zergatik ez nor bere etxetik hasi? Glasgowko astoen zain bagaude gurdia mugitu dadin, jai dugu. Guk geuk hasi beharko dugu apurka tiraka, lehenagotik hasiak baginen ere: zergatik ez dugu berogailuaren termostatoa 0,5 gradu jaisten? Zergatik ez goaz 0,5 kilometro bizikletan autoa utzita? Zergatik ez dugu garraio publikoa 0,5 ordu erabiltzen? Zergatik hainbeste argi zein gailu piztuta 0,5 ordutan zehar? Keinu txiki asko, baina esanguratsuak izan daitezke etorkizunean. Uste dut kontzientziazioan dagoela gakoa, eta lan handia dugu egiteko. Denok behar ditugu erosotasunak, eta, askotan, uko egitea kostatu egiten zaigu. Hau denon lana da, eta ondorengo belaunaldiengan eragin beharra dago. Bitartean, gizartearen zati bat Martera begira, bizia ba ote dagoen ikertzen. Ederto!

MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA



HANDIK ETA HEMENDIK

Zenbat

AITZOL ATUTXA

'TTAP'-EN ARGITARATUA

Atzera begira jarri naiz, noiz izan ote zen zure lehen laneguna. Oraindik ez dut ulertzen bidea nola egin duzun hain leuna.

Hamabost mila egun joan dira, bere goiz eta bere gau guztiekin.

Iratzargailua ez da izan zuretzat etsai, nahiz lo egiten duzun oso nasai.

Zenbat negar, zenbat itzulipurdi, zenbat hamaiketako, zenbat ipuin.

Horrenbeste umerekin hobeto ezin egin.

Amaigabeko egunetan ekin eta ekin.

Garai zaharren berritasuna pairatu duzu, garai berri zaharkituak sentitu dituzu, baina inor baino hobeto egokitu zara zu.

Bizitzak baduelako erosten ez den gauza bat, pasioa.

Berrogeita bat ikasturtetan zehar zenbat umeren egun ilunak argituko ote zenituen, zenbat lankideren konplize bihurtuko ote zinen.

Eskolako txoko txiki guztiak egin dituzu handi, marrazki txarrenari ere bilatzen zenion motibo bihurtzeko horma-irudi.

Eztabaida mahaietan azalduko da zure izena, eta askorentzat jarraituko duzu izaten lehena. Baina lasai, beti zango da baten bat

zurekin oroitu ez dena eta zure hutsunea ospatuko duena. Baina ziur nago zure itzalak denbora luzez jarraituko duela.

Zenbat momentu joan dira zure presentzia ezkutatu, zure loreak ere beste bati hurbilduz.

Beti nahi izan duzu zuri-beltzeko irudi horiek taldearen erdialdean zeure burua zaindu, urrundik atzematen diren kolore biziak gainontzekoei utziz.

Zenbat garrasi egin duzun isilean, zenbat begirada bota dituzun ilunpean.

Bukatutzat eman duzun arren ikastolako ibilbidea, betirako izango zara nire irakaslea.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

Argitaratzailea

Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkartea
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria

Monika Belastegi.
Zuzendari nagusia
Iban Arantzabal.
Eduki zuzendaria
Eneko Azkarate.

Erredakzio batzordea

Eneko Azkarate, Monika Belastegi, Mirari Altube.

Zuzendari komertziala

Mireia Larrañaga.
Administrazio zuzendaria
Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna

Iñaki Iturbe.
Hizkuntza arduraduna
Sergio Azkarate.
Harpidetza eta banaketa arduraduna
Igone Osinaga.

Sailetako arduradunak

Xabi Urtzelai (Kirola),
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).
Maketazioa
Imanol Soriano, Aitor Lagoma,
Amaia Martinez de Arenaza.
Publizitatea
Mireia Larrañaga,
Ziortza Martín,
Amaia Mundiñano.

Administrazioa

Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,
Nerea Artola.

HARPIDETZA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
publi@goiena.eus
EGOITZA NAGUSIA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07
berriak@goiena.eus

Lege Gordailua: SS-965/2014

ISSN: 2174-369X
Tirada: 19.000 ale
Difusioa: 18.723 ale

Inprimategia:
Zeroa Multimedia

GOIENAK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.



GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiko Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

BERBAGAI

"Segregazioa sortzeaz gain, eredu duala garestia da"

LURDES IMAZ EUSKAL HERRIKO IKASLEEN GURASOEN ELKARTEKO KOORDINATZAILEA

Larraitx Zeberio Lekuona ARRASATE
Euskal Eskola Publikoaz Harro Plataformak deituta, manifestazioa izan zen zapatuan Bilbon. Lurdes Imaz (Azkoitia, 1973) Euskal Herriko Ikasleen Gurasoen Elkarte (EHIGE) koordinatzailea da. **Manifestazio historikoa izan zela esan duzue. Zergatik?** Aspaldi da ez zela euskal eskola publikoaren aldeko manifestaziorik egiten, eta, jendea gogotsu sumatzen bagenuen ere, gure aurreikuspenak gainditu egin ziren zapatuan. Gure kalkuluen arabera, 8.000 eta 10.000 pertsona artean elkartu ginen Bilbon. **Hezkuntza Publikoaren alde. Pribatizazioari ez! lelopean egin zenuten manifestazioa, beste hezkuntza akordio bat adosteko prozesua hasi den une honetan. Zeintzuk dira ikusten dituzuen arrisku nagusiak?** Euskal Autonomia Erkidegoan, gaur egun, sistemaren erdia publikoa da



Lurdes Imaz, EHIGEko koordinatzailea. 'ALEA' ALDIZKARIA

eta beste erdia, itunpekoa. Eredu dual hori legez blindatzeko nahia ikusten dugu. Uste dugu eredu horrek hainbat arazo sortu dituela, eta ez diola eskola publikoari hazten uzten. Argi

eta garbi ikusten da bi sareek ikasle mota ezberdinak eskolaratzen dituztela, eta uste dugu itunpeko sareak dirulaguntzak jasotzeko denetariko ikasleak hartu

beharko lituzkeela gizarte kohesioan eragiteko. Efizientzia falta ere sumatzen dugu. Diru asko bideratzen da hezkuntzara, baina gure emaitzak ez dira izan beharko luketenak. Eredu dual hau garesti ateratzen zaigu. Eskatzen dugu egoera sakontasunez aztertzea. Poliki-poliki, euskal eskola publikoak egon beharko luke Europako herrialdeen pare. **Eskola publikoa indartzeko politikak eskatzen dituzue. Zeintzuk dira premia nagusiak?** Behar duguna da eskaintza hobetzea, eta plaza gehiago ateratzea eskola publikoan. Eta plaza publikoak dauden eremuetan ez ateratzea itunpeko plazarik. Dirua galtzea da hori. Eskola publikoak, bestalde, erabaki ahalmen handiagoa behar du. Euskararen inguruan, D ereduaren emaitzak hobetu egin behar dira, eta sare publikoan desagertu egin beharko lukete A eta B ereduak. Sare publikoan argi eta garbi ikusten da eredu horietan maila sozioekonomiko txikiagoko ikasleak daudela. Eta orokorrean behar duguna da ikastetxe publikoen eskaintza familien beharrei egokitzea; ordutegi zabalak, euskara sustatzeko eskolaz kanpoko

doako eskaintza... Alegia, badago zer hobetu! **Eskola eredu bakarra aldarrikatzeak erreakzioak eragin ditu, sare kontzertatuetako eragilean artean, bereziki.** Guk dioguna da euskal eskola publikoari hazteko aukera eman behar zaiola, eta eskola publikoaren balioekin edo helburuekin bat egiten duten itunpeko ikastetxeek aukera izan beharko luketela publikotasunerako. Urteak daramagu esaten eredu dualak segregazioa sortu duela, eta bi sareek ikasle mota ezberdinak eskolaratzen dituztela. **Halako manifestazio jendetsua egin ostean, jaso duzue erantzunik edo erreakziorik?** Oraingoan, ez. Balorazioa egingo dugu laster, eta publiko egingo dugu. Aztertuko dugu, baita ere, zeintzuk diren eman beharreko hurrengo pausoak. Aspaldi esanda daukagu negoziatzeko prest gaudela eta eskola publikoaren aldeko politiketan parte hartzeko gertu gaudela. Hori ez da aldatu. **Zein fasetan dago hezkuntza akordio berria?** Oraingoan, ponentzia bat dago, baina ez dago parte hartze espaziorik familiendako, behintzat.

ITURRI ONETIK

Oñatiko San Silvestre proba egingo dute

Oñatiko Antxintxiketan taldeak aurten berriro antolatuko du urte amaierako San Silvestre lasterketa. Urtezahar arratsaldeko klasikoetako bat da. Iaz ezin izan zuten antolatu. Oñatin ahalegin berezia egin dute aurten, egoera ezegonkorrari aurre egin eta lasterketak berreskuratzeko. Horrela egin dituzte, esaterako, Oñatiko Duatloia -apirilean- eta Aloñako Igoera -urrian-, biak arrakastaz. Bergaran, ordea, erabaki dute aurten ere ez dutela egingo Urtezahar goizeko korrikaldia.

ALBISTE IZAN ZEN

2010-11-12

Goiena Komunikazio Taldeak, 10 urte

Goiena Komunikazio Taldeak hamargarren urteurrena ospatzeko ekitaldia egin zuen komunitateko kideekin batera Arrasateko Amaia antzokian. Bide batez, iruditeria berria eta Goiena aldizkari berritua aurkezteko balio izan zuen ekitaldiak. Musika, antzerkia, umorea, berbalak... izan ziren, Goiatz Aranak eta Xabier Urzelaik aurkeztuta. Okasiorako propio, Manu Muniategiandikoetxea artista bergararrak egindako artelana erakutsi zuten.



GOIENA

HAU BE BADOGU!

Martin Ugalde kazetaria gogoan

Martin Ugalde kazetariaren jaiotzaren 100. urteurrena izan zen atzo. **@jakin_eus:** "Gaur 100 urte jaio zen Martin Ugalde. Bere ekarpen oparoa ez dago neurtzerik, baina bere obra argitaratu osoa bildu dugu. #HistoriarenBiktima eta #HistoriaEgile". **@anaisni:** "#MartinUgalde handia kontuak blokeatuta hil zen epaile zital baten aginduz. Askotan pentsatzen dut hori". **@dorreaolaso:** "Gaurko egunez 1921 urtean jaio zen Andoainen Martin Ugalde, idazle, kazetari, euskaltzale, kultur gizon eta abertzale handia".

D2030: ELKARRIZKETA



Oier Etxebarria aretxabaletarra, Goienerreko ordezkaria. JAGOBA DOMINGO

"Oso erreserba gutxi dago Espainian, eta negu honetan zelan ibiliko garen ez dakigu"

OIER ETXEBARRIA GOIENER

Debagoiena 2030eko sareko kideetako bat da Goiener, energia berriztagarrien sorkuntzan eta komertzializazioan lanean diharduen kooperatiba

Miren Arregi ARRASATE

Trantsizio energetikoaren gaia lantzen dihardu D2030ek eta Goienerreko urteetako esperientzia du energia berriztagarrien sorkuntzan eta komertzializazioan. Oier Etxebarria aretxabaletarra da. **Nola ari zarete bizi izaten energiaren gaiarekin gertatzen ari den guztia Goienarren?** Eragin handia izan du gurean. Goienerreko merkatuan erosi beharra du eta gero saldu; %21eko BEZarekin erosi eta %10eko BEZarekin saldu beharra. Eta horrek esan gura du kutxan diru asko izatea. Urte askoan diru nahikoa izan dugu, baina prezioen igoerak eskatu du kutxa handitu

beharra. Beste neurri batzuen artean, gure bazkideei borondatezko ekarpena eskatu diegu, eta oso erantzun ona ari gara izaten.

Hainbat arazoren ondorioa da egoera, ezta?

Ez dakit probokatutako zer edo zer den edo benetan gasaren eta CO2 isuriaren prezioen igoerak justifikatzen duen dena. Guk uste dugu hor oinarrian badagoela norgehiagoka bat enpresa handien eta Gobernuaren artean, eta argi dagoena da, azkenean, merkaturatzaile txikiok benetan eragiten digula; bereziki, argindarra produzitzen ez dugun Goiener modukooi.

Gainera, Debagoienean, bereziki dugu menpekotasun energetikoa.

Euskal Herrian orokorrean erabiltzen dugun energiaren %93 kanpotik dator. Gehienbat, erregai fosilekin sortua da, baina erabiltzen dugun elektrizitatearen zati handi bat kanpotik dator. Menpekotasuna handia da. **Bereziki da larria gasarekin gertatzen dabilena.** Geroz eta gas gehiago kontsumitzen da, Asiatik ere eskaera handia dago eta Errusiak, produktore moduan, Europarekin hartu-eman handia du. Ukrainatik igarotzen den gas-hodiaz gain, beste gasbide bat ireki berri dute, eta bigarren hori

oraindik ez dago martxan. Ukrainatik pasatzen den horretatik Errusiak ez du gasik bidaltzerik nahi, eta ez hori bakarrik; izan ere, Aljeriak, beste gas produktore handi batek, Marokotik Espainiara doan gasbidea moztu du Aljeriaren eta Marokoren arteko liskarrak tarteko. Horrez gain, itsasontzietan datorren gasarekiko menpekotasun handia dago, prezioa gora eta gora doa eta Asiatik eskatu eta eskatu ari dira. Hori horrela, oso erreserba gutxi dago Espainian. Negu honetan zelan ibiliko garen ez dakigu. Egoera oso berezian gaude; esaten da udaberrian konponduko ote den...

Hori guztia, Glasgowko goi-bileraren testuinguruan, non ikatzaren erabilera bukatzeko konpromisoa hartu duten.

Baina handienek, Txinak, AEBk, Indiak eta Australiak, ezetz esan dute. Ikatza erabiltzeari uzteak gasaren eskaera handituko du. Gasa ikatza baino kutsatzaile txikiagoa da, baina ez da soluzioa. Azkenean, argi dagoena da gutxiago kontsumitu beharko dugula eta gure menpekotasunak txikitu, gasaren menpe bizi baikara.

Kontsumo eredu aldaketa eginda posible izango da egoera iraultzea?

Orain kontsumitzen dugunaren erdia edo herena kontsumitzera iristea posible dela uste dut, bizi-kalitatea galdu barik. Espektatibak jaitsi behar dira kontsumo ereduari; mugikortasuna aldatuta, etxeak ondo birgaituta eta isolatuta eta gure kontsumo ohituretan aldaketa batzuk eginda. Erdia edo herena berriztagarriekin sortzea eta ahalik eta gertuen, esango nuke bai izango litzatekeela posible. **Honi guztiari konponbidea emateko, nondik hasi?**

Guk uste dugu herriz herri energia komunitateak sortzen joatea dela bidea, eta komunitate horien baitan energia berriztagarrien, kontsumo murrizketaren eta efizientziaren inguruko proiektuak egiten joatea.

Zer eskaini dezakete energia komunitateak?

Herritarrei boterea emateko modua dira energia komunitateak. Europako zuzentarauak esaten du entitate juridiko bat sortu behar dela horretarako. Guk kooperatiba bat sortzea proposatzen dugu, eta kooperatiba horrek norbanakoak, udalak, mankomunitatea, merkataria, enpresa txiki eta ertainak izango lituzke bere baitan. Elkarrekin kooperatiba bat sortuta elkarrekin gure behar eta arazoei aurre egiteko moduak bilatzean datza. Herriz herri, herritarrei boterea emateko modua da komunitateak sortzea, erabakitze ahalmena herritarrek izanik. **Ekiola proiektua jarriko da martxan Leintz bailaran. Zer deritzozu?**

Uste dut horrelako gauzak egin beharko direla, baina horren aurretik energia komunitateak sortuko nituzke. Kontsumo murrizketan egin behar da lan handiagoa, behar dugun elektrizitate guztia plaka batzuekin sortzen hasi baino.

Zein funtzio ikusten diozu D2030i?

Dauden proiektuak identifikatzen laguntzeko eta bidelagun egiteko rola duela eta hutsuneak dauden tokietan, horiek identifikatu eta horiek bete ahal izateko moduetan eragitea. Lanaren arloan, inklusioa, energian eta beste gai batzuetan. Nik uste dut horretan dabilela eta ahalegin polita egiten diharduela, gainera.

"HERRITARREI BOTERIA EMATEKO MODUA DIRA ENERGIA BERRIZTAGARRIEN KOMUNITATEAK"

"EUSKAL HERRIAN OROKORREAN ERABILTZEN DUGUN ENERGIAREN %93 KANPOTIK DATOR"

"Edonor bihur daiteke goi-mailako irakurle"

GORKA AURRE URTZAA PRAKAGORRI-KO ZUZENDARIA

Orokorrean, gutxi, motel eta ulermen txikiz irakurtzen dela-eta, LEKTURALIA metodologia proposatzen du PRAKAGORRIK, hori aldatu eta irakurketa jasoa lortzeko

LEKTURALIAren eta irakurketaren gaineko xehetasun interesgarriak emango ditu Gorka Aurre Urtzaak azaroaren 23an Garaian.

PRAKAGORRI eta LEKTURALIA zer dira?

PRAKAGORRI, Irakurketa Jasoa eta Goi Mailako Ikasketarako Metodologietan espezializatutako enpresa izateaz gain, irakur-gaitasun jasoko irakurle eraginkorrak eta ikasketetan bikaintasuna darien pertsonak gaitzen dituen erakundea dugu. Helburuari dagokionez, geure ditugun gaitasun intelektualak mailarik gorenera eramanez gizaki bakoitzak bere baitan duen potentzialtasun guztia ateratzea da, apartak, erabat bikainak izaten irakatsiz.

Zein da, bada, gaur egun, irakurketarekin lotutako errealitatea?

Gazteetan, 7-11 urte bitartean ardura asko eta egonezin ugari sortzen du irakurketak, helburu, neurketa eta ahalegin handiak eskatu arren, oso emaitza gutxi eta urriak lortu eta gurasoen artetasuna sortuz. 12 urtetik aurrera, berriz, ulertezina baldin bada ere, irakurketari ez zaio inolako arretarik eskaintzen, eta ikasleak ez du ondorengo urteetan bere irakurketa mailan inolako garapenik izaten. Ira-



Gorka Aurre Urtzaa. PRAKAGORRI

kurketak, egun, osasun oso txarra dauka. Oso gutxi irakurtzen da, eta ikasle zein helduk duen irakurketaren kalitatea, maiztasuna eta ulermena ere, oro har, oso urriak dira. Irakurketari ez zaio daukan garrantzirik ematen eta, ondorioz, eguneroko agendan ez zaio ez tokirik ez lehentasunik aitortzen, ahoz besterik esaten den arren. Irakurketarako ohiko metodologiak ulermen maila eskaseko ez-irakurleak sortzen ditu. Datu bezala, irakurletzat jo ditzakegun

pertsonek % 34 bakarrik liburu bakarra irakurtzen dute hilean. Gure LEKTURALIA metodologiarekin, edozeinek, hileroko 8-10 liburu, ulermen osoz, irakurtzeko gaitasuna lortzen du.

Ze metodologia darabilzue, bada? Gure metodologiak, informazioa jaso eta bikain kudeatzeko, ohiko silabadun irakurketa zaharkitua bertan behera utzi eta ikus-eremu zabala ezartzen du irakurri beharrik gabe informazioa erabat ulertzea lortuz. Ohiko irakurketak aje kaltegarri

ugari sortzen ditu, oso geldo eta ulermen gutxiz irakurtzeko ohi-turak ezarriz. Eskaintzen dugun formazioa asteko ordubeteko saio presentzialetan ematen da. Ikasleak gure plataforman egunero ariketa batzuk egin behar ditu, irakurketa-paradigma errortik eraldatzeko ezinbestekoa baita. Bestalde, ikasleak adinaren arabera taldekatzen ditugu, ariketek ere adinaren arabera-ko zailtasuna izaten baitute.

Irakurtzen berrikasi beharrean gara, beraz?

Bai, dudarik gabe. Irakurketa dugu gure barne mundua, eza-gutza maila, hizkuntza, ahozko gaitasuna eta beste hainbat esparru landu eta maila gorenean jartzeko ardatz nagusia. Beraz, ohiko irakurketa errortik eraldatu ezean, gure izana murrizten dugu, irakurketak gizakia oso bihurtzen baitu. Irakurketa goi mailan kokatu nahi bada, metodologia jasoa behar da. Eta LEKTURALIAren bitartez irakurketa-paradigma errortik eraldatzen dugu, irakurketa goi mailan kokatuz. Irakurketa, gaur egun, adinaren arabera, modu askotan azaltzen da formazio prozesuan, eta ikasleei, ikas-mailan gora egin ahala, akats eta eragozpen ugari eta larriak sortzen dizkie. Irakurketa jasoa izateko bide bakarra... metodologia jasoa jabe izatea da. Ez dago beste biderik.

Norentzat da LEKTURALIA?

Denentzako; 9 urtetik -edo 90 hitz minutuko irakurtzea- aurrera, adin mugarik gabe. Edozeinentzako da. Edonork eralda dezake bere irakur-gaitasuna, goi mailako irakurle izatea lortuz.

Ze esperientzia duzue?

Esperientzia oso ona eta emaitza are hobeagoak izaten ditugu gazte, nerabe, adinez nagusi zein

helduekin. Adibidez, minutuko 110 hitz irakurritik %40ko ulermena duen 13 urteko edozein ikasle, minutuko 350etik gora hitz irakurtzen jartzen dugu %100eko ulermenez. Helduen kasuan ere gauza bera gertatzen da. Gure ikasle guztiek hileroko gutxienez zortzi liburu irakurtzeko gaitasuna eskuratzen dute. **PRAKAGORRI zer gehiago egiten duzue?**

Beste gaitasun intelektual asko eta trebetasun ugari ere landu eta eraldatzen ditugu, hala nola ikas-metodologia eraginkorrak, buru-mapak, sintesi-teknika aurreratuak, komunikazio-teknika berriak, memoria garatu eta hobetzeko teknikak,... PRAKAGORRI erakunde pribatua da, eta gure ikerketa, jardura eta emaitzak gizarteratuz jardun dugu azken hogeitau urteotan, garatutako metodologiak ikasle, guraso, norbanako pribatu eta ikastetxei azalduz eta, bereziki, irakurketak dituen arazoei goi mailako irtenbidea emanez.

Non zaudete eta zein da zuen gonbidapena, beraz?

Garaia Parke Teknologikoan kokatuta gaude, eta datorren azaroaren 23an, Garaian bertan eta parte hartu nahi duen edozeinentzat, emango ditudan hitzaldietara gonbidatzen ditut debagoiendar guztiak -18:00etatik 20:00etara; 09:00etatik 11:00etara ikastetxe eta komunikabideentzat jardungo dut-, irakurketaren inguruan xehetasun interesgarriak izango baitira.

"HILERO ZORTZI LIBURU IRAKURTZEKO GAITASUNA ESKURATZEN DUTE GURE IKASLEEK"



IRAKURKETA JASOA, ULERMEN OSOA

ONDO IRAKURTZEN EZ DAKIENAK, EZ DAKI IKASTEN

Hitzaldia: Gorka Aurre

Tokia: Garaia Parke teknologikoa, Arrasate

Eguna: Azaroak 23

Ordutegia:

9:00etatik 11:00etara ikastetxe eta komunikabideendako

18:00etatik 20:00etara irekia pertsona guztiendako



lekturalia.com

lekturalia



Lehen lerroan, omenduen senitartekoak, alkatea eta Bizikidetza Batzordeko ordezkariak, osoko bilkuren aretoan. UXUE IGARZA

Aitortza jaso dute, haien memoria bermatu dadin

Eguaztenean omendu zituzten Jesus Uranga Urrutia, Agustin Aranburu Zabaleta eta Gregorio Gonzalez Rubio; senideei harrera egin zieten Udaleko Bizikidetza Batzordeko kideek, eta, ostean, lore eskaintza gain, Iñigo Arregiren eskultura bana eman zieten

Eneko Azurmendi ARRASATE

1936ko irailaren 26an sartu ziren tropa frankistak Arrasaten, eta hiru biktimak udal hautetsi eta udal langile ziren garai hartan. Agustin Aranburu Zabaleta udal-letxe kontu-hartzailea zen, 54 urte zituen, Encarnacion Basurtorekin ezkondata zegoen eta sei seme-alabaren aita zen. Azaroaren 2an Arrasatetik Ondarretara eramandako hamalau presoaren artean zegoen, eta kartzelako liburueta, libre utzi zutela agertzen da. Dena den, Oiartzunen fusilatu zuten, azaroaren 5eko gauean, heriotza-agirian jartzen duenez.

1936ko urrian eta azaroan, Ondarretako kartzelatik epaiketarik gabe ateratu zituzten hainbat herritar. Libre gelditzen zirelakoan, kamioietan sartu eta Hernani eta Oiartzunera eramane zituzten, kanposantu eta ingurueta fusilatzen. Egitako modu hura planifikatutako zerbait zela agerian uzten du Ramiro Llamas komandanteak,

faxistek Donostian jarria zuten epaile bereziak, Vitoriano Balderi doktoreari esandakoak.

Erresistentziako lehen lerroan


Gregorio Gonzalez Rubio gaueko udaltzaina zen Arrasaten. Brijida Monjerekin ezkondata zegoen –bi seme-alaba zituzten–. Alderdi sozialistako kidea zen. 1934ko urriko grebaren ostean, muga zeharkatzen, polizia frantsesak atxilotu eta polizia espainiarrari entregatu zion, Irunen. Preso egon zen Guadalupoko Gotorlekuan, 1936ko martxoko amnistiara arte. Milizianoa izan zen faxisten aurka. Arrasate erroi ostean, erresistentziako lehen lerroan aritu zen, Kanpanzar inguruan, eta segada batean erroi zela jakin da, Jose Mari Arriaranen testigantza eskertuz. Bere gorpuak desagertuta jarraitzen du.

Bidegabeki epaitua

Jesus Uranga Urrutia Udaleko bigarren errejidorea eta zinego-

tzi sozialista zen. Felipe Letona zinegotziarekin eta Trinitario Azconaga guardia munizipalarekin batera Frantziara ihesi zihoan, eta Iurre inguruko mendietan atxilotu zituzten hirurak, 1937ko irailaren 8an. 39 urte zituen orduan Urangak, Vicenta Mandalunicekin ezkondata zegoen eta bost seme-alabaren aita zen. 1934ko urriko gertaerengatik eta Marcelino Orejaren hilketagatik epaitu zituzten hirurak eta heriotza-zigorra ezarri zieten –gerora frogatu da kargu haiek faltsuak zirela–. Uranga izan zen zigorra konmutatu ez zioten bakarra: 1938ko abuztuaren 13an, 05:30ean, exekutatu egin zuten Bidebietako tiro-eremuan.

HIRU OMENDUEN SENIDEEK ERE HITZ EGIN ZUTEN OSOKO BILKUREN ARETOAN EGINDAKO EKITALDIAN




MAITE URANGA JESUS URANGAREN ILOBA

"Etxean oso inportantea izan da aitortza hau eta erreprezio frankista jasan zuten guztiekin partekatu gura dugu. Bere alaba zaharrenak aitortza hau bizirik ikusi ahal izan du, behintzat. Izan ere, berandu, baina etorri da. Pentsa, 85 urte daramatzagu justizia eske.



JON BEREZIBAR AGUSTIN ARANBURUREN BIRBILOBA

"Ekitaldi honek aitzakia eman digu berba egiten hasteko. Istorio hauek ez dira askorik zabaltzen eta badirudi mingarria delako ez dela kontatu behar. Oso eskertuta gaude asko merezi duten horiei omenaldia egin izanagatik; ez bakarrik hildakoei, baita haien emazteei ere".



ITSASO NUIN GREGORIO GONZALEZEN SENIDEA

"Gai hauetaz berba egitea ez da erraza, batez ere, gure amarendako, oroitzapen gogorrak dituelako, baina aukera eman digu horrenbeste urtez isilpean egon izan den gaiaz hitz egiteko. Inportantea izan da ekitaldia, Gregorioren memoria gal ez dadin".



NIRE USTEZ

JOSU ZUGASTI

Inposizioa

Hizkuntzak irakastea egokitu zait ogibidez. Ingelesa, gaztelania eta euskara irakasle ibili naiz, eta horrek aukera eman dit hizkuntza bakoitzak gazteen artean sortzen dituen erreakzioak ikusteko, baita guraso batzuen kezak entzuteko ere.

Kuriosoa da, baina denetariko kexen artean inoiz ez dut entzun "gaztelania inposatu egiten zaigu"; Espainiako Erresuman bizi behar dugun euskaldunok, jaiotzean, Pilarreko Amaren mirariz edo, gaztelaniaren dohaina jasoko bagenu bezala.

Ingelesa, berriz, hizkuntzarik *cool*-ena ei da. Batxilergoa baino lehen lortu behar da *First-a*, unibertsitatea baino lehen *Advanced-a*. Lanerako, aisialdirako eta bidaiatzeko ia ezinbestekoa izanik, ingelesa ikastea "aukeratzen" dugu, eta gogoz ordaintzen ditugu Cambridgeko matrikulak. Ezin esan inposatu egiten denik.

Euskarara iristean, baina... aditzak zailak dira, euskaltegiak ordainezinak, tituluak bidegabeak; edozein exijentzia inposizio. Betiko konplexuei damu berriak gehitzen zaizkien garaioetan, ez nintzateke harrituko politikariren batek ahalera eskolan irakasteagatik barkamena eskatuko balu.

Aniztasun funtzionala dutenendako sormen saioak Etxaluzen

Arrasaten bertakoak dantzan sormen ekimena abiatu dute Gazteria eta Aniztasuna sailek elkarlanean, BASH taldeak dinamizatuta. Hilean behin, zapatuetan, 11:00etatik 13:00etara egingo dituzte saioak, Etxaluzeko Axeri gelan. Izena eman daiteke, 680 15 57 46 telefonora deituta edota davilaeguren@gmail.com helbidera idatzita.



Ander Garay, Maria Ubarretxena eta Victor Fuentes. ENEKO AZURMENDI

Aurtengoa baino %2,7 handiagoa

"Azken hamabi urteetako aurrekonturik altuena" aurkeztu du 2022rako Arrasateko Udal Gobernuak: 37.099.591,17 eurokoa, hain zuzen, 2021ekoa baino %2,67 handiagoa; inbertsio nagusia Santa Teresaren urbanizazioarena izango litzateke: 900.000 euro

Eneko Azurmendi ARRASATE

Ander Garay Ogasun zinegotziak azpimarratu du *zero zor* egoeran jarraitzen duela Arrasateko Udalak, "egoera finantzario onean", eta Debagoien osoan tasak eta zergak igoko ez dituen udalerrri bakarra izango dela gaineratu du. Era berean, Foru Funtsetik aurtengoa baino bi milioi gehiago jasotzea aurreikusten dute datorren urtean -16.800.000 euro-, eta Europar Batasuneko Next Generation funtsetik iritsiko den dirulaguntza ere ziurtzat ematen dute -993.285 euro-. Hori hala izanik, eta "azken lau urteetan Udalean egindako kudeaketa onari esker", Udal Gobernuak "azken hamabi urteetako aurrekonturik altuena" aurkeztu du 2022rako, 37.100.000 eurokoa. 2021eko udal aurrekontua baino 965.000 euro gehiago da hori -%2,67 handiagoa-. Au-

rrekontu proposamenaren %66 -25 milioi euro- udal langileen soldatetara eta ondasun eta zerbitzuetara bideratuko litzateke.

Inbertsio nagusia: Santa Teresa

Proposamenaren arabera, bost milioi euro bideratuko lituzke Udal Gobernuak inbertsioetara, eta partidarik handiena, 900.000 eurokoa, Santa Teresako urbanizatzeko izango litzateke; besteak beste, Musakola, Santa Teresa, Galizia, Agerre eta Doneztebe Portuko kaleak lotuko dituzten igogailuak egiteko. "2007tik dago proiektu bat egin da, baina inork ez du gauzatu orain arte. Igogailuez gain, proiektu hori berraztertuko dugu, eta gaur egunera egokitu, denbora asko pasa baita", azaldu du Maria Ubarretxena alkateak.

Era berean, 2022ko udan bukatzea aurreikusten duten *Eko-*

bulebar-era 300.000 euro bideratuko lituzke Gobernuak, eta diru kantitate berbera du aurreikusita Araba etorbidearen eta Foruen plazaren arteko bidegorria egiteko ere. Horrez gain, Zalduspe inguruaren urbaniza-

Parte-hartzea sustatu gura dute

Herritarrek azaroaren 28ra arte edukiko dute aukera aurrekontu parte-hartzaileetan ekarpenak egiteko. Horretarako, proposamen orria bete eta Kulturaren, BAZen, Gazte Bulegoan, Emakume Txokoan, kiroldegian, Etxaluzen edo Toki Argin jarri dituzten kutxetan sartu beharko da.

Berritasunetako bat ideiak lantzeko sormen tailerreina da. Lau saio egingo dituzte: azaroaren 15ean, Kulturateko Jokin Zaitegi gelan; azaroaren 16an, Etxaluze eraikinean, San Andresen; azaroaren 23an, Musakolako Erretiratuen Etxean; eta azaroaren 24an, Kulturateko Loramendi gelan. Saio guztiak 18:15etik 20:00etara izango dira. Izena emateko, 943 25 20 00 telefono zenbakira deitu edo partaidetza@arrasate.eus helbidera idatzi.

zioarekin jarraitzeko asmoa dauka, eta 400.000 euro bideratu gura ditu horretarako.

Arlo sozialak, %30

Pandemiaren eraginez, hainbat partida indartzeko beharra ikusi zuen Gobernuak 2021eko aurrekontuan -%40ko igoera-, eta horiek mantenduko lituzke 2022ra begira; hau da: etxez etxeko laguntza zerbitzua zein pobrezia-aren kontrako larrialdi planeta-rako 1.200.000 milioi euro, babesgabeko egoerei aurre egiteko 322.950 euro eta tutoretzapean dauden etxebizitzaren laguntza zerbitzurako, 60.000 euro. Horrekin lotuta, 417.828,37 euro bideratuko lirateke "egoera zaurgarrian dauden herritarrei" lan aukerak eskaintzeko.

Halaber, Lan Ere Bai programarekin jarraitu gura du Gobernuak, eta Hondarribia kaleko tailerra bukatzeaz dagoela dio alkateak -82.507 euro bideratuko lituzke horra-. Bestalde, 40.000 euro bideratuko lirateke San Juan de Dios ospitalearekin eta herriko ikastetxe komunitatearekin elkarlanean garatzen den eta droga-menpekotasuna ardatz duen EKKO programara.

Kiroldegia, "apustu irmoa"

Kirol azpiegituren mapa osatzeko parte-hartze prozesuak aurrera jarraitzen du, eta 2022an proiektua idazten hastea aurreikusten du Gobernuak, horretarako 100.000 euro bideratuz. "Kiroldegia apustua irmoa da eta serioa da eta aurrera egingo dugu", azaldu du Ubarretxena, eta Garayk zera gaineratu du: "Parte-hartze prozesuan erabakitakoa errespetatu egingo dugu, gainera, hori izango delako herritarren nahia".

Musakolan, gaztegune berria

Ludoteka eta gazte txoko zerbitzua "indartu" egin gura du Gobernuak, aurrekontua %2 igoz eta 2022an 435.230 euro bideratuz. "Gainera, Zigarrola auzoan gaztegune berria egin gura dugu, Kutxaren lokal hutsean, eta 38.000 euro bideratuko ditugu horra".

Bestalde, Grupo San Juanen eraberritzeko prozesu parte-hartzailearako 18.000 euroko partida eduki gura du Gobernuak, Altamira auzoko berrurbanizazio proiektua egiteko 40.000 euro eta Amaia antzokiko galdara aldatzeko eta ekipamendua berritzeko 80.000 euro.



"Ama izan aurretik baino sentsazio hobeak ditut"

NEREA BAENA KORRIKALARIA

Gasteizko Emakumeen Lasterketa irabazi zuen irailean eta Zaragozan laugarren bukatu zuen joan den asteburuan; ama direnen artean lehenengo sailkatua izan zen

Eneko Azurmendi ARRASATE

"Inolako presiorik gabe" dabilen arren, oso maila onean ari da Nerea Baena korrikalaria (Arrasate, 1984) azken hilabete hauetan egin dituen probetan. Zaragozako Emakumeen Lasterketan -6,5 kilometro-, esaterako, laugarren sailkatu zen, Maria Jose Pueyo omendu zuten lasterketan, omenduaren aurretik.

Emakumeen lasterketetan parte hartzen ari zara azkenaldian.

Hiriburu askotan egiten dituzte lasterketa horiek. Duela hainbat urte, Bartzelonan egin nuen lehenengoz. Zozketa bati esker eskuratu nuen dortsala eta 27.000 parte-hartzailetatik bosgarren iritsi nintzen. Orduan piztu zitzaidan harra.

Joan den asteburuan, Zaragozan, emaitza ona lortu zenuen.

Bai. Banekien maila onean nengoela, eta nire helburua zen kilometroa lau minutu inguruan egitea. Irabaztea oso zaila zela banekien, Maria Jose Pueyo atleta olinpiarraz gain, maila oneko beste hainbat atleta zeudelako. Edozelan ere, kilometroa lau minutu azpitik egitea lortu nuen, onenen pare joan nintzen eta irabazlearengandik 40 segundora iritsi nintzen helmugara. Pueyoren beraren aurretik egin nuen, eta maila horretako atleten pare aritzeak harrotasun handia ematen dit.

Semea ere zure jarraitzaile sutsuetako bat da...

Hala da, bai. Duela bi urte ama izan nintzen, eta, semeak entrenatzen ikusten nauenez, ilusio handia egiten dit hark ni lasterketa batean parte hartzen ikusteak. Gainera, asko animatzen nau. Zaragozako proban, esaterako, zera esaten zidan: "Pim pam pum, amatxo txapel-dun!". Ilusio handia egiten dit horrek, eta, ama ginenon artean lehen sailkatua izanda, are gehiago. Pentsa, hari titia ematen ego nintzen podiumera.



Nerea Baena, Zaragozako proba hasi aurretik. N.B.

"ILUSIO BEREZIA EGITEN DIT IKUSTEAK GEROZ ETA EMAKUME GEHIAGO ARI DIRELA KIROL PROBETAN"

Ze esangura du zuretzat halako probetan parte hartzeak?

Parte hartzeagatik ordaindu egiten duzu, eta, kirola egiteaz gain, ordaintzen duzun diru kantitate bat askotariko kausak babestera bideratzen dituzte. Gasteizko eta Zaragozako kasuan, bularreko minbiziaren aldeko lasterketak izan dira eta Bilbon egin nuen beste bat gaixotasun neurodegeneratiboen ikerketarako dirua batzeko izan zen. Polita da eta, gainera, parte-hartzaile askok oinez egiten dute, sinbolikoki. Zaragozan, esaterako, 93 urteko emakume batek hartu zuen parte.

Zerk egiten ditu berezi halako lasterketak?

Ilusio berezia egiten dit ikusteak geroz eta emakume gehiago ari garela halako probetan eta, oro har, kirol probetan. Izan ere, orain arte gutxiago izan gara,

eta gauzak aldatzen ari dira, alde horretatik. Gainera, oso maila oneko kirolariak dira asko, eta horrek izugarri poztzen nau. **Amatasuna dela-eta, geldid egon zara orain arte...**

Bai; hiru urte geldid egon naiz. Nire ahizpa zoru pelbikoan espezializatua da, eta esan zidan lasai hartzeko, zoru pelbikorako ez dela ona erditu eta berehala korrika hastea, inpaktu handia delako organoentzat. Beraz, uda honetan hasi naiz berriro.

Edozelan ere, inongo presio barik diharduzula diozu...

Bai. Lanarekin eta umearekin, ez daukat denbora askorik entrenatzeko. Beraz, ahal dudanean eta gogoia dudanean egiten dut. Zaragozako proba baino lehen, adibidez, bi aste entrenatu barik egon nintzen. Beti izan naiz oso lehiakorra, baina orain, presio barik ari naiz. Gainera, gauzak ondo ateratzen ari zaizkit.

Duela urte batzuetako mailara iritsiko zarela uste duzu?

Esango nuke lehen baino hobeto nagoela orain, lehen baino sentsazio hobeak ditut, hobeto sentitzen naiz. Uste dut presiorik eta helburu jakinik barik aritzeak mesede egiten didala.

"Genero-indarkeriaren aurkako borrokarako", 22.000 euro

Espainiako Gobernuak 22.050,13 euro bideratuko ditu Arrasateko Udalera, "gaitz horren aurka" jarraitzeko

E.A. ARRASATE

Johanna Sanchez Arrasateko Udaleko Berdintasun zinegotziak aditzera eman du Espainiako Gobernuak 22.050,13 euro bideratuko dituela Arrasateko Udalera, "gaitz horren aurkako bai programak bai proiektuak finantzatzeko". Era berean, "al-biste pozgarritzat" jo du.

Egun, Arrasateko Udaleko Berdintasun Sailak ia 101.848 euro ditu udalerrian indarkeria matxistari aurre egiteko, eta bi programa bultzatzen ditu: bate-tik, genero-indarkeriaren aurka,

57.000 euroko partida bat, eta, bestetik, eskoletan emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeko plan bat, urtean 34.848 euroko inbertsioarekin. Horrez gain, tratatu txarrak jasateko arriskuan dauden emakumeei laguntzea helburu duen programa ere aipatu du zinegotziak, 10.000 euroko aurrekontuarekin. "Gainera, Udaletik aholkularitza juridikoko zerbitzu bat bultzatzen dugu, eta prestakuntza programa bat dago udaltzainei zuzenduta, indarkeria matxista prebenitzeko", gaineratu du.

Alde zaharrean zuntz optikoa jartzeko lanak hasi dituzte

"Kanalizazio lanak dira hasi berri direnak, egungo Telefonicaren kanalizazioa eta zuntza eramane behar den eraikinen artekoa; hau da, barrualdera sarbide prestatua duten eraikinetara lotzeko", azaldu du Udal Gobernuak. Halaber, gogorarazi du beharrezkoa dela atartearen baimena, eta oraindik 50 bat atarte falta direla horretarako.

3.500 txokolate-tableta opari, 'Black Arrasate'-ren baitan

Bigarren urtez, *Black Arrasate* ekimena jarriko dute martxan Ibai-artek eta Harremanek, "herrialde behartsuenei laguntzeko konpromisoarekin bat" eginda, eta, modu horretan, merkatarien elkarteak bidezko merkataritzako 3.500 tableta doan banatuko ditu bezeroen artean, erosketa bakoitzeko. Harreman erakundea "izugarri" eskertuta azaldu da.

GORA ETA BEHERA



E.A.

Ferixalekuko igogailua, martxan

Joan den astean, kexa azaldu zuen herritar batek, Ferixalekuko igogailua zerbitzuz kanpo zegoela eta martxan noiz jarriko zuten galdetuz. Matxura konponduta, jada martxan jarri dute.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? berriak@goiena.eus edo 688 69 00 07.



Ausortu-ren lehen edizioan, gazte sortzaileak Izaro Andres musikariak gidatutako saioan. AED

Ausardiaz sortzeko ingurunea eraiki nahian

Herriko gazte sortzaileei begirako 'Ausortu' egitasmoa eguneratzea pentsatu dute AED, Ttak eta Txatxilipurdi antolatzaileek. Hala, azaroaren 20an topaketa egingo dute gaztetxean, 11:00etatik 13:00etara; izen-ematea hilaren 15ean amaituko da

Hasier Larrea ARRASATE

2018an sortu zuten *Ausortu* egitasmoa AEDk, Ttakek eta Txatxilipurdik, gazteen sormena bultzatzeko asmoz: "Kontzientzia ginen herrian bazegoela orotariko kultura eskaintza, agian hutsune bat edo besterekin, baina gabezia handiagoa ikusten genuen sorkuntzaren alorrean", ekarri du gogora Itxaro Artolak, AEDko kideak, dinamika horren jatorria zein zen galdetzerakoan.

Hasieran lau diziplina artistikori zabaldu zizkieten ateak, arte plastikoari, ikus-entzunezkoari, arte eszenikoei eta musikari, zehazki, baina berehala egiaztatu zuten gazte gehienek interesak musikarekin lotuta-koak zirela. Horregatik ez da harritzekoa sormen laborategia gidatzeko ardura izan duten bost gonbidatuetatik hiru Izaro Andres, Olatz Salvador eta Eñaut Elorrieta izatea. Beste biak Joana Manzisidor eta Helena Azkarraga Urizar artista arrasatearrak izan ziren.

Gazteek erabaki dezaten

Enkontru haiek sormen laborategi bezala definitu zituzten, baina azaroaren 20koa topaketa izango da, egitasmoaren bultzatzaileek formatuari "buelta bat" eman ostean. Izan ere, 14 eta 21 urte arteko gazte sortzaileen eskuetan lagako dute bidea zabaltzeko giltza: "Asmoa sortzaile hauek elkar ezagutzeko espazioa eskaintzea da, euren kezkak partekatu eta datorrenaren aurrean indarrak pila ditzaten".

Dagoeneko dantza, ikus-entzunezkoak, literatura edota musika gustuko dituzten 16 gazte inguruk erakutsi dute jardunaldi motz horretan parte hartzeko interesa, eta, "ilusioz, esker oneko eta parte hartzeko prest"

GAZTEEN ESKUETAN UTZIKO DUTE EUREN SORMENA GARATZEKO BIDEAK NOLAKOA IZAN BEHAR DUEN

azaldu dira. Baina gehiagorengana ere iritsi nahi dute, eta horretarako ireki dute azaroaren 15a arte zabalik egongo den webgune bidezko izen-ematea –goiena.eus-en argitaratutako albisteak dakar lotura–. Bertan inkesta ere bete beharko da, sortzaileek jakinarazi beharko dutelako, besteak beste, zein den interesatzen zaien alor artistikoa, "sentsibiltate guztiei" egin nahi baitiete tokia.

Lehen harria jartzera

Hala, topaketa "gertuko, eroso eta ludiko" bezala aurkeztu nahi izan dute antolatzaileek aurtengo *Ausortu*-ren lehen hitzordua, talde txikietan batu eta denek artean "poliki-poliki" aurrera begiratzeko: "*Ausortu*-tik pasa diren gazteekin eta artista erreferenteekin kontrastatu ostean, orain artekoaren balorazio positiboa egiten dugu, baina garaia da Arrasaten dugun harrobiari bere bide propioa egiten uzteko", ondorioztatu du Artolak.

Toundra taldekoak ez dira izoztuta geldituko oraingoan

Madrilen izan zen elurteak galarazi egin zien urtarrileko kontzertua jotzea, eta bihar izango dute beste aukera bat

H.L. ARRASATE

2020ko otsailean kaleratu zuen post-rock estiloko bandak *Das Cabinet des Dr. Caligari* diskoa, bere zazpigarren albuma. Izen bereko film espresionista eta mutuari soinu banda propioa jarri zioten modu horretan. Zuzenekoari begira, 101 urte bete dituen pelikula proiektatu bitartean interpretatzen dituzte abestiak, momentu emotibo bezain bereziak eskainiz publikoari. Esperimentu horren emaitza nolakoa den frogatu nahi duenak Amaia antzokira gerturatu besterik ez dauka, bihar, 19:30ean hasita.



Toundra, zuzeneko batean. EMILIO PASTOR

Etortzeko gogoz

Filomena denboraleagatik urtarrilekoa bertan behera gelditu aurretik Euskal Herrira etortzeko "irrikan" bazeuden, zer esan ik ez hamar hilabeteren

ostean. Bien bitartean, baina, ez dira gora begira egon, *HEX* izeneko diskoa kaleratu baitute. Hori Gasteizko Hell Doradon aurkeztu zuten hilaren 6an. Arrasateko egonaldiaren ostean, Donostiako Victoria Eugenia eta Bilboko Arriagan joko dute.

14 erretratu ikusgai Doken

Roman Gonzalez Pildain margolariak bere laugarren erakusketa ireki du. Jokin Zaitegi plazako Doka tabernan jarri ditu gertuko pertsonen argazkietan oinarritutako koadroak, eta azaro osoan bisitatu ahaliko dira. Paisaiak egiten hasi eta pixkanaka erretratueta espezializatu zen 2012a ezkerro Arrasate Margo Taldeko kide denak.



H.L.

La Secta, Bilbo eta Santurtzitik datorren laukotea, Koolturen

2018an itzuli zen garaje punk eszenara Bizkaiko talde historikoa, 26 urte igaro eta gero, jatorrizko formazioarekin. Ingeles hutsean abesten zuen lehen euskal taldeetako izan zen 80ko hamarkadaren amaieran. 13th Floor Elevators eta Stooges taldeak gogoratzen dituzte euren doinuek. Eguenean, hilak 18, joko dute gaztetxean, 22:00etan.

Intxorta 1937k azken liburua aurkeztuko du Kulturaren

Josu Chuecak idatzi duen *2000 del Winnipeg. Diario de a bordo* liburua aurkeztuko dute abenduaren 2an, 18:30ean, Txorbelatxoren parte hartzearekin. 1939an *Winnipeg* ontzi frantsesez Txilera ihes egin zuten errepublikazale erbesteratuen pasarteak dakartza liburua, bertan bidaiatu zuten hiru arrasatearrei erreferentzia eginez.

Arte eszenikoak umeei gerturatzeko ekimena

'Haziara in the mapping' jaialdia antolatu du Paraiso Antzerkiak. Arabako hainbat herrikan egingo dituzte ekintzak; tartean, Aramaion. Topaketa, kontenplazioa eta esperimentazioa integratzea izango dute helburu, umeei zuzendutako jaialdian

Arantzazu Ezkibel Galdos ARAMAIO

Araba mailan antolatzen den *Haziara in the Mapping* jaialdiak geldialdia egingo du astelehenean Aramaion. Paraiso Antzerki taldea dago ekimenaren atzean: jaialdiak kontakizun zirrargarri eta harrigarri bat sortu nahi du.

Aramaio Udaleko Kultura teknikari Ixaso Azpiazu: "Badiara urte batzuk Haziara jaialdiko hainbat ekitaldi Aramaion egiten direla. Kaxekin egindako instalazioa, adibidez, egin izan dugu eta arrakasta izan du. Umeak eta gurasoak oso gustura ibiltzen dira".



Jaialdiko kartelaren irudia. PARAISSO ANTZERKIA

'Kaxa bat, amets bat'

Paraiso Antzerki taldeak Aramaio Udalaren eta San Martin eskolaren laguntzarekin antolatu du *Kaxa bat, amets bat* instalazioa. Helburua da esperimentazioa iradokitzaile bat aurkeztea familiei. Instalazioan parte hartzeko, aurrez izena eman behar da udaletxean: 945-44 50 16.

Bi taldetan banatuko dituzte haurrak: 16:15ean, 2-3 urtekoen txanda izango da; eta 17:45ean, 4-5 urtekoena. Familiek joko irudimentsu eta sortzaile bat garatzeko aukera izango dute. Kultura etxean egongo da ins-

KAXEN INSTALAZIOA KULTURA ETXEAN JARRIKO DUTE AZAROAREN 15EAN, ASTELEHENA

talazioa. Kaxak jolas-elementu unibertsalak dira; eta haurrek esploratzeko, esperimentatzeko, eraldatzeko, sortzeko, imajinatzeko, amesteko eta partekatze-ko askatasuna izango dute kultura etxeko instalazioan.

Imajinarioa eraikitzen

Jaialdiak ikuspegi garaikidea proposatzen du. Arte eszenikoek imajinarioa eraikitzeko duten balioa azalaraztea da helburu nagusietako bat. Modu berri-zaileak aurkezten ditu, haurren eta sormen hizkuntzen arteko loturaren esanahi sakona ikusteko. Horrez gain, jaialdiak lurraldeko mapa kolaboratzaile bat marrazten du, etorkizuna moldatuko duten errealitate berriak proiektatzeko. Abenduaren 5era arte iraungo du jaialdiak, Arabako hainbat herrikan.

NIRE USTEZ



LEIRE ELEJALDE

Zalantzatia naizela diot maiz

Damuen inguruan idatziko banu, idatziko nuke gaizki erabaki izan dudaren inguruan. Atzokoen inguruan eta herenegungo erabakien inguruan. Egin nituenak kontatuko nituzke, egin ez nituenak egin behar izan nituela azaltzeko. Iraganera salto egingo nuke, egunerokotasunean sentitzen dudalako; damutzen naizelako, gaur.

Ondo ezagutzen dudan sentimendua da, esango nuke urtero minutu bat gehiago luzatzen dudala erabakitze momentua; urte bat gehitzen denean, nire batez besteko erabakitze denbora minutu bat handitzen dela. Batez beste, damutzeak beldur gehiago ematen didala urtero. Horrela, minutu bat gehiago xahutzen dut erabaki zuzena hartuko dudalakoan, inguruabar berdinez luze pentsatzeak erantzun idealera eramango naudelakoan.

Beraz, hurrengo batean "zalantzatia naiz" esaten dudanean, jakin ez dela urrian jaio nintzelako, baizik eta erantzukizunak nire gain hartzeko beldur naizelako.



HERIBERTO ARRIOLABENGOA

Moto eta Fernandez nagusi

San Martin pilota txapelketako finalak jokatu zituzten zapatuan. Infantil A mailan, Aramaio pilotariak garaikurra eskuratu zuten. Eñaut Moto eta Julen Fernandez 18-13 nagusitu ziren Aimar Ruizen eta Aritz Arruizen aurka. Bestalde, azaroaren 16an, martitzena, Arabako txapelketako banakako lehia jokatu dute Aramaion, 19:00etan.

Umeendako antzerkia eta musika

Jaialdiaren barruan beste bi ekitaldi egingo dituzte Aramaion. Azaroaren 27an, zapatua, *Leioak* ikuskizuna egingo dute 2 eta 5 urte bitarteko umeendako, 18:00etan. Paraiso Antzerki taldeak eskainiko du ikuskizuna. "Haizeak txistu egiten du eta hotz handia egiten du. Albisteek hotz eta elur olatu handi bati buruz hitz egiten dute. Etxetik ez irtetea

gomendatzen da. Emakumea aspertuta eta atsekabetuta dago, leihotik begira geratzen da eta leihoaren lurrinaren gainean marrazten hasten da. Gauaren itzalaren artean dantzari baten silueta agertzen da, leihoaren isla itsas kosmos bihurtzen duena"; hori da antzezlanaren sinopsia.

Azaroaren 28an, aldiz, 1 eta 4 urte bitarteko umeei

zuzendutako kontzertua eskainiko dute Sergio Lopez de Landachek, Laura Marcosek eta Koldo Uriartek. Jazz estilotik, klasikotik eta estilo etnikotik datozen musikariak euren sormena batzen dute soinu-unibertso bat batzeko. "*Kulunka* ikuskizuna haurrendako musika opari bat da, soinu mundu berriak ezagutzeko eta horietan murgiltzeko grina pizten duena", azaldu dute antolatzaileek. 18:00etan izango da emanaldia.

Errefuxiatuendako oinetakoak batuko dituzte asteburuan

Zaporeak elkarteak oinetako bilketa kanpaina abiarazi du. Aramaion, Sastiñan batuko dituzte: gaur, 17:00etatik 18:30era; eta bihar, 11:30etik 13:00etara. Neurri guztietakoak jasoko dituzte: kirol oinetakoak, botak, zapatak... baina takoidunak ez. Egoera onean dauden eta erosoak diren oinetakoak eramateko nabarmendu dute.

Etxeko konpostari buruzko formakuntza saioa egingo dute

Martitzenean, azaroaren 16an, etxeko konpostari buruzko formakuntza saioa egingo dute udaletxean, 18:00etan. Lehenengo solairuan izango da eta konpost egiteko materiala eskatzeko aukera egongo da. Parte hartzeko ezinbestekoa izango da aurrez izena ematea: ingurumena@gorbeialdea.eus helbidean edo 945-44 50 16 zenbakian.

Okm:

*batzen gaituen
distantzia*

Egin zaitez goienakide!

goiena[“]
kide



www.goiena.eus/kideak



Hirigintza Plana landuko dute herritarrekin batera

'Nahi dugun Atxabalta' izenarekin, Hiri Antolamenduko Plan Orokorren lehenengo faseari ekingo diote. Diagnostikoa egingo da, eta herritarrak gonbidatu dituzte horretara: azaroaren 18an informazio hitzaldia egongo da eta 24an partaidetza saioa

Mirari Altube ARETXABALETA

Datorren astean jarriko dute abian Hiri Antolamenduko Plan Orokorra definitzeko prozesua. Lehenengo faseari ekingo diote eta udalerraren egungo egoeraren diagnostikoa egingo dute. *Nahi dugun Atxabalta* da prozesuari jarri dioten izena eta hor landuko dituzten gaien artean daude etxebizitza, espazio publiko, ekipamendu eta mugikortasun kontuak. Unai Elkoro alkateak azaroaren 15ean abiatuko den herritarren partaidetzaren lehen fasea aurkeztu zuen eguaztenean, eta agerraldian parte hartu zuten EH Bilduko bozemaile Ion Albizuk, Ibai Larrabe udal arkitektoak, Amaia Murgiondo Partaidetza arduradunak eta Udalak prozesuaren dinamizaziorako kontratatu duen Lur Studio enpresako Jone Belaustegiokiak.

Parte hartzearen garrantzia

Une honetan herriak ez duela hirigintza planik azaldu zuen alkateak, 2000. urtekoak diren Arau Subsidiarioak baizik: "Garrantzitsua da plan hau idaztea Aretxabaletak bere beharretara egokitutako egungo tresna bat izan dezan". Udalerraren "garapenerako tresnarik garrantzitsuen" izanik Plan Orokorra, herritarren, gizartearen eta politikaren artean ahalik eta adostasun handienarekin onartzea gurako lukete: "Herritarren parte-hartzea ezinbestekoa da", eta horretara gonbidatu zituen.

Albizuk berretsi egin zuen planaren garrantzia: "Ez da edozein erroka, hurrengo urteetan herrian egingo dena eta egin ahaliko dena zehaztu baita". Eta "erabakigarria" izan behar du litzatekeela herritarren esku-hartzea zioen: "Horrez gainera, eratuko den Aholku Kontseilua ezinbesteko erreminta da gaien dimentsio guztiak kontuan hartzeko".



Murgiondo, Albizu, Elkoro, Belaustegiokitia eta Larrabe, HAPOn berri ematen. M.A.

Partaidetza prozesuaren pausoak

Informazio guztia www.hapo-aretxabaleta.eus/eu webgunean jasoko da. Diagnostikoa egiteko partaidetza prozesuaren egutegia hemen:

- **Galdetegia:** Azaroaren 15etik abenduaren 3ra, webgunean.
- **Hitzaldi informatiboa:** Azaroaren 18an, 18:00etan, Arkupen.
- **Partaidetza saioa:** Azaroaren 24an, 18:00etan, Arkupen.
- **Saio bereziak:** Hainbat eragileekin: ikastetxeak, erretiratuak, nerabeak, emakume taldeak, auzoetako alkateak...
- **Aholku Batzordea:** Herriko hainbat arlotan lan egiten duten berrogei bat talde eta elkartetako ordezkariak osatuta.

Bederatzi arlotan banatuta

Lanerako gaiak bederatzi arlotan banatu dituzte: ingurumena; mugikortasuna; espazio publikoa; etxebizitza; jarduera ekonomikoa; ekipamenduak; eta ondarea, jasangarritasuna eta klima aldaketa; eta inklusibotasuna eta osasuna. Horiek landuko dituzte herritarrak eta saio bereziak dira deitutako eragileek.

Aholku Batzorde bat ere sortuko da eta "zeregin garrantzitsua" izango du prozesu osoan. Hori osatuko dute, besteak beste, hezkuntza, industria, hiru-garren adina, gazteak, kultura, kirola eta ingurumena arloetan lan egiten duten herriko talde eta elkartetako ordezkariak.

Prozesu luzea

Hirigintza-estrategia zehaztuko duen plana idaztea prozesu luzea izaten da, eta bost edo sei urteko kontua Larrabe arkitektoaren esanetan. Hainbat fase izango ditu eta guztietan parte-hartzea. Diagnostikoa zehaztu ondoren, 2022ko otsaila eta martxoa bitartean, Aretxabaletako garapenerako herritarren proposamenak eta alternatibak jasoko dituzte.



Udalbatzako kideak Migrazioako Euskal Itun Sozialari babesa ematen. M.A.

Migrazioko Euskal Itun Sozialari atxikimendua adierazi diote

Hamar konpromisorekin Jaurilaritzak zehaztu duen dokumentua babestea onartu zuen udalbatzak

M.A. ARETXABALETA

Ohiko osoko bilkura egin zuen udalbatzak eguaztenean, eta Eusko Jaurilaritzak sustatutako Migrazioko Euskal Itun Soziala izan zuten berbetarako gai, besteak beste. *Jaso nahiko genukeena eskaintzea* izeneko dokumentuan hamar puntu zehaztu dituzte, eta horiei babesa eman zien udalbatzak, aho batez.

Immigrazio erregularizatuari zein erregularizatu gabeari, hainbat eragileren arteko erantzunkidetasunari, bidaiderik gabe datozen adin txikikoei eta bizikidetzaren kulturari erreparatu diete dokumentu horretan, eta konpromisoak zehaztu dituzte. Hala, bizikidetzaren, giza eskubideen, genero-berdintasunaren eta beste hainbat konturen gaineko konpromisoak hartu zituen udalbatzak horri erakutsitako atxikimenduarekin.

Energiaren prezioa

Bestetik, mozioa aurkeztu zuen EH Bilduk, energia horniduraren prezioen gorakadaren aurrean hartzeko neurrien gainekoa. Argindarraren prezioa maximo historikoetan egoteak "ondorio larriak" izan dituela familietan, enpresa txiki eta ertainetan eta denda txikietan adierazi zuten, eta tokiko erakundeetatik ere urratsak egin daitezkeela gaineratu. Hala, proposatu zuten Jaurilaritzari eskatzea, besteak beste, auto-kontsumoa eta komunitate energetikoak sustatzeko partida bikoiztea 2022an eta Gizarte Larrialdietarako Laguntzen baitako diru-kantitateak handitzea. Alkatea ez zen bat etorri mozioan esandakoekin, baina onartu zuen energia burujaberantzko pausoak eman beharra dagoela. Horregatik, abstenitu egin zen EAJ, eta mozioa onartutzat eman zen.

Zinema asteburuan itzuliko da Arkupera, 'Nora' filmarekin

Lara Izagirrek zuzendutako *Nora* filma –euskaraz, azpigituluekin– izango dute helduek Arkupen aste bukaeran: gaur (22:00); zapatuan eta domekan (19:30); eta astelehenean (16:00). Sarrera 5 euro izango da hemendik aurrera, eta astelehenetan, 3 euro. Umeek, oster, animaziozko filma dute bihar eta etzi: *Space Jam*: aro berria.

**Mobiliario
ARENZA**

**ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA**

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

Adinekoen zentroaren lanak, datorren urtean

Santa Kurtz kaleko lanei urtea bukatu aurretik ekingo diete, adinekoendako gizarte zentroari 2022an, eta osasun etxe berriaren proiektua eginda dago; horien berri eman dute Unai Elkoro alkateak eta Ion Albizu EH Bilduko bozeramaileak 'Harira' saioan

Mirari Altube ARETXABALETA

"Asmo handiko" agintaldia zehaztu zuen orain dela bi urte Udal Gobernuak, baina pandemiak asko atzeratu dituela proiektuak adierazi zuen Unai Elkoro alkateak martitzenean, *Harira* saioan. Proiektu estrategikoen artean dago komentuan egingo den adinekoendako gizarte zentroa, eta lehen fasean garatuko dituzte eguneko zentroa, Basotxo erretiratuen egoitza eta erabilera askotariko aretoa. "Irailean aurkeztu zuten exekuzio-proiektua, eta hori osatzeko eskatu dugu; behin betikoa asteotan aurkeztuko dute", zioen alkateak eta datorren urtean exekutatu dela hori gaineratu zuen. EH Bilduko bozeramaile Ion Albizu bat etorri zen esatean "beharrezko azpiegitura" dela: "Proiektu arkitektonikoa eginda dago, baina jarduera proiektuaren berririk ez dugu. Kaperari dagokionez, isolatzea proposatu genuen, eta badirudi lortuko dela". Elkorok erantzun zion eraikina osorik isolatzea aztertzen dabilzala.

Bigarren proiektu estrategikoa da Santa Kurtz kaleko hornidura eta saneamendu lanak. Hil bukaeran edo abendu hasieran hasiko dituztela eta garaiz jakinaraziko dutela zioen Elkorok.



Unai Elkoro alkatea eta Ion Albizu EH Bilduko bozeramaileak. MIRARI ALTUBE

Albizuk eskertu egin zuen bizi-lagunei ekarpenak egiteko aukera eman izana.

Osasun etxe berria, laster

Osasun etxe berria, oster, zentro soziosanitario "aitzindaria" izango dela aurreratu zuen alkateak. "Lortu dugu Osasun sailaren konpromisoa eraikin berean bat egin dezaten osasun zerbitzuek eta gizarte zerbitzuek; proiektu pilotua izango da. Asmoa da harrera bakarra izatea, espedienteak konpartitzea...". COVID osteko proiektua dela

ere gaineratu zuen, horrek sortutako beharrak kontuan hartuta diseinatutakoa. Eraikinaren lagapena eginda dago eta behin tramitatzeko kontuak bukatuta lizitatu egingo dute.

Albizuren esanetan erronka handia izango da: "Gazteria, enplegua, beste arlo batzuk zelan txertatu halako planteamendu baten aztertu beharko da". Klean galdetutako herritarrendako "albiste pozgarria" da, oraingo osasun etxea "zahartuta eta txiki geratuta" dagoelako eta "zerbitzu falta" atzematen dutelako.

Bainutokiak, eztabaidagai

Kanpoko bainutokiaren eztabaida mahai gainera ekartzeak merezi duela adierazi zuen Albizuk: "Hiri Antolamenduaren Plan Orokorraren baitan lantzea proposatu dugu, eta herritarrek izango dute hitza". Eta gaineratu zuen haiek egindako proposamenaren galdeketa herritar askok erantzun diola eta %70ek onztat eman duela.

Alkateak onartu zuen "aspaldiko demanda" dela, baina horren kokalekua zehaztea zaila. Lehen-tasuneko kontua ez dela esatean bat etorri ziren bi udal ordezkariak, eta bien bitartean ur-jolasendako gune bat egokitzea hobetsi zuten. "Kiroldegi aurreko zelaian zer egin ideia ezberdinak daude eta prozesu bat jarriko da martxan erabakitze-ko", argitu zuen Elkorok.

Nerabeekin lanketak

Nerabeekin egiten diharduten lanketak ere izan zituzten berbagai. Substantzien kontsumoa saihesteko UDAk eta San Juan de Dios ospitaleak abian jarritako proiektuari balioa eman zion alkateak: "Badabil emaitzak ematen, baina epe luzeko kontua da. Gainera, prebentzio proiektu bat da". Gaineratu zuen datorren urtean jarraipena izango duela horrek EKO proiektuarekin, eta gurasoen inplikazioa "ezinbestekoa" dela azpimarratu.

Indarkeria matxistaren protokoloa ere aipatu zuen Albizuk: "Haziak lantzea da garrantzitsua, eta sektore guztien inplikazioa ezinbestekoa".

Datorren urtera begira ere jarri ziren udal ordezkariak, eta 2022ko aurrekontua aste pare batean eginda egongo dela aurreratu zuen alkateak: "Ezuste-kozik ez da egongo".

Realaren partiduetara joateko autobusa Aretxabaletatik

Realaren etxeko partidua ikustera joateko autobusa Aretxabaletatik ere irtengo da datorren astetik aurrera. Izan ere, Ametzueta lagunarteak egindako eskaera onartu egin dute. Autobuserako txartelak Arlutz tabernan salduko dituzte, 2 euroren truke, eta horiek hartzeko azken eguna ostegun gaua izango da –Europa Ligakoak izan ezik; oraindik zehazteke–. Partidua baino bi ordu lehenago abiatuko da autobusa, Azbeko geltokitik.

Ametzueta taldea 2005ean eratu zuten, 149 bazkiderekin, eta Salva Rodriguez presidenteak adierazi du berriro jarri gura dutela martxan.

Frontenis txapelketa jokatzeko izen-emate epea zabalik dago

Bikote mistoen arteko frontenis txapelketa antolatu du Aretxabaleta kirol elkarteak, beste urte batez. Azaroko azken aste bukaeran, hilaren 27an eta 28an, jokatu dute, Iturigorri pilotalekuan, eta izena emateko epea zabalik dago hilaren 19a arte: udafrentenis@gmail.com. Prezioa 10 euro da, eta hori ordainduko da lehen partidua jokatzeko.

Finalera iritsiko diren bikoteek bertako produktuekin osatutako saskia jasoko dute saritzat.

Frontenisa gustuko duten kirolariak parte hartzera animatu ditu UDAk, baita txapelketari jarraipena egitera ere bi egun horietan.



ORTODONTZIA IKUSEZINA

DURANA HORTZ KLINIKAN BERRIKUNTZAREN ALDEKO APUSTUA EGITEN DUGU.

ZURE IRRIBARREA HOBETU AHAL IZANGO DUZU INORK IGARRI GABE.

DURANA KALEA 22 • ARETXABALETA • TEL.: 943 79 93 55



Eskoriatzako herriguneko taxi geltokiko seinalea telefono zenbaki orokorrarekin, Santa Ana auzoan. IMANOL BELOKI

Taxiaren proba pilotuaren azken fasea, eskaripekoa

Eskoriatzako elizateetako taxi partekatu pilotuaren azken proba-fasea martxan da, eta hiru aste iraungo du. Zenbait egokitzapen egin dituzte, erabiltzaileek hala eskatuta, eta aldaketa azpimarragarriena da zerbitzua eskaripekoa izango dela

Imanol Beloki ESKORIATZA

Taxi partekatu zerbitzuaren hirugarren eta azken fasea astelehenean hasi zen, eta hiru aste iraungo du. Berrikuntza nagusien artean, nabarmenena da eskarien arabera izango dela; hain zuzen, elizateetako bizilagunen eskaerari erantzunez egindako aldaketa da hori.

Irailen jarri zen martxan taxi zerbitzu partekatua, proba pilotua gisa. Orain arte, bi fase izan ditu: lehena irailaren 27an hasi zen eta bigarren urriaren 18tik orain artekoa izan da. Hala, hirugarren faseak honako ezauzgarri hauek izango ditu: "Astelehenetik egubakoitzera 07:30etik 20:00etara bitartean deitu ahaliko da taxia eskatzeko; betiere, zerbitzua erabili baino ordu erdi lehenago abisatuta. Taxia base-rietaraino joango da eta Eskoriatzako herrigunean eta Almen ikastolako geltokian geratzeko aukera izango da. Gellao elizatekoen kasuan, Aretxabaletan, Azben ere geratu ahal izango

du nahi duenak", adierazi du Leire San Vicentek, Eskoriatzako Elizateen Elkarteko bozeramaileak. Asteburuetan, berriz, egubakoitzetan eta zapatuetan 20:00etatik 00:00ak arte emango dute zerbitzua, baina, kasu horretan, hogeita lau ordu lehenago eskatu beharko da taxia, zerbitzua erabiltzeko.

Faseka hobetzen

Landa eremuetan bizi direnen beharretatik sortutako proiektu honek oinarri bat zuen hasieran. Auzotarrei egindako inkesta batetik marko bat diseinatu zuten, lan eta eskola orduerantz zientzia. Hasierako eskariek eta errealitatekoek ez zutela bat egiten ikusita,

ORDUTEGI BERRIAREKIN ETA ESKARIEN ARABERA EMANGO DA TAXI ZERBITZUA

moldaketak egin zituzten, zerbitzua ordutegi komertzialago batera pasata. Orain, berriz, eskaripekoaren aldeko hautua egin dute. "Landa eremuetan bizi direnek ez dute zerbitzu publikorik herrigunetara hurbiltzeko, eta nork bere autoaren edo hirugarren pertsona baten beharra izaten du. Ezinbestekoa da aldaketak egitea, eta hirugarren faseak fruituak emango dituelakoan gaude".

Aurrera begirakoak

Azaroaren 28ra arte iraungo du azken faseak, eta zerbitzuaren gainerako balarazio sendoa egingo dutela adierazi du San Vicentek: "Aurrera begira bideragarria, jasangarria eta funtzionala izan ahal den zerbitzu bat egin dezakegun planteatuko dugu, landa eremuetako mugikortasun inklusiboaren erronkak bermatzeko. Inperfektua izango da, baina, inplementatzen bada, erabilerak hobetzerakoan eramango gaitu".



Eskoriatzako areto futboleko senior mailako emakumezko taldea. ESKORIATZA KE

Hirugarren garaipenaren bila, goiko postuetan jarraitzeko

Eskoriatza areto futboleko senior mailako emakumezkoek denboraldi hasiera aparta izan dute

I.B. ESKORIATZA

Areto futboleko senior mailako emakumezkoen mailan, sailkapeneko lehenengo lau postuetan dauden taldeak puntuetara berdinduta daude, eta horien artean daude Eskoriatzako neskek. Izan ere, denboraldia bikain hasi dute, lehenengo bi partidua irabazita. Hori horrela, sailkapenean bigarren postuan daude, eta, hirugarren jardunaldia etxetik kanpora duten arren, hiru puntuen bila joango dira Anoeta taldearen aurka jokatzera. Partidua gaur, egubakoitza, jokatu dute, 20:30ean.

Jokalari gehiagoren beharra

"Guztira, hiru partidua jokatu ditugu: kopako bat, galdu egin genuena, eta irabazi ditugun ligako bi partidua. Joan den jardunaldian lazkaotarrei 6-3 irabazi genien, etxean, eta garaipen harekin motibatuta gaude taldekideak. Hala, bolada ona aprobeztatu nahi dugu, goiko postuetan jarraitzeko. Taldea iazko berbera da, ez dugu aldaketa handirik izan, baina, beti esaten dugun moduan, jokalaria gehiago izatea oso ondo etorriko litzaiguke", adierazi du Marta Garciak, taldeko kapitainak.

Alpargatak egiten ikasteko tailerra hilaren 20an

Eskoriatzako Udalak antolatuta, azaroaren 20an, alpagatak egiten ikasteko ikastaroa egingo dute kultura etxean, eta, 10:00etan hasita, Alpagatas Albes gasteiztarren eskutik jasoko dituzte argibideak izena ematen dutenek. Saioa gazteleraz eskainiko dute, eta interesdunek hamar euro ordaindu beharko dute, aldez aurretik Whatsapp bidez izena emanda, 650 49 51 66 telefono zenbakian. Plaza mugatuak dituen saioan, lanak egiteko erabiliko den materiala prezioaren barruan sartuta dago, eta, antolatzaileek adierazi dutenez, ikastaroa bukatutakoan parte-hartzaile bakoitzak alpagata pareta eramango du etxera.

Formakuntza-saio ugari antolatu dituzte Huhezín

KoopFabrika proiektu profesional eta ekimen sozioekonomikoak martxan jartzen laguntzeko programaren baitan, hainbat formakuntza-saio antolatu dituzte Huhezín, Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean, azarorako eta abendurako.

Azaroaren 22an, Beñat Irasuegi kooperatibismoaz arituko da, 11:30etik 13:00ak bitartean. Kooperatibismoaren marko teorikoa ezarriko du, eta, horretarako, kooperatibaren definizioa, historia, ezaugarriak eta beste hainbat elementu emango ditu. Formakuntza horretarako izen-ematea eta datozen formakuntzen berri izateko, koopfabrika.eus helbidera jo daiteke.

Artisautza-lanak ardatz, San Milixan eguneko azoka bete-beteta dator

Hogeita zazpigarren artisau azoka izango da domekan Gatzagan, eta hemeretzi postu inguru batuko dira plazan eta pilotalekuan. Feriaren barruan, artisauek eroango dituzten produktuez gain, herriko elkarte eta eragileek ere antolatu dituzte ekintzak

Imanol Beloki LEINTZ GATZAGA
Azaroaren 14an, hileko bigarren domekan, betiko moduan ospatuko dute San Milixan eguna Leintz Gatzagan, eta, urtero bezala, artisau feria izango dute goizetik eguerdira bitartean. Hogeita zazpigarren edizioa izango da, eta hemeretzi postu izango dira; batzuk herriko plazan eta beste batzuk, berriz, pilotaleku barruan jarriko dituzte.

Leku askotariko artisauak izango dira postuetan beraien produktuak saltzen eta erakusten, eta, horiez gain, gatzagarrek ere izango dute protagonismoa azokan, norbanako, elkarte eta eragile gisa. Arropagintza, bitxigintza, saskigintza, serigrafia, larrugintza eta panpinagintza postuak izango dira ikusgai, bai-

ta poltsak, erlojuak, gonak, turbanteak eta bestelakoak; kaikuak, garagardoa, gaztak eta abar egiten dituztenak ere bai.

"Urteroko egitarauari jarraituz antolatu dugu hogeita zazpigarren edizioa. Poztekoa da hainbeste artisau batzea San Milixan eguneko azokan. Hala ere, kanpotik etorriko diren artisauez gain, herrikoak ere arituko gara azoka girotzen, taloak eta gaztainak egiten eta sagar-zukua nola egiten den erakusten. Beraz, eguraldia,

**ARRASATETIK
GATZAGARAINOKO
BIDEA EGINGO DUTE
ZENBAIT LAGUNEK,
ARINEKETAN**


behintzat, lagun badugu, egun ederra izango dugu, seguru", adierazi du Beñat Agirreurretak, Leintz Gatzagako Udaleko Kultura zinegotziak.

Bertakoen presentzia

Aurten ere ez dute hutsik egingo Sorginak Emakume Elkarteko kideek, eta hain preziatuak izaten diren talo goxoak egiten arituko dira; eta Gurel Guraso Elkarteko kideek, bestalde, gaztaina erreak egingo dituzte. Gainera, herritar talde batek sagar-muhtioa egiteko prozesua erakutsiko du. Azken horretan, sagardoa nola egiten ere irakatsiko dute, nahiz eta prozesu osoa ez duten egingo bertan. Dozena erdi herritar arituko dira lan horretan, eta sagar-zukua probatzeko aukera izango da. Erakustaldian aterako duten



Sorginak Emakume Elkarteko kide batzuk taloak egiten, sanmilixanetako beste edizio batean. GOIENA



Musikaz girotutako bizikleta egongo da. GOIENAKIDE

Goienakideren bizikleta-postua

Goiena Komunikazio Taldearen Goienakide kanpaina dela-eta, sanmilixanetako azokan postu txiki bat ere izango da, bazkide berriak egiteko asmoz. Herritarren datuak jasotzeaz batera, Errigorako saski bat zozketatuko dute, gainera.

sagar-zuku hori sagardoa egiteko erabiliko dute gero.

Horrekin batera, hainbat sagar mota jarriko dituzte mahai batean, eta, hain zuzen, mota bakoitzaren ezaugarriak jakinaraziko dituzte.

Arrasatetik takarraran

San Milixan egunez, bost edo sei urtez egin duten moduan, taldetxo bat batuko da Arrasatetik Gatzagarainoko 14,5 kilometroko bidea egiteko, takarraran. Ibilbide osoa egin daiteke, edo zati bat soilik. Taldearen erritmoa errespetatu beharko da, eta emakumeen eta gizonezkoen parte-hartzea orekatua izaten saiatuko dira antolatzaiei

leak. Talde osoa batera joango da, eta helburua kirola egitea eta lagun artean ondo pasatzea dela adierazi dute. Hala, Arrasateko Errementari plazarik irtengo dira parte-hartzaileak, domekan, 10:30ean, eta 12:00etan Gorosarri landetxean ura eta fruta hartzeko geldialditxo egin ostean, Gatzagara iritsi eta postuak ikusi ostean bazkaria egingo dute Toki Eder elkartearen.

Horren baitan, Leintz Lotzen egitasmoko kideek ere jarriko dute postutxoia sanmilixanetako artisau azokan. Herrian zehar sakabanatuta dauden moduko loreontziak jarriko dituzte salgai, eta ateratako dirua Gatz Bidea konpontzeko erabiliko dute.

Sagar-zukua, azalpenekin



**JUANITO
BENGOA**
HERRITARRA

Ez da lehen aldia sagar-zukuaren prozesuaren erakustaldia egiten dugula. Ziur egon ez arren, esango nuke duela lau urte egin genuela, eta baita aspaldi beste behin ere. Sagarrak birrinduko ditugu, prentsan sartu, estutu, eta zukua aterako dugu, eta probatzeko emango dugu. Ateratako sagar-zukuarekin sagardoa egingo dugu aurrerago.

Artisau gisa estreinaldia



**MAITANE
AXPE**
ARTISAU

Euxki poltsak izenpean azoka baten egoten naizen lehenengo aldia izango da, domeka honetakoa. Guztira, 30 poltsa ezberdin izango ditugu bertan, eta, horiez gain, telak ere eramango ditugu. Hala, nahi duenak horiek aukeratu eta enkarguak egin ahalko ditu. Gainera, koleteroak eta ilerako zapiak ere izango ditugu salgai.

23. urteurrena kide berriekin ospatu dute

Pandemiak eraginda ia bi urtez gelditu egin da Anelkar elkartearen Osasun egoera hobetu dela ikusita, elkarteak berriro prozesuari berriekin dio. Eguazteneko batzar orokorrean jakinarazi zuen elkarteak hiru kide berri izango dituela etapa berri honetan

Maidar Arregi ANTZUOLA

1998ko azaroaren 10ean jaio zen Anelkar ofizialki, orain dela 23 urte. Hala ere, 1993az geroztik, Juan Antonio Lizarralde apaiza bazebilen Brasileraz laguntza ekonomikoa bideratzen bere lagun kuadrillari eta familiakoei esker. Guztira, 23 urtean, 483.635 euro batu ditu elkarteak, eta, Brasilgoaz gain, hainbat herrialde-tara bideratu dute laguntza: Kongo eta Senegalera; Saharara, Lesbosera... Udak, erakunde zein norbanakoen laguntza eskertu nahi izan dute, eta Kristina Baikaia eta Andres eta Bittor Arbulu anaia kooperanteen lana txalotu. "Oso eskertuta gaude urte hauetan guztietan elkarteak jaso duen laguntzagatik. Brasilen hasi, eta Kongo eta Senegalera ere zabaldu da elkartearen boluntario sarea. Gainera, laguntza zuzenean iritsi da proiektuetara gure kooperanteen bitartez", dio Jabi Etxaniz elkarreko kideak.

Hezkuntza eta auzolana ardatz

Argi dute hezkuntzaren eskutik etorriko dela aipatutako lurraldeen garapena. "Epe luze eta ertainera, hezkuntza izango da herrialde horien garapena bultzatzeko tresna. Hezkuntzaren bitartez etorriko da aldaketa", adierazi du Etxanizek. Kontxi Laskurain kideak, berriz, nabarmendu du Brasilen Lizarraldeko emakumeak ahalduzko sortutako kooperatiba. "Brasilera Juan Antoniok auzolanaren filosofia eraman zuen. Hainbat lan egin ziren eskolak eraikitzen, esaterako, baina azpimarratu nahi nuke emakumeen ahalduzkoen alde egindako lana. Juan Antoniok komunitate izaera berreskuratzeari garrantzi handia eman zion".

Eta Kongon eta Senegalen ere ildo berean hezkuntzan indartzea izan zuten gako. "2000. urtean, Kristina Senegalera joan zen.



Josune Martinez, Jabi Etxaniz eta Kontxi Laskurain. M.A.

2002an gurekin jarri zen harremanetan. Afrikak aurrera egin dezan garbi zeukan emakumeak heztearen ondorioa izango zela. Hainbat eskola egin dituzte, bai umeendako eta baita emakumeendako barnetegiak ere -17-25 urteko neskak-. Helburua da 15 urterekin ez daitezela ezkondu eta, ondorioz, hezkuntza alboratu. Arbulu anaiek ere lan ikaragarria egin dute azpiegitura eta eskola eraikitze lanak bideratzen".

Belaunaldi aldaketa

Elkarteko ordezkariak batzar orokorrean pozik agertu dira; izan ere, hiru boluntario berri izango ditu aurrerantzean. Hala, Juanita Zabalo, Mariano Urrutxi, Ana Loidi eta Kontxi Laskurain elkartetik irtengo dira; baina lanerako prest daude

BRASIL, KONGO, SENEGAL, LESBOS ETA SAHARARA BIDERATU DU LAGUNTZA ANELKARREK

Josune Iturbe, Lander Domingez eta Andoni Iparragirre. Etxanizek aitortu du aurpegi, ilusio eta lanerako grina duten gazteen beharra zeukala Anelkarrek. Josune Martinezek gogotsu hartu duela erreleboa azaldu du: "Taldearen aldaketa komeni zen. Kooperante moduan ibilita nago eta bizipen hori eduki izanak balio izan dit horrelako proiektuetan sinisteko, eta egiten duten lana beharrezkoa dela ohartzeko".

Lesbosera laguntza bonuak

Anelkarrek bat egin du Zaporeak elkartearen kanpainarekin. "Neguko arropa batzeko kanpainari laguntzeko, bonuen salmenta jarriko dugu martxan. Kanpaleketan ez dago arroparik, ezta ere oinetakorik. Hala, antzularrek laguntza bonuak erosteko aukera izango dute, eta batutako dirua Anelkarrek Zaporeak elkartearen kanpaina babesteko erabiliko du. Bonuak azaroaren 12an eta 13an 18:00etatik 19:00etara eta azaroaren 14an 12:30etik 13:30etara jarriko ditugu plazan".



GOIENA

Ibai Larrea, Lasarten garaile

Ibai Larreak Donostiako 65. Nazioarteko Krosa irabazi du, 20 urtez azpikoen mailan. "Gogorra izan da; lokatz askorik ez zegoen arren, lurra oso irregularra zegoen", dio Larreak. 5,6 kilometroko distantzia 18 minutu eta 6 segundoan egin du. Atapuercan asteburuan jokatu den Espainiako txapelketan izango da, Ekain anaiarekin.



IMANOL SORIANO

Herriko musikariak, txalo artean

Antzuolako Rock Egunaren bueltan, herriko hainbat musikari eta sortzaile igo ziren Zurrategiko oholtzara. Taula gainera igo zirenek prestatutako kantuak jo eta abestu zituzten eta ikus-entzule izan ziren herritarrek, berriz, musikarekin gozatu zuten. Goiko argazkian Irati Jauregi eta Irati Gardoki musikariak daude.

Aihertarrek eta antzuolarrek bat egingo dute bihar

11:00etan egingo dute antzuolarrek aihertarrei harrera. Ongietorria egin, eta hamaiketako hartuko dute, eta, segidan, Aiherrako eta Antzuolako dantzarien emanaldia izango da. 14:30ean, berriz, herri-bazkaria izango dute, eta, bazkalostean, Iratzar taldearekin erromeria. Eguraldiaren arabera erabakiko dute bazkaria non egin.

Gaztaina erre jana egingo dute herriko erretiratuek

Landatxopek antolatua, eta ia bi urteren ostean, gaztaina erre jana egingo dute herriko erretiratuek. Hilaren 20an, zapatua, egingo dute gaztaina festa, 18:30ean hasita, Landatxopen. Interesa dutenek izena eman beharko dute, aurrez, hilaren 16an edo 15ean -16:00etatik 18:00etara, bulegoan-. Prezioa 3 euro da.

ETXEBIZITZA ETA ERAIKUNTZA



Neurriko bizitokirako gakoak

Debagoieneko etxebizitza berrien eskaintza zabalena
Zaharberritze-lanetarako eta eraikuntzarako profesionalen bermea
Etxebizitzen dekoraziorako eta barne diseinurako joera berrienak
Sukalde eta egongela atsegina eta erakargarrienak
Etxebizitza jasangarrietarako zaharberritze egokienak

Uribesalgoko etxeetan, erosotasun guzti-guztiak

Hedatze bidean dagoen Arrasateko San Andres auzoan 49 etxebizitzako blokea ari dira eraikitzen. Azken urtean jende askok erakutsi du bertan bizi izateko interesa, Bibai agentziak zehaztu duenez; izan ere, 34 etxe saldu dituzte dagoeneko

San Andres auzoan aurten eraikitzen hasi diren blokea 2024 hasierarako prest egongo dela aurreikusten dute. Bibai agentziak darama urbanizazio proiektu horren gidaritza; 49 etxebizitzatik hamabost falta zaizkie saltzeko. Horietatik zortzi etxe libreak dira, eta zazpi tasatuak. Azken horiek, beraz, babes ofizialeko etxebizitzak dira, eta, kasu horretan, Eusko Jaurlaritzaren Etxebide programak zehazten dituen baldintzak bete behar dituzte bezero potentzialak: 2019ko irabaziak 15.000 eta 50.000 euro artekoak izatea. Ekainaren 25era arte ireki zuten aukera-



Uribesalgoko urbanizazioak izango duen itxuraren maketa. BIBAI ETXEBIZITZA AGENTZIA

keta zerrenda sortzeko zozketan parte hartzeko epea, eta, gaur-gaurkoz, zerrendako azken onartuak falta dira zehazteko. Behin hori finkatuta, baldintzak betetzen dituen edonork erosi ahal du salgai geratzen den etxebizitza tasaturen bat.

Argiak eta malguak

Uribesalgon eskaintzen diren gehienak hiru logelakoak dira. Distribuzio egokia dute denek, lauki formakoa: logela onak, eta sala zein sukalde handiak. Eta hasierako planoak aldatu nahi dituztenek, sukaldearen eta komunaren kokapena salbu, ez dute inongo eragozpenik izango etxearen banaketa euren gustura egiteko.

Eraikinaren fatxada harri zurikoa izango da, erakargarria oso. Isolamendu termiko eta akustiko zoragarria izango dute, 2010etik hona egiten diren etxeen modukoa. Hala, barrua berehala berotuko da neguan kalefakzioa jartzean, eta energia gutxi kontsumitzeko aukera izango da. Udan, berriz, freskotxo egotea ahalbidetuko dute, isolamendu termikoagatik.

Terraza txikienak ere sei pertsonarentzat mahai bat jartzeko moduko espazioa eskainiko du. Eraikinaren inguruan espazio asko egongo denez, argitasun handiko etxeak izango dira, eta, alde horretatik, terrazak oso erabilgarriak izango dira.

Aurten, mugimendu handia

Etxe horiengatik galdetu duten bezeroen %60-70 inguru 40 urteen bueltan dauden bikote edo pertsona gazteak dira, gurasoak izan edo ez. Izan ere, pandemiak jende askori ikusarazi dio etxe on bat izatea zeinen garrantzitsua den, pausoa ematera ausartzen ez zirenek errazago erabaki baitute nahiago dutela zona lauan bizi izatea, baita terraza eta garajea edukitzea ere.

San Andres auzoa, gainera, hedatzen joango da pixkanaka. Uribesalgon ostean egindako hurrengo promozioa, Polmetasa fabrika zaharra zegoen tokian eraikiko dena, erdigunetik are urrunago dago. Horrek esan nahi du denbora igaro ahala etxebizitza blokea Kontzezino kaletik gertuago egongo dela; hau da, auzoaren ia erdialdean.

Fase berria salgai. Infoma zaitetz!

Terrazadun 2 logelako etxebizitzak **140.000 €-tik aurrera** (BEZ gabe)



BERGARA · www.lorentxoko.com

lorentxoko
P25 · bizigune berria

Jarraitu

GEk Bergarako etxebizitza-multzo honetan duela 15 urtetik gora duen esperientziari

Bergaran dagoeneko finkatuta dagoen bizitegi-espazio bati, kalitatezko etxebizitzekin eta eremu ireki eta arnasgarri batean.

Ondo egindako etxeei, betiko kalitate bikainekin eta zure etxebizitza bakarra egiteko pertsonalizazio-aukerek.

Jarraitu proiektu BIZI bati, ENTZUTEN dakien erreferentziako sustatzailen eskutik.

Zuk bakarrik jarraitu. Ni arduratuko naiz zu zoriontsu egiteaz. **"Lorentxoko"**

GE grupo eibar
inmobiliario
www.grupoeibar.com

GRUPO EIBAR-EN BULEGOA:
Ernal 1 · 20570 BERGARA.

comercial@grupoeibar.com

943 31 66 11
650 44 21 59



Promozio berriko atiko baten infografia, sukalde eta egongela irekiarekin. GRUPO EIBAR

Lorentxokon hirugarren atartea eraikiko dute

Ernai kalean irekitako promozioa arrakastatsua izan da Grupo Eibar agentziarentzat, 21. eta 23. atarrietako ia etxebizitza guztiak saldu baitituzte. Hori ikusita, 25. atartea egitea erabaki dute, eta bertako 24 etxeetarako jabeen bila dabiltza dagoeneko

Grupo Eibar higiezinaren agentziak beste promozio bat ireki du Bergarako Ernai kalean, 25. ataria eraikita. Izan ere, 21. zenbakiko etxe bakarra geratzen zaie saltzeko, eta jada jendea bizi da blokean. 23. atartea 2023ko bigarren sei hilabeterako izango dute prest, eta hor ere etxebizitza bat izan ezik beste guztiak salduak dituzte. Hortaz, bloke berriko 24 etxebizitzak komertzializatzen hasi dira jadanik, eta esan beharra dago 23. atartekoak baino handiagoak izango direla, oro har.

Gozatu kanpoaldeaz

Besteak bezala, pisu hauek ere bi eta hiru logelakoak izango dira, norberaren gustura moldatzeko modukoak. Bergarako arautegia aintzat hartzea izango da baldintza bakarra; hartara, hiru logelakoek bi komun izan beharko dituzte, nahitaez, eta logelek zabalera minimo bat bete beharko dute. Beraz, gelak handitu nahi dituztenek aukera polita izango dute.

Balkoi eta terraza zabalak eskaintzen dituzte, gainera. Atikoak 40 metro karratutik gorako te-

rrazekin datoz, eta azpiko pisuetako balkoirik txikiena sei metro karratukoa izango da.

Pisuen erosketak garajeak eta sotoak aukeratzea ere ahalbidetzen du. Lau motatako apartamentuak artean egin daitezke hautua: garaje individualen artean, irekiak edota itxiak daude, eta garaje bikoitzetan, berdin.

Atsedan hartzeko egokiak

Lorentxokoko ezaugarrietako bat da gune eguzkitsuan dagoela, adineko pertsonentzako eguneko zentroaren ondo-ondoa. Azken urteetan urbanizazio prozesu handia egin du Grupo Eibarrek Ernai kalean; ondorioz, seme-alabak dituzten familia gazteentzat bizitoki egokia bilakatu da auzunea. Toki lasaia eta familiarra da, haurrek jolasteko parkea ere eskaintzen duena. Dagoeneko bertan bizi direnek Grupo Eibar agentziarekin kontrastatu dute energia gutxi kontsumitzen duten etxeak direla, eta, logela gehienek baserri aldera jotzen dutenez, ez dagoela lo egiteko inolako arazorik.

URIBESALGOKO OBRA HASITA!!

28 etxe libre eta 21 etxe tasatu (San Andres - ARRASATE)

AZKEN 8 ETXE LIBREAK SALGAI!!

EZ GALDU AUKERA!

SUSTATZAILEA

SALTZAILEA

BIBAI

943 253 821

info@inmobibai.com

www.inmobibai.com



Antzuolako eta Aretxabaletako etxebizitzak, hurrenez hurren. ORTUZAL PROMOTOREA

Etxebizitza modernoak eta erosoak, eskura

Antzuolako Errotaberri kalean eta Aretxabaletako Iturrizar plazan etxebizitza moderno, eroso eta irisgarriak ditu abian Ortuzal Promociones SL eraikuntza enpresak. Bi urteko epean etxebizitzak amaituta eta jabeen eskura izatea da euren asmoa

Ortuzal Promociones SL enpresak eskaintza zabala dauka Aretxabaletan eta Antzuolan. Etxe erosoak eta irisgarriak dira. Modernoak eta berri-berriak, sukaldea jantzita daramatenak. Bezeroak, gainera, bere gustura etxe barruko egitura, planoaren gainean, aldatzeko aukera ere badauka.

Garajeak eskuratzeko aukera bi herrietako promozioetan dago. Honen guztiaren gaineko informazioa eskuratzeko, herritarrek Ortuzal Promociones SLra deitu dezakete, 943-76 11 18 telefono zenbakira, edo mezua idatzi dezakete info@grupootuibar.com helbide elektronikora.

Informazio zehatzagoa eta etxebizitzaren planoak ikusgai daude www.grupootuibar.com webgunean.

Errotaberriko etxebizitzak

Antzuolako Errotaberrikoak 80 metro karratu inguruko eta hiru logelako hamaika etxebizitza eroso eta moderno dira. Aero-termia sistema dute; hau da, ur beroa eta berokuntza sistema gasik gabe edukitzeko aukera eskaintzen duen sistema dara-

mate txertatuta. Zoru bero-emaila instalazioa ere badaukate. Horretaz gain, igogailua trastelekuetaraino iristen da.

Iturrizar plazako etxebizitzak

Aretxabaletako Iturrizar plazan bi eta hiru logelako etxebizitzak ditugu. Hauek ere zoru bero-emaila instalazioa daramate. Balkoiak eta terrazak hoberen dituzte gaur egun herritarrek, eta eskaera hori indartu egin da pandemiaren ondorioz. Horregatik, Aretxabaletako etxebizitzek, Antzuolakoen moduan, balkoi ederra dute.

Promozio honekin, CVL lantokia zegoen gunean hamar urtean egin den eraldaketari amaiera eman nahi izan zaio. Etxebizitzaren eraikuntza lanak gelditu egon ostean, berriro ekin diogu Aretxabaletako promozio lanei eta bi urteko epean amaituta izatea da helburua.

Antzuolako Errotaberriko etxebizitzak eraikitze lanak ere aurrera doaz martxa onean, eta horiek ere bi urteko epean amaituta egotea da Ortuzal Promociones SLren asmoa.



**ZURE ETXE BERRIA NATURAN
PREZIORIK ONENEAN**

PREZIO TASATUKO
ETXEBIZITZAK

175.300€

-TIK AURRERA*

*zergak ez daude barne

Garajea eta trastelekuak barne



3 logelako etxebizitzak
Etxabeak ere badaude terrazak
dituztenak



Terraza zabalak



Kalitatezko materialak



Ziurtagiri energetiko altua

KONSTRUKZIOA:



900 907 407

www.kurtzebarribizilekua.eus



Terraza eder eta argitsuak duten etxebizitzak

Kokapen ezin hobea duen Aretxabaletako Txarapea auzoan zortzi atariko etxebizitza eraikuntza martxa onean doa. Promozioa ia amaitzean dagoen arren, oraindik ere herritarrek aukera zabala dute etxebizitza dotore eta modernoa eskuratzeko

Kurtzebarri Bizilekua eraikuntza enpresak 64 etxebizitzako promozioa du abian Aretxabaletako Txarapea auzoan. Oso aurreratuta dagoen obra da, eta etxabeak eta lehen eta bigarren solairuak geratzen dira salgai. Etxebizitza oso argitsuak eta eguzkitsuak dira, Leintz bailara bista ezin hobea dutenak. Guztiek hiru logela eta balkoi ederra dituzte.

Terraza bikainak

Txarapeako etxebizitzaren balkoiek 15 eta 16 metro koadro bitarteko azalera dute; horietako etxabe batek, aldiz, 180-190 metro koadroko terraza aparta ere badau-



Etxebizitza pilotuaren terraza eta bista ederrak. KURTZEBARRI BIZILEKUA

ka. Guztiak eguzkitsuak, eta oso argitsuak. Amenabar eraikuntza enpresak egindako kalitatezko etxebizitza blokeak dira.

Tasatuak

Etxebizitza hauek tasatuak dira, eta 175.000 eta 200.000 euro arteko prezioa dute –zerga prezioetik aparte ordaindu behar da–. Denek, ordea, garajea eta trastelekua prezioaren barnean daukate.

Diseinu zaindua

Zortzi ataritan banatutako bi blokeko etxebizitzak dira, eta diseinua oso zaindua eta modernoa dela azaldu dute Kurtzebarri Bizilekua enpresako arduradunek. Aretxabaletako toki onenetako batean daude, eta minutu gutxira herriko erdigu-nearekin konektatuta, gainera.

DISEINU ZAINDUA ETA MODERNOA DUTEN ETA BI BLOKETAN BANATUTA DAUDEN ZORTZI ATARI DIRA

Zerbitzuak eta konexioak

Gasteiztik 32 kilometrora daude etxebizitzak, eta oso ondo komunikatuta Debagoieneko eta Leintz bailarako zerbitzu nagusi eta garrantzitsuenekin: hezkuntza eta aisialdi zerbitzuak, administratiboak, eta abar.

Pisu pilotua

Erakusteko gertu duten etxebizitza pilotua bisita dezakete herritarrek, konpromisorik gabe. Hiru logelako eta terrazadun etxebizitza da erakusgai dagoena, eta informazio gehiago eskuratzeko Aretxabaletako Ilargi plazako 6. zenbakian dagoen bulegora gerturatu daiteke. Bestalde, 914-84 28 74 telefono zenbakira deituta ere informazio gehiago eskuratzeko aukera dago.

ETXEBIZITZA TASATUAK DIRA; GARAJEA ETA TRASTELEKUA PREZIO BARRUAN DAUDE

efizientzia energetikoa

ETXEBIZITZA BERRIZTU BEHAR AL DUZU?

Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe

www.ekitermik.com
ekitermik@ekitermik.com

688 870 219

Bezeroari laguntzeko eta aholkatzeko daude

Zaharberritzeak dira Biark arkitekto taldearen lanaren oinarria. Baserriak eraberritzen dituzte, oso-osorik; baita etxebizitzak ere, barrualdetik; eta fatxadak eta teilatuak egiten dituzte, besteak beste.

Eraberritzeak egiteko bezeroari gehien komeni zaiona hartzen dute kontuan. "Lehenengo, ikusi behar da erreforma integrala den, edo puntuala. Gauza asko hartzen dira kontuan: efizientzia energetikoa, kostua, dirulaguntzak, estetika... Jabeari planteatzen

diogu gure ikuspuntutik zer den gehien komeni zaiona, bai ekonomikoki eta baita itxura aldetik ere", azaldu du Biark taldeko Asier Hormaeche.

Birgaitzeak dira arkitekto taldeak egiten duen lanaren beste oinarria. "Gaur egun gehien egiten diren birgaitzeak (errehabilitazioak) efizientzia energetikoa eta irisgarritasuna hobetzekoak izaten dira; adibidez, fatxadak eta teilatuak isolatu, galdarak eta leihoak aldatu, eguzki-panelak ipini,

balkoiak handitu, igogailua ipini...", dio Hormaeche.

Laguntzen berri eman

Birgaitzeak egiteko dauden dirulaguntzen berri ere ematen dute arkitektura estudioan. "Komunitatearekin batera ikusten dugu dauden aukerak. Batzuetan, hobe izaten da eraikinaren errehabilitazio integrala egitea, igogailua edo isolatzailea bakarrik jartzea baino", dio. Aurten go irailean, Eusko Jaurlaritzak dirulaguntza berriak onartu zituen: igogailuak jartzeko, adi-



Arrasaten etxebizitza batzuei egindako zaharberritzea. BIARK ESTUDIOA

bidez, 30.000 euroko laguntzak daude, atariko; eta etxe blokea isolatzeko, 50.000 eurora artekoak –baldintzak betez gero–.

Arkitekto estudio moduan euren helburua bezeroaren nahia asetzea dela dio Hormaeche:

"Obra amaitzen denean, bezeroaren zoriontasuna eta oniritzia lortzea". Profesional moduan bezeroari laguntzeko eta aholkatzeko daudela gehitu du, bezeroak nahi duena erraz eta modu egokian lortzeko.

Ondare arkitektonikoan espezializatutako taldea

Zetabi arkitektura bulegoan eraginkortasun energetiko, irisgarritasun eta IT lanak egiten dituzte. Azken urteetan, baina, ondare arkitektonikoan espezializatu dira, eta hainbat lan egin dituzte arlo horretan.

Ondare dekretuek babesten dutenari balioa ematea da helburu nagusia, Euskal Kultura osatzen duten ondasunak kontserbatu, zaindu, haien garrantzia azpimarratu eta hedatzeko. "Ondarearen katalogazioa, azterketa, babesa eta berreskuratzea aurreko faseak edo



Egurrezko teilatua eta egitura. ZETABI

helburu instrumentalak beste-rik ez da, gizarteak –oraingoa eta etorkizuneko– ondare horiez materialki eta intelektualki haien balio guztian goza dezan bermatzeko. Eredu honetako esku-hartzeak interes publiko unibertsala duten ondare-multzo eta elementuen gizarteratzea bultzatzea izan behar dute helburu", azaldu du Zetabi taldeko Xabier Zabala arkitektoak.

Proposamen arkitektonikoak lantzeaz gain, erakunde publikoek eskaintzen dituzten dirulaguntza programak aztertzen dituzte, eta finantzaketaren planifikazioa lantzen laguntzen dutela dio Zabalak. Proiektuon berezitasuna da laborategi eta ikerketa zentro espezializatu-ekin elkarlanean jarduten dutela, lantaldeak koordinatuz.

Lan esanguratsuenak

Zetabik hainbat lan esanguratsu egin ditu. Bergaran, adibidez, San Pedro parrokiaren eraberritzea, Irizar jauregia kultura erabilerara birgaitzea, Komenio 4ko eraikinaren birgaitzea eta Errege Mintegiaren birgaitzea. Bailaratik kanpo, Donostiako Artzain Onaren katedraleko dorrearen eraberritzea egin zuten 2017 eta 2020 artean; eta, egun, Artzain Onaren katedralako fatxada, beiratea eta teilatua eraberritzen dihardute. Aurten, esaterako, Zumaiako Carmelitas Descalzas komentua kulturagune birgaitzeko proiektua hasi dute.

Gipuzkoako Aldundiarekin eta Eusko Jaurlaritzarekin euskal ondare kulturala birgaitzeko hainbat proiektu ditu esku artean Zetabi arkitektura taldeak.

URBIETA | Barne diseinua

ETXEEN ERABERRITZE
INTEGRALAK
PROIEKTUAK
DEKORAZIOA
GREMIOEN
KOORDINAZIOA



IBARGARAI 11 - 13, BEHEA • BERGARA • TEL.: 943 76 14 50 • URBIETAINTERIORISMO@HOTMAIL.COM • @ f

Kalebarren



ANTZUOLAKO ETXEBIZITZEN HURRENGO SUSTAPENA

Hurrengo promozioa 3 gelako 11 etxebizitza



Antzuolako
erdigunean



3 logelako
etxebizitzak



Zure
etxebizitza
pertsonalizatu



Sukalde
ekipatua



Berokuntza eta ur
beroia.
AEROTERMIA
bidez. Zoru
bero-emaile instalazioa
etxebizitza osoan, zoru
zeramikoarekin.

Iturrizar plaza



Informazioa

www.grupoortuibar.com

Tel.: 943 761 118



**ERALDAKETARAKO
AZKEN FASEA**
Informa zaitez



Aretxabaletako
erdigunean



2-3 logelako
etxebizitzak



Zure etxebizitza
pertsonalizatu



Sukalde
ekipatua



Zoru
bero-emaile
instalazioa
etxebizitza
osoan, zoru
zeramikoarekin

Sukalde eta egongela bateratuak, espaziotsuak

Etxean gustura egotearen garrantzia areagotu egin du itxialdiak, eta, horregatik, jendeak etxea bere behar berrietara egokitu behar izan du. Zenbait zaharberritzeen beharra ikusi dute, eta etxe berria erosteko asmoz daudenek ere hainbat ezaugarri zehatz kontuan hartzen dituzte. Nabarmenena da bezeroek espazio handiak eta argitasun handikoak nahi dituztela. Horrekin bat egiten du Bergarako Urbieta barne diseinuko Ainhoa Urbieta dekoratzaileak.



Sukalde eta egongela bateratu irekia eta argitsua. URBIETA BARNE DISEINUA

Espazio zabala, irekia

Espazio irekiei esker, argia hobeto aprobetxatzeaz gain, aireztapenean ere eragiten du, hobera. Hori dela-eta, espazio irekiak modan jarri dira koronabirusaren krisiarekin. "Egongela eta sukalde bateratuen aldeko apustua egiten du jende askok. Hala ere, sukalde egongelan behar bezala integratzeko, alderdi asko hartu behar dira kontuan. Garrantzitsuenetako bat da sukalde egongelako dekorazio estilo eta kolore gama bera jarraitzea. Askok eskatzen dizkigute eremu bateratuak, hala, eremu espaziotsuagoak lortzeko. Sukalde eta egongela elkartuta manpara-banatzailer batekin, adibidez. Espazio zabalak, lurzoru naturalak, ate zuriak, paper pintatu goxoak... Eta energia aurrezteko sistema berotzaile

gisa lurzoru erradiatzailea ere asko jartzen dugu, bertan denbora gehiago pasatzeko gogoia ematen duten horietakoak. Betiere, egurrarekin edo paper goxo batekin konbinatuta, harmonia lortzeko".

Erosoa eta funtzionala

"Azken tendentziek kolore ilunagoak dakartzate. Sukaldeko altzairu zein sukalde-gaineko ilunak, bainugeletako manpara edo iturri beltzak. Pixkanaka ari gara eraberritzeetan tendentzia hauek ezartzen; dena den, oraindik ere kolore argiak dira protagonista. Handitasuna eta argitasuna lortzeko helburuarekin; sarritan, egur kolore natural zuriarekin konbinatuta. Funtsezkoena da estantzia erosoak, funtzionalak eta goxoak lortzea".

Egurra, kolore zuria eta argitasuna, hori da joera

Garrantzitsua da azken tendentziak zeintzuk diren jakitea. Etengabe doaz aldatzen, eta etxe berria erosi edo obra bat egin nahi duenak beti hartzen du kontuan merkaturan dagoena. Hala ere, badaude zenbait joera beti modan daudenak eta asko erabiltzen direnak. Bergarako Ugarte Aroztegiko barne dekoratzaile Rosa Muradasek azaldu duenez, "egongela lasaia, naturala, minimalista... nahi dutenek tonu argiko egurrarekin konbinatutako pareta zuriak nahi izaten dituzte, hauek kolore

neutroekin nahastuz, eta elementu dekoratiboak ondo aukeratuz. Hala, soiltasuna hausnartzen da, eta bolumen sententzia handitu, hormetako altuera ere gehituz".

Altzarien indarra

Egongelaren kolore neutro eta zuria apurtzeko altzariak garrantzi handia dutela dio Muradasek, eta gela osatzeko elementuetan belusa asko erabiltzen dela dio; sofetan, batez ere. "Sofa tapizatuak eta berde kolorekoak, gorri-more edo

terrakota kolorekoak izan daitezkeenak ohikoak dira halako egongeletan. Horiek hautatzen dituztenek, esaterako, berde-gorrdio koloreko sofa bat jartzen dutenak, animalien marrazkiak dituen kuxinak jarri ditzakete... Horrekin batera, altzari kurbatuen alde egiten dutenak ere badirela dio, forma geometrikoekin, eta kristalezko lanpara edo erloju handi bat erabiltzea ere ohikoa da. Geroz eta gehiago azaltzen dira elementu industrialak ere: altzairua eta burdina".



Kolore zuriko egongela, tonu neutroekin eta egurrarekin. UGARTE AROZTEGIA

Zuria eta neutroa nahastuta

Zuriaren neutraltasuna beste tonu batzuekin konbinatuz eskandinaviar estiloa lor daitekeela azpimarratzen du Muradasek: "Halako egongelak modan daude. Zoruan, paretan edo

sabaian tonu neutroak -zuria, beixa eta grisa- erabiltzen dira eta motibo naturalak dituzten altzariak osatzen dituzte askok. Altzari horiek, esate baterako, ehun artisauek edo banbua izan daitezke.



BIARK STUDIO

arkitektoak

- Ziurtagiri energetikoak
- I.T.E.(eraikinen ikuskapen teknikoak)
- Teilatuak eta fatxadak
- Igogailuak eta irisgarritasuna
- Etxebizitza eta lokalen erreformak
- Baserriak eta txaletak
- Etab...

www.biark.net



Usaetxe plaza 1 behea, Arrasate - Tel.: 943 79 80 33

biark.arkitektoak@gmail.com



Bezeroak buruhausterik izan ez dezan, Ekitermik enpresan *Giltzak eskura* zerbitzua eskaintzen dute. MARIA ZIEGLER

Zaharberritze lan integralak, erosotasunez

Asko dira etxebizitza berritzeko edo itxuraldatzeko erabakia hartu duten debagoiendarrak. Ekitermik kooperatiba arrasatearrak urteak daramatza sektorean. Iaz, lan askorekin ibili ziren; eta aurten, "izugarri" egin dute gora enkarguek

Eskaerak askotarikoak dira. "Izaten dira edo zaharra den etxebizitza bat erosi ostean goitik beherako eraberritze integrala egiteko edo urteetan bizileku izan den horri buelta bat emateko", azaldu du Ekitermik kooperatibako kide eta arkitekto tekniko Andoni Altubek. Lehenengoen kasuan, ia-ia dena bota eta berriz egitea da. Bigarrenengoen kasuan, batez ere, distribuzioa egokitzea, instalazio elektrikoa eta beste berritzea eta abar... "Zoru erradiatzailea asko ari gara jartzen. Konfort aldetik aukera oso ona da, eta asko eskatzen digute", esan du.

Prozesu osoaz arduratzen dira Ekitermik enpresan, eta *Giltza eskura* zerbitzua eskaintzen dute. "Obraren inguruko lan guztiak hartzen ditugu gure ardurapean: proiektua egitea, aholkularitza, diseinua, beharrezkoak diren baimenak tramitatzea, dirulaguntzak eskatzea... Bezeroak ez du ezertaz arduratu behar, eta gu gara solaskide bakarra".

Gremioen koordinazioa egiten dute, bezeroari buruhausteak saihesteko. "Bezeroak zer behar

duen esan behar digu, eta horik aurrera gu arduratzen gara. Ez du zertan beste inorekin egon; gu gara solaskide bakarra. Horrek, bezeroari gauzak errazteaz gainera, lanen exekuzio denbora murriztea ahalbidetzen du, gehienetan". Lanak hasieratik bukaerara enpresa berak kudeatzeak abantaila asko ditu, eta etxebizitza sartzeko gertu ematen diote bezeroari. Obra integraletan; izan ere, gauza asko hartu behar izaten dira kontuan, eta askotariko profesionalak sartzen dira ekuazioan. Lanak luzatu eta konplikatu egiten dira nahi baino gehiago.

Baserriak eta lokalak ere bai

Askotariko eraberritze proiektuak egiten dituzte Ekitermik kooperatiban, eta urteetako esperientzia dute. Baserriak eta lokalak ere egokitzen edo zaharberritzen dituztela azaldu du Altubek.

Arrasateko Garaia Berrikuntza Gunean dago Ekitermik kooperatiba, eta bailara osoko lantalde batek osatzen du: arkitektoek, teknikariek eta ingeniariak, hain zuzen.



A
B
C
D



efizientzia energetikoa
irrisgarritasuna
h ir i g i n t z a
ondare historikoa
dirulaguntzak





zetabi
arkitektura

zetabi@zetabi.eu 943765309

UGARTE
AROTEGIA - ALTZARIAK

Proiektuak · Koltxoia
Horma-Armairuak
Altzariak neurria
Ateak · Eskailerak ·
Leihoak · Tarimak ·
Egur lanak

ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea
Tel.: 943 03 46 30

AROTEGIA
San Juan 1a
Tel.: 943 76 54 91

BERGARA
aroztegia@ugarte-aroztegia.com




Epea luzatuta, ahalik eta alegazio gehien batu nahi

Larramendiko plantaren proiektuari alegazioak jartzeko epea azaroaren 26ra arte luzatu du Jaurlaritzak, eta herritarrek 4.000 alegazio entregatu dituzte dagoeneko; Udal Gobernuak asteon esan du gaiari "jarraipen zorrotza" egin diotela hasieratik

Jokin Bereziartua BERGARA

Larramendiko paper-fabriken hondakinak kudeatzeko plantaren proiektuak albiste izaten jarraitzen du astez aste. Asteleheneko Eusko Jaurlaritzaren bulletin ofizialean argitaratu zenez, beste hamabost egun baliadun egongo dira proiektuari alegazioak jartzeko. Hortaz, beste luzapen edo aldaketarik ezean, azaroaren 26ra arteko epea izango dute Udalak eta bizilagunek alegazioak Jaurlaritzara bideratzeko.

Udal Gobernuaren alegazioa

Orain arteko prozeduraren eta datozen urratsen berri emateko "beharra" zegoela ondorioztatuta, bilera irekia deitu zuen Udal Gobernuak eguazten iluntzerako. 70 bat herritar elkartu ziren, Seminarixoa, eta ordu eta erdi inguruko saioan xehetasun tekniko eta legal ugari eman zituzten Gorka Artola alkateak, Hirigintza teknikari Letizia Alvarezek eta Ingurumen teknikari Nerea Egiak. "Jarduera zein izango den argitzea ezinbestekoa da; prozesua hasi zenetik hiru aldiz aldatu da planta horretan egitekoa den jardueraren izendapena", gogoratu zuen Artolak.

Gainera, Udal Gobernuak landu duen alegazio ereduarekin aurkeztu zuten; 55 orriko idatzia da, eta azaroaren 16an egitekoa den Udaleko Lurralde batzordean aurkeztuko dute idatzia, onartua izan dadin. Tramite hori gainditu ostean egingo dute publiko alegazio eredu hori, herritarrek ere eskura izan dezaten sinatu eta hala nahi duen herritarrek bere aldetik aurkezteko.

"Jarraipen zorrotza" hasieratik

Eguazteneko bilera irekian herritarrek ere hartu zuten hitza. Hainbat gogoeta egin zituzten. Esaterako, esan zuten "bi hila-beteko epe luzea" pasatu dela Udalak auzotarrekin egindako



Udal Gobernuak deitutako bilera irekian 70 bat herritar batu ziren. LARRAITZ ZEBERIO

UDAL GOBERNUA ERE ALEGAZIO EREDU BAT ARI DA LANTZEN, HERRITARREN ESKURA UZTEKO

bileraren eta herri mailan deitutako bileraren artean, proiektuaren kontrako herri plataforma antolatu beharko litzatekeela...

San Juan auzoko bizilagun Paul Aznalek GOIENARI adierazi zion, besteak beste, batzar irekia egin izana eskerrak emateko modukoa dela: "Espero dugu aurrerantzean ere halako gehiago antolatzea, denok ere gauzak argi izan ditzagun. Jakin dezala Udalak, dena den, guk hor jarraituko dugula laguntzeko bai, baina, baita ere, pauso bat alde batera ematen badute hori bide egokia ez dela gogorarazteko". Horren harira, Udaleko ordezkarien azpimarratu zuten hasieratik egin zaiola jarraipen zorrotza gaiari, eta halako prozedura administratiboetan zaindu beharreko denborak eta konfidentzialtasuna errespetatu direla. Era berean,

aditza eman zuten proiektuari "jarraipen zorrotza" egingo diotela enpresa sustatzaileak prozedura hutsetik hasita ere hirigintza baimena ematera "behartuta" egongo balira –ezin da ahaztu Larramendiko industria Jaurlaritzaren Sprilur erakundearena dela–.

Bestalde, "erraustegiaren aurkako" herri plataformaren proposamena mahai gainean dutela gaineratu zuen Aznalek. "Ez dakigu herri plataforma izena hartuko duen edo ez. Gaur-gaurkoz [Whatsappeko], difusio talde bat sortu dugu, ez dugulako nahi inor alboratuta sentitzea. Denok batera joatea nahi dugu, horrela indar gehiago izango dugulako".

Era berean, herritarrek informatzen eta sinadurak batzen jarraituko dutela berretsi zuen Aznalek bileraren ostean. "4.000 alegazio ditugu entregatuta, eta zapatuan Deban izango gara sinadura gehiago batzen. Guk ere baditugu adituak, eta haiekin jarraituko dugu lanean. Argi geratzea nahi dugu ez dugula erraustegirik nahi ez Bergaran ez beste inon. Horregatik, jakin dezatela Zumarragan ere laguntzeko prest gaudela".

EAJk "bizikidetzaren alde" lan egiteko konpromisoa berretsi du

EH Bilduren Udal Gobernuari eskatu dio "bizikidetzaren bidean konpromisoak" har ditzala

J.B. BERGARA

Memoriaren Eguna da azaroaren 10a EAEn, eta egun seinalatu hori baliatu zuen Bergarako EAJk bakearen alde lan egiten zuten lana eskertzeko: "Bakearen alde egin zuten pertsona, elkarte eta mugimenduei esker ematea da helburua. Egotea txarrenetan ere, bizikidetzaren demokratikoa eta giza eskubideen eta bakearen defentsan oinarritutako gizartea eraikitzen eta defendatzen ahalegindu diren pertsonen konpromisoa zibiko nabarmendu nahi da".

Eskaera Udal Gobernuari

EH Bilduri eskaera bat egin diote jeltzaleek: "Eskatu nahi diegu gure herrian *azaltzen* diren mezu iraingarriak ezabatze eta gaitzesteko konpromisoa har dezala. Demokrazian, bizikidetzaren eta normaltasun politikoa lortzeko bidean ez dira onargarriak. Mota honetako jokabideek ez dute lekurik gaur egungo gizartean, eta bidea oztopatu besterik ez dute egiten. Horregatik, bizikidetzaren bidean konpromisoak har ditzan eskatzen diegu EH Bilduri".

Agorrosin: txandarik ez da eskatu behar igerilekurako

Eusko Jaurlaritzaren urriaren 6ko dekretua oinarri hartuta, aldaketa batzuk jarri ditu Udalak indarrean Agorrosinen, azarorako. Bi neurri nagusi hartu dituzte: batetik, igerilekuaren erabilera normaltasunera bueltatu da; hau da, ez da beharrezkoa izango aurretik txanda hartzea. Eta, bestetik, pisu libreekin lan egiteko gela eta areto txirrin-

dularitza egiteko gela banatu egin dituzte, pandemia aurreko egoerara bueltatu dira. Era berean, aditza eman dute pisu libretearako gelan eta fitness gelan egin behar diren konponetze eta material aldaketak atzeratzen ari direla, mundu mailako horniketa arazoek eraginda.

Bestalde, azaroaren 6an ireki zuten Labegarietako kiroldegiko rodomoia. Pol-Pol taldeko eskalatzaileak, "kostata" heldu dela gogoratzeaz harago, "pozik" daude emaitzarekin.

2020ko Aratusteetatik jotzeke, bueltan da orkestra sinfonikoa

Bihar, azaroak 13, joko dute, frontoian, doan (20:30); askotariko bost pieza, itzulera ospatzeko bat barne

J.B. BERGARA

2020ko Aratusteetatik jo barik egon ostean, bihar itzuliko da Bergarako orkestra sinfonikoa; udal pilotalekuan joko dute, 20:30ean, eta sarrera doakoa da. "Saiatu gara jo izan ezin dugun kontzertu bakoitza ordezkatzeko, sareratu ditugun bideoekin bada ere; orkestrara lotuta jarraitzeko era bakarra izan da. Oraindik entseatzeko baldintzak ez dira onenak, eta protokoloa berrikusten ari gara Jaurlaritzarekin. Ez gara [biharko] kontzertura onenean heltzen, baina garrantzi-

tsuena da martxan hasi garela!", adierazi du orkestrako zuzendari Enrike Txurrukak.

Bost pieza joko dituzte bihar kontzertuan: Franz Schubert-en *Rosamunde* (1823); Pyotr Ilyich Tchaikovsky-ren *Andante Cantabile* (1871); Astor Piazzolla-ren *Oblivion* (1984) –bakarlari lanetan Jesus Mari Arriaran arituko da–, Izaro Andresen *Errefuxiatuarena* (2017) –bakarlaria, Eider Elorza–; eta, azkenik, Txurrukak berak konfinamendu sasoian konposatutako *Elkartze doina* (2020).

Hegazkin taldeko Alayn Carazo eta Iosu Isaias *Isuo* zuzenean, Oreretako Indiorock jaialdian, abuztuan. INDIOROCK

Jaialdi berezia, kolektibo berezi baten elkarlanetik

Mukuru kolektiboaren jaialdian, zazpi artista edo musika taldek joko dute bihar kartzela zaharrean; tartean, Urretxu eta Bergara arteko Hegazkin eta Klak!son antzularrak. 18:00etatik 21:00etara lau talde igoko dira eta 22:30etik 01:00etara, hiru

Jokin Bereziartua BERGARA

Mukuru jaia hartuko du kartzela zaharrak bihar, 18:00etan eta 22:30ean. Kartela ikusi besterik ez dago jaialdi berezia datorrela ondorioztatzeko; izan ere, Mukuru kolektiboko zazpi artista edo musikari etorriko dira bihar Bergarara.

Hasiera baten, bederatzi ziren kartela osatzen zuten taldeak, baina Txost! eta Kaskezur ezin go dira egon, eta zazpi izango dira artista gonbidatuak. Arratsaldeko saioan, 18:00etatik 21:00etara, Paxkal, Hatxe, Nigara Zuek eta Birkít –Mukuru kolektiboan sartu den azken taldea da eta debuta egingo du bihar—. Gaueko emanaldian,

22:30etik 01:00etara, Muskulo, Klak!son eta Hegazkin izango dira protagonista; Urretxu eta Bergara arteko Hegazkin taldeak, gainera, irudiak nahasten aditua den Jokin Guridi *Guridi* bergararra izango dute ondoan. Saio bakoitzerako sarrera bost euro ordaindu beharko da, kartzela zaharrean bertan, emanaldiak hasi baino ordubete lehenago.

Jaialdiaren hirugarren aldia

Mukuru jaiaren hirugarren edizioa izango da zapatukoa, pandemia hasi zenetik egiten den lehena. "Aurreko biak Urretxun eta Oreretan egin ziren, baina ez ditugu sekula horrenbeste talde elkartu. Jaialdiko nobeda-

de nagusiak bi izango dira, bereziki: batetik, Birkít taldeak debuta egingo duela eta, bestetik, Jokin Guridiren proiektioak egongo direla. Biharko kartelaren balio handiena aniztasuna da, askotariko estiloez gozatze-ko aukera egongo da eta. Mukuru osatzen dugunok elkarlana eta elkartasuna ditugu oinarri eta hori jaialdian islatzen ere saiatuko gara", adierazi du Hegazkin taldeko Alayn Carazo Iturriaga bergararrak.

Hegazkin: azkenak oholztan

Carazo Iturriaga eta Iosu Isaias Villanueva *Isuo* batzen dituen Hegazkin taldea taulara igotzen azkena izango da bihar: "Lagu-

na dugun Jokin Guridiren proiektioekin jantziko dugu gure emanaldia. Izan ere, Guridi ari da gure kantuei irudiak jartzen bideoklipetarako, eta zapatukoa horren guztiaren erakustaldi bat izango da, inprobisaziorako tarte bat ere utzita. Gure elkarlanaren zuzeneko isla bat izango da, nolabait esatearren".

Ekainaren 3an eman zuten lehen kontzertua, Seminarixoa, eta, ordutik emanaldi askorik egin ez badituzte ere, "oso gustura" daude orain arteko *hegaldiekin*: "Kontzertuak ari gara lotzen eta diskoak harrera ona izan du, oro har. Bideoklipak ere harrera ona izan dute eta Guridiren irudiek gure abestiak indartzen dituzte", dio Carazok. *Sintetizadoreen abioiaren* hurrengo geltokia Oñatiko Antixena gaztetxea izango da, azaroaren 28an, eta Durangoko Azokan Mukuru eta Balio Dute kolektiboek partekatuko duten standean diskoa salgai jarriko dutela aurreratu dute.

"Gertu, mukuru gara"

Baina zer da Mukuru kolektiboa? *Mukuru.eus* webgunean azaltzen dutenez, "lagun talde bat" dira: "Musikak zeharkatzen gaituen lagun talde bat gara. 2018an hasi ginen elkartzen, hemengo eszenan izateko, egiteko, partekatze-ko eta bizitzeko era komun bilatu. Ez gara handi, baina gertu, mukuru gara". Musika munduan gaur egun dagoen lehiakortasunaren gainetik, elkarlana eta taldeen arteko babesa lehenesten dute Mukuru kolektiboko taldeek. Hegazkinez gain, badago Deba-goieneko beste ordezkariarik; izan ere, Antzuolako Klak!son ere Mukuruko parte da; euren laugarren diskoarekin lanean buru-belarri ari direla, lehen aldiz joko dute bihar Bergaran.

Artola (EH Bildu) eta Alonso (PSE-EE) izango dira 'Harira'-n

Harira saioan egongo dira, datorren martitzenean, hilak 16, Gorka Artola alkatea (EH Bildu) eta Alberto Alonso (PSE-EE), 21:00etan eta 23:00etan. EAJko bozeramaile Iruñe Galarragak ere jaso du gonbidapena, baina Bergarako EAJk uko egin dio saioan parte hartzeari. Bergaran pil-pilean dauden askotariko gaiak jorratuko dituzte; tartean, azken asteotan zeresan handia eman duen Larramendiko plan-ta. Herritarrek ere izango dute gaiak edo galderak proposatzeko aukera. Posta elektronikoz: *berriak@goiena.eus*; eta Whatsapp edo Telegram bidez: 688 69 00 07. Galderak bidaltzeko azken eguna azaroaren 14a da, domeka.

Auzolan digitalerako deia bihar goizerako Aroztegi aretoan

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza (ZTB) jardunaldien barruan, grabaketa maratonia antolatu dute biharko, Aroztegin, 10:00etatik 14:00etara. 20 urtez gorako 100 lagun bildu nahi dituzte, hamabost minutuz euskarazko esaldi laburrak irakurtzeko. Ekimenaren helburua da, beraz, ahalik eta euskarazko ahots gehien grabatzea, makinek euskarazko ahots bidezko aginduak uler ditzaten. Izen-emate epea atzo bukatu bazen ere, interesa duen edonori zabalik egongo dira bihar goizean Aroztegi-ateak. Udalak eta Laboratoriumek software librearen aldeko *Librezale.eus* plataformaren laguntza jasoko dute.

HARIRA BERGARA

GOIENA TELEBISTA, 'HARIRA'

GORKA ARTOLA (ALKATEA) ETA ALBERTO ALONSO (PSE-EE)
AZAROAREN 16AN, MARTITZENEAN, 21:00ETAN ETA 23:00ETAN

BIDALI ZUK ERE GALDERA:

berriak@goiena.eus 688 69 00 07

EPEMUGA: AZAROAK 14



DESKARGATU
GOIENA
APP BERRIA!

goiena
Zu hemen zaude.



Industriaren etorkizunera begira, gela adimenduak

Lanbide Heziketa eta eraldaketa digitalaren bueltan Donostian antolatutako kongresutik bi bisita izan dira asteon Miguel Altunan, estatutik zein nazioartetik; eraldaketa digitala ikasgelara ekarri dutela diote: "EAEn errealitate da beste leku askotan ideia bat dena"

Jokin Bereziartua BERGARA

Lanbide Heziketa gizatasunaren, teknologiaren eta adimenaren aroaren aurrean izenburupean Donostian egindako kongresutik bisita bi izan dituzte asteon Miguel Altunan. Martitzenean, hamazazpi autonomia erkidego-tako Lanbide Heziketako zuzendarien eta Espainiako Lanbide Heziketako idazkari orokor Clara Sanzen bisita izan zuten eta eguaztenean, berriz, nazioarteko 40 bat ordezkari izan ziren Bergaran.

Bisitariak Miguel Altuna ikastetxe adimenduna bisitatu eta bertako metodologia ezagutu zuten. "EAEn sekulako jauzia eman dugu eraldaketa digitalari lotuta. Nolabait esateko, errealitate bihurtu dugu beste leku askotan oraindik ideia edo kontzeptu dena. Guk eraldaketa digitala ikasgelara ekarri dugu, oso teknologia aurreratuarekin; helburuetako bat da, nola ez, beste erkidegoei ere erakustea", dio Lanbide Heziketako sailburuordetzako teknologia eta ikas-kuntza aurreratueta zuzendari Rikardo Lamadriderik.

Interaktiboa eta murgiltzailea

Eraikin berriarekin, eraldaketa digitalean urratsak egiten lehenak izan ziren Miguel Altunan;



Gela interaktiboak interes handia piztu zuen, gela inmertsiboarekin batera. O. ELORZA

espazio zabalak, ikasleak talde-tan lana egiteko modua erronka kolaboratiboak oinarri hartuta eta baliabide digitalen laguntza. Eraldaketa digitalerako egindako urratsen, bertako metodologiaren eta baliabideen lekuko izan ziren bisitariak; ikasle bakoitzak tailerrera duen txartel digitala ezagutu zuten, besteak beste. "Txundituta" geratu ziren gela berrienekin ere: "Gela bat interaktiboa da, errealitate birtualerako gailuekin erabiltzen dena. Beste gela, aldiz, murgiltzailea da, inmertsiboa;

hiru proiektorekin gelaren buelta osoa irudiz jantzi eta mahai digitalekin egiten da lan, beste ikastetxe eta bereziki enpresa batzuekin birtualki konektatzeko", adierazi du Miguel Altunako zuzendari Joxu Aranak.

EAEko ikastetxe adimendunetako bakarra da, gaur-gaurkoz, Miguel Altuna, eta Jaurlaritzaren nahia da datozen urteetan 70 ikastetxe adimendun izatea. Helburua da, betiere, industria-ko eraldaketari lotuta sortu diren eta sortuko diren behar berriei "neurriko erantzuna" ematea.

Danobatgroup-en Euskararen Eguneko lehiaketa martxan da

'Euskaraz izango gara' leloa aukeratu dute aurten, eta azaroaren 30era arte dago bertan parte hartzeko

J.B. BERGARA

Euskaraz izango gara leloa aukeratu du aurten Danobatgroup kooperatiba taldeak Euskararen Nazioarteko Egunaren bueltan antolatu ohi duen lehiaketarako. Lehiaketa kooperatiba taldeak lantegiak dituen herrietako herritarrei zuzenduta dago, eta, beraz, bergararrek parte hartu ahalko dute. Nola? Ondorengo webgunean sartu beharra dago: <https://info.danobatgroup.com/euskara/lehiaketa-2021.html>. Erantzunak Danobatgroupeko webgunean aurkitu ahalko dira.

Horretaz gain, industria arloan euskararen erabilera laguntzen duen hitz tekniko osatutako hiztegia eskura dago: <https://www.danobatgroup.com/eu/euskara>. Hiztegiaren hitz berrien bat sartzeko proposamena egiteko aukera ere ematen du.

Azaroaren 30era arte dago lehiaketan parte hartzeko, eta abenduaren 3an erantzun zuzena eman dutenen artean honako sari hau zozketatuko dute: gauda eta gosari ederra bi pertsonarentzat Bizkaiko zuhaitz-etxe baten, hain zuzen.

OHARRAK

Zabalotegiko bi txokoak zabalik aste osoan

Txiki Txokoa eta nagusien gunea zabalik daude astelehenetik domekara, 17:00etatik 20:00etara. Orduetegi barruan itxita egonez gero, Udaltzaingora edo 092 telefono zenbakira deitu behar da.

UNED: ikasturte berriaren irekiera ekitaldia

Udaletxeko areto nagusian izango da, gaur, 19:00etan. Gorka Artola alkatea, Jaurlaritzako Unibertsitate eta Ikerketa sailburuorde Adolfo Morais, Bide Azpiegituretako diputatu Aintzane Oiarbide, UNEDeko errektoreorde Jesus de Andres eta Bergarako UNEDeko zuzendari Iñaki Esparza egongo dira.

Adahigi elkartearen hitzaldia Irizar jauregian

Arreta gabezia, nahasmena edota hiperaktibitatea duten seme-alabei begira antolatuta; hilaren 18an izango da, 18:00etan.

Odol emaileen elkarte: Gabonetako loteria

Aurten ezin dute loteria saldu: "Ez dago ordainketak kudeatzeko konpromisoa duen erakunderik gure zenbakia saritua izanez gero; horregatik, ezin dugu loteria saldu. 56.389 zenbakia erreserbatu dugu eta Donostiako autobus geltokiko El Anden 28. administrazioan dago". Argibide gehiago: 747 42 99 20 (Dulce).

DANOBATGROUP

euskaraz izango gara

HARTU PARTE DANOBATGROUP-EN EUSKARAREN EGUNEKO LEHIAKETAN!

Sartu lehiaketako estekan, erantzun galdera eta irabazi gau berezi bat 2 lagunentzat Bizkaiko zuhaitz-etxe batean.

info.danobatgroup.com/euskara/lehiaketa-2021.html

Parte hartzeko azken eguna:

2021eko **00:00**

AZAROAK 30

DANOBATGROUP / DANOBAT / GOIMEK / GOITI / IDEKO / LATZ / SORALUCE

"Planetarendako arrisku handiena gizakia da"

JON MARKAIDE OSORO ASTRONOMIA ETA ASTROFISIKAKO KATEDRADUNA
Bizitza osoa eman du unibertsoko fenomenoak aztertzen, eta heldu zaio erretiroa hartzeko unea. Elgetarrak, ordea, ez du erabateko erretiroa aurreikusten

L. Zeberio / M. Arregi ELGETA

Jaioterrian egin ditu egun batzuk Olaegiko seme Jon Markaide Osorok (Elgeta, 1950). Oparoa izan den ibilbide zientifikoa egin du elgetarrak, eta iritsi zaio erretiroa hartzeko garaia. Gel-dirik, ordea, ez dago. Kaleratutako azken dibulgazio liburuen berri eman digu.

Zer moduz Elgetan egindako egunak?

Lehengusuak eta familia ikus-teko aprobeztatu ditut. Erretiroa hartuta nago, eta, oraindik ikerketa lanetan banabil ere, erritmoa lasaia da. Madrilgo Zientzia Akademiatik eskatutako lantxoak egiten ditut orain. *Últimas noticias del universo* dibulgazio liburua argitaratu zenuen ekainean.

Bigarren edizioa dugu esku artean. Ez dira gai errazak, baina denendako idazten saiatu naiz, jendeak unibertsoko kontuen inguruan gehiago jakin dezan. Gauzak modu ahalik eta ulerkorragoan azaltzeko ahalegina egin dut.

Unibertsoa; hain urrun eta hain gertu...

Andromeda galaxia da gure galaxiatik gertuen dagoena. Bien arteko distantzia bi milioi argi urtekoa da. Unibertsoko neurriak zeintzuk diren kontuan hartuta, ez da ezer. Hala ere, asko da.



Jon Markaide Osoro, Elgetako Andra Mari plazan, astelehenean. MAIDER ARREGI

"POZIK NAGO, NIK FORMATUTAKO IKASLEAK GAUZA HANDIAK EGITEN ARI DIRELAKO ORAIN"

Zenbat galaxia daude identifikatuta unibertsoan?

Ez da hori nire espezialitatea, baina, kontu honen inguruan beste ikertzaile batzuek egindako estimazioen arabera, 200.000 milioi galaxia egon daitezkeela

uste da. Eta galaxia bakoitzean beste hainbeste izar daude.

Bizitza, orduan, egon daiteke?

Bai, egon daiteke, baina oso zaila da hori baieztatzea, unibertsoaren denbora eta espazio neurriak zeintzuk diren ikusita. Eta haiekin komunikazioa edukitzeko aukerarik ere ez dago, oraingo; distantziak handiegiak dira. Pentsa jartzen garela bi lagun errepide bateko alde banatan. Nik zure izena esan eta zuk entzun orduko lau urte pasatzen dira. Eta zuk erantzuten baduzu, nik beste lau urteren

buruan jasoko nuke erantzuna. Gauzak horrela, ezin da komunikaziorik egon.

Zulo beltzak aztertzen aritu zara.

Orain beteko dira bi urte M87 galaxian dagoen zulo beltz bati egindako argazkia lortu zela. Berez, ez da argazki bat, baizik eta ordenagailu batek egindako irudia radio data sistemarekin. Hala eta guztiz ere, lehenengo da eta lorpen oso garrantzitsua da. Zulo beltzak galaxia guztietan daude. Ezagutzen ditugun kasu guztietan zulo beltz bat dago galaxia guztien erdian. Gero, txikiagoak diren zulo beltzak daude.

Meteoritoak arriskutsuak dira?

Bai eta ez. NASAk badauka meteoritoen zaintzarako programa berezia, eta egon izan dira oraingo baino arriskualdi handiagoak. Argi eduki, dena den, meteorito handi bat guregana badator, ezer gutxi egin ahal izango dugula. Dena den, nire ustez, handiagoak dira gizakia- ren jarduerak eragiten dituzten arriskuak. Gizakia bera da Lurra planetarendako arriskurik handiena.

Ilargira ere joan daiteke orain turismo bidaian...

Argi dago diru asko duenak egin dezakeela bisita espaziora. Turismoa da, eta eskaintza horrek aurrera egingo du. Aberatsen kontua da. Ikerlariendako aurrerapenik ez dago hor.

Gustura hartu duzu erretiroa?

Ez nago guztiz erretiratuta, baina erritmoa nabarmen jaitsi dut, bai. 40 bat urte egin ditut hara eta hona; Ameriketara, Alemanian, bost urte Granadan, eta gero, 29 urte katedratiko Valentzian. Pozik nago, erreleboa badudalako. Nire ikasleak gauza handiak egiten ari dira, eta hori jakiteak asko betetzen nau.

Zortzi orduko hika ikastaroa Juan Martin Elexpururen eskutik

Udalak antolatuta, hika ikastaroa egiteko aukera izango da azaroaren 23tik abenduaren 2ra. Bina orduko lau saio izan dira, eta, orain dela lau urte bezala, Juan Martin Elexpuruk gidatuko ditu. Saiok martitzenetan eta eguenetan izango dira, 18:30etik 20:30era. Ikastaro egunak hilaren 23a, 25a eta 30a eta abenduaren 2a izango dira.

Izen-emate epea zabalik dago, hilaren 19ra arte. Udaletxean, liburutegian zein *elgetanberbetan@elgeta.eus* helbidean eman dezakete izena interesatuek. Ikastaroa doan da, eta, amaitutakoan, hikalagunen mintza-praktika taldea osatzeko aukera egongo da.

Mendi irteera eta baba-jana antolatu ditu Kantsatzekek

"Berririo martxan gara!", azaldu dute mendi taldetik. Hilaren 21erako iragarri dute pandemia osteko lehen irteera, eta baba-janarekin osatuko dute, gainera. "Atxarte inguruan ibiliko gara oraingoan, Astxikira igoko gara, baina, Alluitzera igotzeko aukera ere izango da, jendearen nahierara". Bazkalordurako itzuli nahi dute Elgetara, Ozkarbi elkartean egitekoa den bazkariaraz gozatzeko. Irteera doan izango da, eta bazkariaren prezioa bazkalostean kontuak aterata argituko da. Izena emateko azken eguna, batez ere, bazkarirako, hilaren 18a da. *kantsatzeke@gmail.com* helbidera idaztea da bideetako bat.

Potx eta Lotx pailazoen ikuskizuna domekan Espaloian

Osabak enkargu bat egingo die Potxi eta Lotxi: kalera joan behar dute, beren bizilaguna izandako Izaskunen etxera. Bidean jende askorekin egingo dute topo: kaleko musikaria, alkatea, TAO zerbitzuko udaltzaina... *Kaleak bizirik* ikuskizuna 17:30ean hasiko da. Sarrerak salgai daude Julianen kioskoan eta udal webguneko loturan.

ttop

Irakurri, ukitu, ikusi, entzun.



DOAN
Euskarazko aldizkari digitala, deskargatu astero zure mugikor edo tabletan

ASTE HONETAN

Ainhoa Luz

Euskaltzaleen Topaguneko kultura teknikaria

"Ez dugu nahi memoria historikoa mahai azpian geratzea"



Ikerne Altube –Kultura teknikaria–, Xabier Igartua –zinegotzia– eta Lourdes Lozano –Beinke enpresako ordezkaria–, aurkezpenean. U.I

Turismo eredua azaltzen duen plana jaso dute

2021 eta 2025 arteko plana da eta 89 ekintza zehaztu dituzte turismo eredu "jasangarri eta inklusiboa" helburu duen plan estrategiko honetan; besteak beste, Sancti Spiritus eraikinari balioa ematea eta 'Oñati' turismo-marka definitzea

Oihana Elortza OÑATI

Oñatiko turismo eredua "jasangarria eta inklusiboa" izatea gura dute, eta hori garatzea da Oñatiko Turismo Plan Estrategikoak jasotzen duen helburua. Sektore horren herriko diagnostia egin zuen Udalak Beinke enpresarekin batera joan den urtean, eta emaitzak aztertuta aurkeztu dute plana asteen.

Epe motzekoak, zehaztuta

Guztira, 89 ekintza zehatz jaso dituzte, eta lehentasunaren arabera sailkatu 2021-25 urteen artean gauzatzeko. Bost ardatzetan daude banatuta –gobernantza, gune turistikoa, produktua, marketina eta kode etikoa–, eta dagoeneko zehaztu dituzte epe laburrean egingo diren batzuk: Sancti Spiritus eraikinari balioa ematea eta beste baliabide batzuekin lotzea, Oñati turismo-marka definitu eta industria informazioa lantzea edota Turismo Helmuga Adimentsuaren ziurtagiria lortzea Debagoienean.

Turismo Helmuga Adimentsua ziurtagiria Espainian zehaztu den metodologia baten aplikazioan datza, eta, Donostian, Gasteizen eta Bilbon landu ondoren, eskualdeetan txertatu gura dute. Debagoiena da probatuko duen lehen bailara.

Xabier Igartua zinegotziak eta Ikerne Altube Turismo teknikariak azaldu dutenez, helmuga turistiko "garrantzitsua" da Oñati: "Benetako helmuga turistikoa jasangarria da Euskal Herriko turismoaren panoraman. Bere kultura eta natura ondareari balioa eman dio, eta bisi-tarien profil jakin bat erakartzeko gai diren produktu turistikoko bereizgarri eta bereziak

TURISMO HELMUGA ADIMENTSUA IZENENKO ZIURTAGIRIA ERE LORTU GURA DUTE DEBAGOIENEAN

sortu ditu: arduratsuak eta konprometituak".

Aitzindari barneko herrietan

Turismoa ez da kontu berria Oñatin, eta, martitzenean egin dako prentsaurrekoan azaldu dutenez, gaur arte hainbat gauza lortu dira "kalitatezko turismoa" indartzeko. Hala ere, oraindik badago zer hobetu, eta horri helduko dio planak. Debagoieneko eragileen arteko elkarlana, Arantzazu eta beste hainbat eragilerekin koordinazioa, herriko eta eskualdeko mugikortasun eta irisgarritasuna, turismo profesionalari erantzutea edota ideia berriak garatzea dira planean jasotako erronketako batzuk. Bost oinarri izango ditu plan berri honek: irisgarritasuna, gobernantza, teknologia, berrikuntza eta iraunkortasuna.

Barrualdeko herrien artean, Oñati aitzindaria da Turismoaren Plan Estrategiko bat egiten. Gaur egunera arte egindako lanaren jarraipena izango da.

Jabetze Eskolako espazio egonkorra osatu guran dabilta

Dinamizatzaile batekin gai baten inguruan hausnartzeko espazioa izango da, hilea behin, bi orduz

O.E. OÑATI

Gai baten inguruan bildu eta horren inguruan hitz egitea, esperientziak trukatzeko, zalan-tzak elkarbanatzea eta kezke berba egiteko gune izan gura du Jabetze Eskolako espazio egonkorra. Eta talde hori osatu guran dabilta. Hilean behin elkartuko litzateke, bi orduz, Euskaldun Berria gelan, eta taldean, beste emakume batzuekin batera, gaiari buruz norberak esateko duena elkarbanatzea da asmoa. Aurtengo gaia, esaterako, amatasuna da, amata-

sunaz epairik gabe hausnartzeko eta eztabaidatzeko gunea izango da aurtengo txoko hori. Datorren astean, hilak 17, bilduko da talde hori lehenengoz, Paloma Gutierrezek gidatuta, eta izena emateko aukera zabalik dago oraindik. Udaleko Berdintasun Sailean egin daiteke.

Jabetze Eskolaren barruan antolatutako diren ikastaroen artean, oraingoz, aurrera atera dira irakurketa taldea, zoru pelbikoa indartzeko eta Noka lantzeko. Ez, ordea, gazteei zuzendutako oholtza gainean ahaldunduzkoa.

Bukatu dira erosketa bonu kanpainako txartel guztiak

Herriko komertzio edo ostatuetan erabiltzeko Udalak atera dituen bonuak amaitu dira, eta ez dituzte gehiago aterako. Bonuak erabiltzeko epea abenduaren 3an agortuko da. Udalak emandako datuaren arabera, 2.340 herritarrek erosi dituzte kontsumo bonu horiek, 2.744 bonu saldu dira, eta 181.762 euroko salmentak ahalbidetu.

Azaroaren 20ko manifestaziorako deia egin du EH Bilduk

Aske eta berdinen Euskal Herria lortu arte lelopean manifestazioa egingo du EH Bilduk azaroaren 20an Bilbon. Ekimen hori "beste fase baten hasiera" izatea gura du koalizioak. Oñatitik autobusa antolatuta dute hara joateko. 15:30ean aterako da, MUREn Enpresagintza Fakultateko apartamentuetatik. Txartela hamar euro da, langabeek, bost.



NIRE USTEZ

ELIAS ZUMALDE

Etengabeko hotza

Udarak utzi dio lekua udazkenari eta izango dugu ate joka negua. Berotik epelera eta epelitik hotzerako bidaia. Azken egunotan "a ze hotza egiten dauen!" modukoak han eta hemen entzun ditugu. Konbertsaziorako gaia da hotzarena. Baina badakigu zer den hotza? Zapaturako Zaporeak-ek egindako deialdiak ekarri nau hausnarketa honetara. Lesbosko errefuxiatuen sabelak berotzen saiatzen den lagun talde honek, oraingoz, oinetakoak eskatu ditu: zapatak eta zapatillak –arropa bilketa ere egin izan du–. Bigarren eskuko oinetakoak egoera latzetatik, jasangaitzetatik, ihesi Europara, baita gurera ere, etorri nahi duten errefuxiatuentzat. Horren aurrean, pasatu ez daitezen itxidurak eta hormak eraikitzen dihardugu europarrok. Ez dugu gure beroa partekatu nahi. Eskaeran egin duten nabardurak ere badu berea: takoidun zapatarik ez, hango egoera ez da hirietan paseatzeko eta. Saia gaitezen hotza benetan ezagutzen –pairatzen– dutenen egoera arintzen, jakinda neguko oinetakoak behar-beharrezko dituztela, baina benetan behar dutena dela gure beroa eta geroa eurekin partekatzea, urte osoa ez dadin negu gorria izan.

Irteeren proposamen berria dute Pake Lekun

Bi hilean behin egun osoko irteerak egingo dituzte, goizean kulturari lotutako espazioak bisitatuz eta naturari lotutakoak, aire zabalean, arratsaldean. Azaroaren 23an dute lehenengoa, eta San Telmo museoa eta Txillida Leku ezagutuko dituzte

Oihana Elortza OÑATI

Kultura eta natura uztartuko dituzten irteerak antolatzen hasi dira Pake Leku erretiratu elkarte kideak. Egitasmo berria da, eta pandemia ondoren Oñatiko bazkideei eskaintza zabalteko eta bazkide ez direnei elkartera gerturatzeko asmotan egituratu dute.

Zerrenda luzea

Ideia da bi hilean behin irteera bat egitea, abuztuan izan ezik. Egund osoko plana litzateke, autobusean. Proposamena da goiza kultura arloko leku itxi baten igaro, eta, bazkaldu ondoren, arratsaldea naturaz gozatzea aire zabalean. Adibidez, museoa bisitatzea da aukeretako bat, bisita gidatuak egitea lehenetsiz, eta naturako planak, berriz, geologian, botanikan, arkitekturen, artean edota historian adierazgarriak diren lekuak bisitatzea.

Euskal Herri osoko bazterrak sartu dituzte hasierako proposamenen zerrendan, gehiago sartzeko aukerarekin. Lehenengoa, esaterako, Gipuzkoan bertan egingo dute. Goizean, San Telmo museoa bisitatuko dute, Donostian, eta arratsaldean Txillida Leku, Hernanin. Azaroaren 23an izango da irteera hori, baina ize-



Pake Leku erretiratuen elkarteko zuzendaritza taldeko kideak. M.G.

na aurrez eman behar da, Pake Leku elkartearen bertan. Hamabost euro izango da eta bazkaria bakoitzak berea ordainduko du. Gernikako Batzarretxea, Zumaia-ko flyscha, Gesaltza Añana, Zugarramurdiko Sorginen Museoa, Peru Harri eta Sarako leizeak dira, esaterako, proposamenen zerrendan jasota dauden batzuk. Irteera bakoitzaren amaieran, baina, hurrengoa nola antolatu galdetuko diete parte-hartzaileei, eta boto gehien lortzen dituen bidaia prestatzen hasiko dira zuzendaritza taldekoak.

Kultura Astea, laster

Proposamen berri hau ere herriko erretiratu guztiendako dela gogorazi dute Pake Lekuko kideak, eta bazkide egitera animatu, horietan ez ezik beste ekintza askotan parte hartu ahal izango dutelako. Izan ere, ekintzak antolatzeko gogoz dago zuzendaritza taldea, berriak zein ohikoak. Esate baterako, laster dator Kultura Astea, eta Jose Antonio Azpiatzuren hitzaldia, gaztaina erre jana eta bingo berezia egingo dituzte, besteak beste.

Arkuak dituen irudia aukeratu dute Santa Ana antzokirako

Irudia eta izena jarri dizkiote 35 urte hauetan askotariko ekitaldiak egiteko erabiltzen den espazioari

O.E. OÑATI

Duela 35 urtetik hona erabiltzen da Santa Ana antzokia kultura ekitaldiak egiteko, baina orain arte ez du izenik izan agerian, eta horixe jartzea erabaki du Udaleko Kultura Sailak.

Arkuak dituen irudia

Aste barruan jarri dituzte izena eta logoa, biak, eraikinaren kanpoan, sarreraren ondoan. Irudia AZK enpresak diseinatu du, eta egin, aluminioa erabilita, Zaldirar errotulu enpresak. "Eraikinarekin bat datorren irudia da, asko gustatu zaigu. Arkuak dira toki honen ezaugarri nabarmenenetakoa, eta horixe ikusten da irudi honetan. Arkuen arteko zati bakoitzak, gainera, barruan egiten diren ekitaldien diziplina ezberdinak adieraz ditzake". Irudia eta izena jarrita, kanpotik datozenek ere ber-



Santa Ana antzokiaren irudia. J.I.

tara heltzea errazago izango dutela uste du Iñaki Olalde, Kultura zinegotziak.

Martitzenean aurkeztu eta jarritako irudi hau, gainera, eraikinaren kanpoaldean ez ezik, paperean eta beste hainbat euskarritan ere erabiliko dute.

Datorren astean da Aulkiak egitasmo lehen proposamena

Herriko taldeen eta eragileen arteko topaketak egitea da Udalak bultzatutako Aulkiak egitasmoaren proposamena, herriko gizarte sareari buruz gogoe- ta egiteko eta ideiak, proposamenenak eta iritziak trukatzeko helburu duena. Hitu topaketa daude iragarrita, eta lehena datorren egubakoitzean izango da, Eltzian, 17:00etatik 20:30era.

Lehoiaren hezurdura ikustera joateko izena eman behar da

Duela 55 urte egin zuten Arrikrutzeko lehoiaren aurkikuntza, eta urteurren horri lotutako ekintzetako bat da lehoi horren hezurdura bertatik bertara ikusteko irteera egitea. Hilaren 19an egingo dute, Irunen dagoen Gordailura, eta joan gura duenak aurrez eman behar du izena Arrikrutz kobetan edo Turismo Bulegoan.



Gualbi
aholkularitza

ZERGA, KONTABILITATE ETA
LAN ARLOKO AHOLKULARITZA

ABOKATUAK
KONTU IKUSKARIAK

*Bezero guztien beharrei
erantzuteko prest!*



Euskadi Etorbidea, 6 (OÑATI) • 943 78 16 48 • onati@gualbiasores.com • www.gualbiasores.com



Herriko taldeko txirrindularia –eskuinean–, Oñatiko ziklo-krosaren orain arteko azken edizioan, 2019an. GOIENA

Gipuzkoako Txapelketa, asteburuko erronka

Beasainen jokatu den ziklo-kros proban izango dira asteburuan Arrikruz Aloña Mendiko ziklistak. Aurten ez da Oñatin lasterketarik izango, baina Euskal Herrian barrena antolatuko direnetan lehiatuko dira taldeko bost txirrindulariak

Julen Iriondo M. de Zuazo OÑATI

Urri amaieran hasi zen ziklo-kros denboraldia Arrikruz Aloña Mendi taldeko txirrindularientzat. Berrizen izan zuten aurreneko proba, eta Trapagan, Legazpin, Laudion eta Karrantzan ere lehiatu dira ordutik hona; hurrengo geltokia Beasain izango da –bihar, zapatua–.

Bost txirrindulari ditu aurten Oñatiko taldeak: Alex Beristain eta Danel Markuleta, kadete mailan; eta Xabat Castaños, Aimar Madina eta Markel Zubia, gazteetan. Zuzendari lanetan, berriz, arkauztarrak, Iker, Jon eta Julen.

Ziklistak badoaz, poliki-poliki, puntua hartzen, eta, honela, Aimar Madinak, esaterako, emaitza ederra lortu zuen hilaren lehen Legazpin izandako lasterketan, podiumera igotzea lortuta; hirugarren izan zen. Asteburu honetan, berriz, Gipuzkoako txapelerako lehiari ibiltzeko moduan ikusten du Madina taldeko koordinatzaile Ruper Ar-

kauzek: "Lasai asko atera dezake txapela. Orain arte, zorte txarra izan dugu, egia esan, baina fisikoki oso ondo dago, gogo handia du, eta oso lehiakorra da. Atera dezake; horretara joaten bada... Eta zalantzarik ez dut joango dela, atera dezake". Madina litzateke Beasainen posturik onena lortzeko hautagai Arrikruz Aloña Mendiko txirrindularien artean.

Herrian lasterketarik ez

Beasaingoaren ostean, Arabako, Gipuzkoako, Bizkaiko eta Nafarroako lasterketetan lehiatzen jarraituko dute ziklista oñatiarrak. Aurten ez dute egutegian herriko lasterketa izango, ez delako egingo: "Azken urteetan

HIRUGARREN IZAN ZEN LEGAZPIN, ETA GIPUZKOAKO TXAPELA LORTZEN SAIAUKO DA ASTEBURUAN MADINA

nahikoa larri ibili ginen antolatzeko: lan asko da, jende gutxi... Azkenaldira zalantzan egon ginen egin edo ez. Pena ematen zigun ez egitea, baina gero, pandemia etorri zen eta, hori izan zen errematea". 2009an hasita egin da Oñatin ziklo-krosa, eta, oraingoz, etenaldia izango duen arren, klubetik ez dute bazterten aurrerago berreskuratzea. Birtartean, lasaitzen ditu ikusteak egutegiak "nahikoa lasterketa" badituela: "Hamahiru lasterketa dituzte egutegian; hainbeste izango ez balira, saiatuko ginatekeen antolatzen, baina nahikoa lasterketa dituzte, eta lasai hartu dugu. Aurten, behintzat, ez dugu antolatuko; datorren urtean, agian, buelta emango diogu".

Ziklo-kros denboraldia errepiderako prestaketa moduan hartzen dute Aloña Mendiko txirrindulariek, eta, horrez gain, "disfrutatzea" da helburua: "Teknika hartzea eta ikastea. Gero, euren jartzen dizkiote helburuak euren buruari".



Mendi irteera bateko irudia. GOIENA

Mendi sailaren eskutik, hileroko irteerak eta federatu txartelak

Hilaren 21ean ekingo diete txangoei –pandemiak eten zituen–; txartela, berriz, eguaztenean egin ahalko da

Julen Iriondo M. de Zuazo OÑATI

Astean izan dira Aloña Mendiren bulegoetan federatu txartelak egiten, eta eguaztenean izango da beste aukera bat, 19:15ak eta 22:30ak artean. alonomendi.mendi@gmail.com helbidera idatzita ere egin daiteke –hilaren 21a baino lehen–.

Datu pertsonalez gain, federatu nibela –Euskal, FEDME– eta gehigarriak –Frantziako Pirinioak, mundu osoa, mendiko bizikleta, pistako alpetar erako eskia, snowboarda– gura ote duten galdetuko diete txartela egitera doazenei. Aurtengo fe-

deratuei berez berrituko diete txartela –baja emateko edo baldintzak aldatzeko eskatu ezean–.

Hileroko irteerak

Bestetik, datorren domekan, hilak 21, berrekingo diete pandemiagatik etendako federatuentzako hileroko mendi irteerei. Oñatiko mugarrien ibilbidearen hirugarren zatia egingo dute, Barrendiola eta Arantzazu artean –Arriurdin, Artzanburu eta Enaitz igoko dituzte; 15 kilometro, 1.000 metroko desnibela–. Tabernan eman behar da izena –hilaren 18a da azken eguna–.



MIREIA BIKUNA

Sari gehienak, Anape taldeak

Oñatiko Laburmetrai Rallyan, asteburuan, Anape taldea izan zen irabazle nagusi, lehen aldiz aurkeztuta. *Erdoilgaitz* lanarekin, antolatzaileen saria, gizonezko eta emakumezko aktore onenenak eta sari nagusia eskuratu zituzten. LPM taldearendako izan zen bigarren saria, eta hirugarrena, Dwingi Dwingirendako. Ikusleen saria Hulia Gora Sinemak eskuratu zuen.

"Gure produktuen saltzaileak baino gehiago gara"

DORLETA FERNANDEZ D'OR ESTETIKA ZENTROA

'Erosteko orduan nire lehen aukera, Oñati' kanpaina abiatu du Oñatiko Udalak, gazteak herriko saltokietan erostera animatzeko. Horretaz dihardu Fernandezek

Oñatiko Bidebarrieta kalean dagoen D'Or estetika zentroan gertuko zerbitzu profesionala eskaintzen du Dorleta Fernandezek. Gertuko merkataritzak herriari ematen dioenez, bezeroarekiko hartu-emanaz eta tokikoa zaintzeaz eta hari balioa emateaz dihardu.

Pandemiak bizi ohiturak aldarazi ditu. Zelan dago D'Or?

Irabazten atera da D'Or. Pandemia garaian sare sozialetan asko ibili gara eta bezeroarekin ondo konektatu dugu eta ezagunago egin gara. Ez dakit izan den jendea kanpora ezin zenez joan existitzen garela konturatu delako edo etxean egoteak norbere burua zaintzeko behar berezi bat sortu duelako.

Hortaz, zorionez, ez zaizue pandemiaren horren gaizki joan?

Oso tristea izan zen etxean egon beharra, eta, ondoren, adin batetik aurrerako bezeroak ez ziren hasieran etortzen, baina, etortzen hasi eta ditugun osasun neurriak zeintzuk diren ikusi ahala, lana normalizatzen joan da.

Ikasi dugu herrian daukaguna baloratzen?

Konturatu naiz oraindik ere jende askok ez duela baloratzen hurbilekoa, nahiz eta beste askok esan didaten Oñatin aurkitu dutela lehen kanpoan egin zutena.



Dorleta Fernandez, D'Or estetika zentroan. IMANOL SORIANO

Zelakoak dira, zure ikuspegitik, gazteek duten kontsumitzeko ohiturak?

Aurpegi tratamenduak ezin dira Internetez egin, baina, orokorrean, argi ikusten dut zenbat online erosketa egiten dituzten. Era berean, konturatu gara lehenengo soldata dutenean ez zaiela horrenbeste prezioa inporta, baina, oster, ikasle garaian asko begiraten diotela prezioari.

Zein sentsazio jaso duzu herritarrengandik pandemia garaian?

Eskertu egin dute bertan egotea, eta, era berean, plataformak egin zirenean—Oñatin, Kuttuna—, jende askok parte hartu zuen eta askok mezua bidali zidaten esanez beharragatik baino gehiago, lagundu egin nahi zutelako egin zutela.

Herrian erosteak balio digu erosten dugun produktuari eta saldu edo zerbitzua eskaintzen digunari aurpegia jartzen?

Ikaragarri. Herrian erosteak gehigarri asko ditu. Egutero dendara joaten den pertsona nagusi bat, esaterako, egun baten ez bada joaten, dendaria konturatu egingo da. Gure produktuen saltzaile baino gehiago gara. Eta hori bakarrik ez: begiratu denda txikietatik bizi den zenbat familia gauden.

Herriari bizitza ematen diozuela aldarrikatzen duzue, askotan.

Askotan komentatu izan dugu asteburu baten herriko erakusleho guztiak beltzez estaliz gero erantzun bat izango lukeela horrek. Erakusleho guztiak itzalita, ilunetan geratuko lirake kaleak. Komertzioak eta bertako pertsonak dira jendea kalera erakartzen dutenak.

Ingurugiroa zaintzen ere laguntzen duzuela diozue. Zelan?

Dendetan gaudenok egutero zenbat banatzaile-furgoneta hel-

tzen diren ikusten dugu; etxe berera astean hainbat egutetan pakete txiki bat ekartzera, sarritan. Gu, berriz, ahalik eta bidaia gutxien egiten saiatzen gara eskaera egiteko orduan.

Beharrezkoak iruditzen zaizkizu kontzientziario kanpainak?

Oso beharrezkoak. Hainbat gutnetan lantzeko gaia dela uste dut; ikastetxeetan, adibidez. Gazteei begira egin berri dugu Tokikozale, eta oso ondo funtzionatu du. Sare sozialetan aktibo ibili gara eta emaitza polita izan du.

Sarean ere egotea ezinbesteko?

Bai, horixe. Ahalegin handia egin dugu gure herriko denda guztiek Whatsapp zenbakia izateko, gutxienez; izan ere, zein ezberdintasun dago kanpoko edo bertako denda batera eskaera online edo telefonoz egitean?

"GAZTEEI BEGIRA EGIN BERRI DUGU TOKIKOZALE EKIMENA, ETA OSO ONDO FUNTZIONATU DU"

"PANDEMIA GARAIAZ BEZEROAREKIN ASKO KONEKTATU DUGU ETA EZAGUNAGO EGIN GARA, ONDORIOZ"

"KOMERTZIOAK ETA BERTAKO PERTSONAK DIRA JENDEA KALERA ERAKARTZEN DUTENAK"

Erosteko orduan, nire lehen aukera, Oñati

HERRITIK ZUZTARRERA, ZUZTARRETIK HERRIRA

Gure merkataritza, ostalaritza eta zerbitzuak

OÑATI
dabilen herria

"Entrenatzera Bergarara joaten ginen, Arrasaten trena hartuta"

BEGOÑA ZUÑIGA ATLETA OHIA

ATLETISMOA Domekan egingo duten Behobia-Donostiako lehenengo irabazlea izan zen. 60ko hamarkadako Arrasateko atletismo taldean eman zituen lehen pausoak

Xabier Urzelai ARRASATE

Belaunean duen lesioa gainditzeko protesiarekin zain dago Begoña Zuñiga (Abartzuza, Nafarroa, 1951), eta ez du baztertzeko ebakuntza egiten diotenean ostera ere korrika egiteko zapatilak janztea. Arrasateko harrobetik pasatako atleta esanguratsuenetakoa barruan darama atletismoa, eta badaki domekan sufritu egingo duela, Behobia-Donostia lasterketa bide bazterretik jarraitu beharko duelako. Orain ezin du parte hartu, baina hirutan irabazi du bere etxeko atari parean, Behobian, hasien duten lasterketa. Badago zigor handiagorik? Gaztea zela etorri zen Nafarroatik Arrasatera, eta, hemen sei-zazpi urtez bizi eta gero, Irunerako bidea hartu zuen. Baina ordurako barruan zeraman atletismoaren harra. Hamarkadak pasa dira, baina oraindik ondo gogoan ditu urte haiek. Iturripen eta Agorrosinen egin zituen lehenengo korrikaldiak.

Zelan hasi zinen orduko Juventud Deportiva Mondragonen korrika egiten?

13 edo 14 urte izango nituen. Orduko Eskola Profesionalen ikasten nuen, eta taldea sortzeko emakumezko bila zebiltzan entrenatzaileak etorri ziren gelara. Aukeraketa egin beharra zeukaten, eta domekarako lasterketa moduko bat antolatu zuten. Neska kuadrilla galanta

batu ginen han; hasi ginen denak korrika, eta sei azkarrenak aukeratu zituzten. Tartean, nirengoen.

Akordatzen zara orduko taldekideez? Fernando Zufiria dut gogoan, eta baita Rosa Mari Otxandiano ere. Otxandiano eta biok izan ginen sei neska haietatik ibilbide luzeena egin genuenak, besteak nekatzen joan zirelako. Baina aspaldiko kontuak dira horiek.

Non entrenatzen zineten?

Aste barruan Arrasaten ibiltzen ginen, Eskola Profesionalaren parean [Iturripen], baina gogoan dut domeketan trena hartu eta Bergarara joaten ginela entrenatzera, hango futbol zelaiaren [Agorrosinen] bueltan zegoen pista. Ondo gogoan ditut joan-etorri haiek, baina ez dakit orduko atletismo pistak hareazkoak edo zelakoak ziren, ez dut gogoan.

Lanean hasi zinen gero...

Bai; uste dut Ulgor zela lantegiaren izena, eta, nahiz eta lanera joan, entrenatzen jarraitzen nuen berdin-berdin, atletismoa oraindik ez nuen seriotasun handiz hartzen. Txapelketak eta halakoak egiten genituen; esaterako, Elgoibarrera joaten ginen lasterketetan parte hartzera, Aretxabaletan egin zuten kros batean ere izan nintzen... Guztira, sei edo zazpi urte egingo nituen Arrasaten, eta aitaren lan kontuak tarteko handik Iru-

nera etorri ginen bizi izatera. Baina bai, atletismoko lehenengo urteak Arrasaten egin nituen. **Zer aurkitu zenuen Irunen?**

Atletismoari dagokionez, ezer ere ez! Kar, kar, kar.... Nik uste nuen Frantziarekin mugan egonda atletismo giro handia izango zela Irunen, klub gehiago, txapelketak... Baina ez zegoen ezer. Bila eta bila ibili nintzen, eta Joseba Sarriegirengana joateko gomendatu zidaten; kirol denda bat zuen, eta harekin hasi nintzen entrenatzen. Espainiako selekziora ere haren eskutik iritsi nintzen.

Zer egiten zenuen gehien?

Nik krosak egiten nituen, eta pistan ere ibiltzen nintzen, baina orduan ez zeuden distantziak luzeak. Hala ere, pistan ez nintzen oso ondo moldatzen, ez nintzen atleta azkarra. Nik in-

"NESKEN ARTEAN LASTERKETA EGIN, ETA AZKARRENAK AUKERATU ZITUZTEN; TARTEAN NENGOEN"

"ESKOLA AMAITU, ETA ULGORREN HASI NINTZEN LANEAN, BAINA ENTRENATZEN JARRAITU NUEN"



Begoña Zuñiga, Behobian, lasterketaren lehen zatian. INAXIO ESNAOLA / 'HIRUTXULO HITZA'

darra nuen hanketan, eta krosetan hobeto moldatzen nintzen. **Eta halako batean, 1979an, Behobia-Donostian parte hartzera animatu zintuzten...**

Bai; egia esan, orain konturatzen naiz garai hartarako nahiko ausartak ginela, orduan ez zene batere ohikoa emakumezkoa izan eta korrika egiten ibiltzea. Ni gizonezkoekin ibiltzen nintzen beti; hoge bat lagun joaten ginen entrenatzera, eta ni nintzen emakumezko bakarra. Eta kuadrilla hartatik hainbatek hartu zuten parte lehenengo edizio hartan, eta, nik ere sasoi ona neukanez, animatu egin nintzen. Gainera, etxe parean hasten zen lasterketa; zelan ez nuen parte hartuko? Guztira, sei edo zazpi emakumezko izan ginen lehenengo edizio hartan irteera puntuan, eta nik irabazi nuen. **Guztira, hiru edizio irabazi zenituen.** Bai, baina irabazi nituen horietan baino gehiago sufritu nuen beste batzuetan. Gogoan dut bigarren sailkatu nintzen edizio baten, ez dakit ze urte izango zen, zelan sufritu nuen... Maria Luisa Irizarren atzetik helmugaratu nintzen eta sekulako erritmoan joan ginen. Irizarrek

ze erraz egiten zuen korrika... Horren gorputz txikia zeukan, hegan egiten zuen. Orduan egin nuen nire markarik onena [1.16]. Lasterketa irabazi nuen urteetan ez nintzen horren azkar ibili [1979an, 1.21.01; 1981ean, 1.27.10; eta 1987an, 1.19.40].

Domekan, sufritu egingo duzu lasterketa ikusten?

Ez izan zalantzarik! Inbidia galanta pasako dut; gustura hartuko nuke parte, nahiz eta 70 urte bete ditudan jada. Aurrekoan, Radio Euskadin elkarriketa egin zidaten beste atleta batzuekin batera, eta konprometitu nintzen nirekin mahaiaren bueltan egon ziren atletak animatzera joango naitela. Kolon pasealeku inguruan egongo naiz euren zain, baina ikusleendako oso luzea egiten da goiza.

Eta hori?

Zuk badakizu gaur egun zenbat atletak hartzen duten esku? Duela 40 urte, kuadrilla bat izaten ginen, jende asko izaten zen, bai, baina ez zeukan zerikusirik gaur egungoarekin. Duela bi urte, nire semea animatzera joan nintzen. Lehenengoz hartu zuen parte, eta las-



Begoña Zuñiga, goian ezkerretik bigarrena, Iturripen (1966). ARRASATE ATLETIKO

terketako lehenengoak Bulebarrera iritsi zirenean hasi zen nire semea Behobian korrika egiten. Ze luzea egin zitzaidan goiza!

Lesioa duzu belaunean; bueltatuko zara korrika egitera?

Hori da nire ametsa, benetan. Kontuan hartu nik urte asko egin ditudala korrika egiten, nire bizitzaren zati garrantzitsua izan da atletismoa, eta hori da orain okerren daramadana, ezin korrika egitea. Belaunean min dut, protesi bat noiz jarriko zain nago, eta lagunei esaten

"ESPAINIAKO TXAPELDUN IZAN NINTZEN AMA IZAN ETA HILABETE BATZUETARA"

"BEHOBIA-DONOSTIA BAKOITZEAN INBIDIA PASATZEN DUT; ETXE AURREAN HASTEN DA, GAINERA"

diet jartzen didaten egunean osterara ere korrika hasiko naitela. Barre egiten dute, baina... **Lehenago ere egin dituzu gauza harrigarriak.**

Pentsa, inoizko lorpen handiena lortu nuen bikien ama izan eta hilabete batzuetara. Nire semeak azaroan jaio ziren eta hurrengo urtean, uztailean, Laredon Espainiako maratoi erdiko txapelketa jokatu zen. Lasterketa irabazi nuen, 1.18ko marka eginda, eta garaipen hark, ama izan berri, oihartzun handia izan zuen komunikabideetan. Semeek 44 urte dituzte; horrenbestez, egin kontuak noizko kontuez ari naizen.

Maratoi distantzia ere probatu duzu. Laredon irabazi eta gero, Espainiako txapelketa nintzen, Londresera eramanez ninduten, hango maratokia egitera. Esperientzia polita izan zen, baina distantzia luzea zen. Maratoietan, baina, gogorrena ez da lasterketa, gogorrena aurrez egin beharreko entrenamendu saioak dira, egin behar diren serieak... Gero, lasterketa egunean bada-kizu 30. kilometrotik aurrera sufritzea tokatuko dela...

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA

O. ERREGION. GIZON.

Bergara-Hernani

Zap. 15:45. Agorros.

Mondra-Aloña

Dom. 16:30. Moja.

UDA-Real Union

Dom. 16:30. Ibarra.

O. ERREGION. EMAK

Bergara-Mariño

Zap. 15:30. Ipintza.

Hernani-Leintz Ariz.

Dom. 16:00. Zubipe.

MAILA

Antzuola-Aretx.

UDA B

Zap. 15:30. Eztala.

Mondra-Zestoa.

Zap. 16:00. Mojategi.

ARETO FUTBOLA

MAILA NAZIONALA

Eskoriatza-

Kukuyaga

Zap. 18:30. M. Muñoz.

Antiguoko-

Mondrate

Dom. 16:30. Pio

Baroja.

SENIOR EMAKUME.

Anoeta-Eskoriatza

Egub. 20:30. Donost.

ESKUBALOIA

EUSKADIKO TXAPELK.

Mugarri Ingou-

Deusto

Zap. 18:00. Iturripen.

Fagor Indus.-

Ereintza

Zap. 20:00. Zubikoa.

EMAKUMEZ. EUSKADI.

Urdaibai-Cons.

Aloña

Zap. 19:00. Bermeo.

GIJU. TXAP. GIZ.

Soraluce BKE-

Hondar.

Zap. 18:00. Labeg.

SASKIBALOIA

EBA

Nissan G.-MU

Dom. 18:00. Burgos.

BIG. NAZIO. EMAK.

MU-Toju.

Dom. 18:00.

Iturripen.

LEHEN MAILA, GIZON.

Ordizia-MU

Zap. 18:00. Ordizia.

PILOTA

GIPUZKOAKO TXAPELK.

OÑATI

Egubakoitza, 18:30, bost partidu. Zapatua, 16:30, bost partidu

ARETXABALETA

Egub. 18:30, sei partidu.

ARRASATE

Egub. 19:30, bi partidu. Zapatua, 17:00, partidu bat.

BERGARA

Egub. 19:15, lau partidu.

ERRUGBIA

Zapatua. 11:00. Talde argazkiak, Arrasaten, Seberren.

KARATEA

Zapatua. 10:00. Bergara. 21 urtez azpikoen Euskadiko Karate Txapelketa.



DEBAGOIENEN GREMIOAK



AROTEGIAK

AZKARATE AROZTEGIA

BERGARA / Telleria 19 B02-B03
Tel.: 943 76 47 19 / 610 88 40 20
blogak.goiena.net/azkarate

HONDEAKETAK

EXCAVACIONES Y CONTRATAS

ARRASATE SL
ARRASATE / Meatzerreka 30
Tel.: 943 77 12 26 / 646 29 59 87
e.arrasate@gmail.com

ITURGINTZA

EGIA ITURGINTZA

ARRASATE / Gipuzkoa etorbidea 39, behe
Tel.: 943 77 01 85

OYANGUREN ITURGINTZA

ESKORIATZA / Aranburuzabala 15
Tel.: 943 71 47 14 / 606 00 73 69
f.oyanguren@ctv.es

URKO MANTENIMIENTO SL

ARETXABALETA / Basabe industrialdea B-3
Tel.: 943 77 19 88
Faxa: 943 79 59 97

LOREZAINNTZA

MAKAI KOOP. ELKARTEA

ARETXABALETA / Basabe poligonoa D-2-1
Tel.: 943 79 78 45 - 616 96 57 98
Faxa: 943 79 78 45

Su Ta Garren kantuak, 'Sua' komikiaren istorio

Alex Tello aktoreak eta zinemagileak idatzi du gidoia eta Arrasateko Julen Ribasenak dira marrazkiak; hogeit urteko Sua gaztearen eta Eibarko taldearen abestien pasarte bitartez, Euskal Herriko 30 urteen historia kontatzen du liburu argitaratu berriak

Aitziber Aranburuzabala ARRASATE

"Lanez lepo nenbilen eta, penaz, ezin niola proiektuari eutsi esan nion, baina kuriositatea nuen zein talderi buruzkoa zen, eta hala galdetu nion. Su Ta Garri buruz zela erantzun zidanean, iritziz aldatzen hasi nintzen. Lana argitaratzeko epe zehatzik ez zutela esan zidan; hortaz, nire beste lanekin batera egin ahal nuela ikusi nuen, eta gustura eman nion baiezkoa", kontatu du Julen Ribas marrazkilariak.

Orain dela lau urte izan zen dei hura. "Antzerkian nenbilen lanean, eta, halako baten, Su Ta Garren musikarekin euskal gazte baten istorio bat zegoela iruditu zitzaidan. Jolas baten moduan hasi nintzen kantuak entzuten eta istorioa eraikitzen. Hasiera baten, antzerki musikatu bat egiteko ideia nuen, baina komikiaren alde egin nuen gero. Egindakoarekin oso gustura nago, erabat aseta. 30 kantutik gora agertzen dira; luzeagoa egin daiteke bai, baina ikaragarria da zelako lana duen marrazteak. Izugarritzko lana egin du Julenek", esan du Alex Tello gidoilariak.

Sua gaztea da protagonista

Gidoilariarentzako, bere kezkekin eta ezinekin bizi den euskal



Sua komikiaren pasarte bat. JULEN RIBAS

gazte bat da Sua. "Orainaldian bizi da. Munduan bere tokia bilatzen ari den gaztea da Sua. Istorioaren hasieran 24 urte inguru ditu eta bukaeran, ez dakit... bada, 40 bueltan. Bere bizimoduarekin atsekabetuta dago eta bere motibazio bakarra

"JOLAS BATEN LEGEZ HASI NINTZEN KANTUEKIN ISTORIOA ERAIKITZEN"

ALEX TELLO, GIDOILARIA

parrandan ibiltzea da. Hondoa jo ostean, musikarako grinak hauspotuta, ilusioz ekin eta sentipenak askatuko ditu testuinguru soziopolitiko nahasiarekin topo egitean".

Marrazkilariak, berriz, protagonista, Su Ta Garren hasta-

"SEXUA EZ ZEHAZTEN SAIATU NAIZ, EZ DAGO ARGI SUA NESKA ALA MUTILA DEN"

JULEN RIBAS, MARRAZKILARIA

penetako garaiko estetika eman diola azaldu du: "Lehenengo zirriborroak egin nituenean, Alexi eta Su Ta Garrekoei bidali nien, eta 'bai, hau da Sua', esan zidaten. Kontakizunak zer eskatzen zuen kontuan hartuta, sexua ez zehazten saiatu naiz, ez dago oso garbi mutila edo neska den. Jantzera aldetik, txupa dauka, eta txima luzeak ere bai".


Talde lanean egindakoa

"Banda bat izan gara eta gara, zazpi lagun ibili gara, azkenean, proiektuaren bueltan. Dani Fano *Xabiroi* komikietako zuzendaria ezagutzen nuen, eta hark bideratu ninduen Julenengana", dio Tellok, eta zera gaineratu du Ribasek: "Berari proposatu genion liburua maketatzen eta bestelako lanetan laguntzeko, eta asko eskertu ditugu haren aholkuak eta jarraibideak. Mikel Sotok idatzi du gero, liburuaren hitzaurrea".

Su Ta Garrekoak ere emaitzarekin oso gustura daudela dio Tellok: "Hasieratik erakutsi zuten proiektuarekiko interesa eta laguntzeko gogoia. Askok eskeretzen diet nire amets bat betetzen lagundu izana".

Laster eskuragarri

80 orrialdeko tapa gogorra duen koloretako komiki liburua da. Inprentatik atera berria dela diote egileek, eta laster eskuragarri izango dela. Durangoko Azokan ere izango da, Su Ta Gar taldearen standean. "Une eta pasarte ezaguterrazak eta identifikagarriak aurkituko dituzue bertan jasota. Taldearen hastapenetan gazte zirenetzat eta gaur egun gazte direnetzat ere aproposa da *Sua* komikia", azaldu dute egileek.



IMANOL SORIANO

"Alex eta biok gara Su Ta Gar zaleak"

JULEN RIBAS

MARRAZKILARIA

Gustuko duen taldearen kantuak "pozik" marraztu ditu Ribasek.

Su Ta Garren kantu asko jotakoa zara. Gustuko lana, hortaz?

Txikitatik naiz zalea, eta garai baten, aspaldi, Ozen taldearekin euren kantu batzuen bertsioak egiten genituen [Barre].

Marrazten ere asko gozatu dut. Eta Alex ere taldearen aspaldiko zalea da.

Ze teknika eta material erabili duzu?

Lan prozesu klasikoa izan da. Paperean egin dut arkatzarekin, lehenengo; tinta txinarekin, gero; ordenagailura pasatu dut, ondoren; eta tableta grafikoarekin koloreztatu dut, bukatzeko.

Zeinentzako aproposa?

12 urtetik aurrerako edozeinendako; taldearen zale izatea ez da garrantzitsua. Fikzioa da.

DEBAGOIENDARRAK BEHOBIA-DONOSTIA LASTERKETAN

GOIENA TELEBISTA, 'HARMAILATIK'

AZAROAREN 15EAN, ASTELEHENEAN, 21:30EAN ETA 23:30EAN



DESKARGATU
GOIENA
APP BERRIA!

goiena
Zu hemen zaude.



Dotoreziaz jantzitako ahots biluzi eta garbia

Musikegunak egitasmoaren baitan, Maria Berasarte abeslari donostiarrek kontzertua eskainiko du domekan Santa Ana Antzokian, 19:00etan; lagun izango ditu David Azurza kontratenorra, Joseba Irazoki gitarra-jolea eta Igor Telletxea perkusionista

Aitziber Aranburuzabala OÑATI

Maria Berasarte "ahots biluzia" da, "apaindurarik bako ahotsa, purua eta esentziala", adituen esanetan. Eskarmentu handiko ibilbidea du abeslari donostiarrek, nazioarteko areto garrantzitsu askotan izandakoa da.

Jaioterriari, "bere lurrari", eskainitakoa dela dio abian duen *Lurra eta bidea* proiektua. "Modu autobiografikoan eta imajinagarrian nire lurraldera joan naiz bertako sustrai eta pertsonekin. Sustraiak oinarri hartuta, baina ikuspegi zabalarekin. Mundura, kanpora, begiratu dut orain artean, eta orain, nire lurraldera begira nago proiektu berri honetan. Sustraietara joanez musika alorrean egindako nire bidea erakutsi nahi izan dut".

Puntako musikariak alboan

Lurra eta bidea proiektua ideia xume batetik sortu zela azaldu du Madril eta Lisboa artean bizi den abeslariak. "Euskal Herriko antzokiak batzen dituen Sarean egitasmoan aurkeztu nuen, 2019an, aurreikusi barik halako eragina eta harrera izango zuela. Harrituta eta pozarren gaudere proiektuak izan duen harreara onarekin. Euskal Herriko areto askotan izango gara, eta Madrileraino ere helduko gara, datorren urtean Teatros Del Canal-eko areto nagusian izango gara eta. Sekulako ilusioa egiten dit horrek, nire kultura eta nondik natorren azaltzen dudana proiektua toki eta areto ezberdinetan eskaini ahal izatea".

Proiektu pertsonala da, baina eskarmentuko musikariak ditu Berasartek taularen gainean lagun: Berako Itxeko Uzta taldeko Joseba Irazoki gitarra-jolea eta Igor Telletxea perkusionista eta David Azurza kontratenorra. "Irazoki eta Telletxea ez nituen aurrez ezagutzen, baina kimika ona egon da gure artean hasieratik. Modu oso librean eta ero-



Maria Berasarte, eskarmentu handiko Donostiako abeslaria. LUIS DE BARROS

BERE SUSTRAIETATIK ABIATUTA, MARIA BERASARTEREN IBILBIDEAN ZEHAR BIDAIATZEKO AUKERA

soan egin dugu lan. Azurza, berriz, aspalditik ezagutzen nuen, elkarrekin hainbat lan egin izan ditugu-eta aurrez. Itzela da Azurza ere, mugarik bako abeslaria".

Diskorik ez, oraingoz

Euskaraz, gaztelerez eta portugesez abestutako kantuak biltzen ditu bilduma berriak, eta ikus-kizuna hiru bloketan banatuta dagoela gaineratu du Berasartek: "*Origen* izenekoa da lehenengo zatia. Gure sentsazioak, askotariko euskal soinuak... jasotzen ditu. David Azurzak lagunduta, euskaldunon sustraietaraino hurbilduta ekiten diogu ikusizunari; bide batez, euskaldunoi eragin digun beste kultura batzuei erreferentzia subliminalak eginez. Nondik natorren eta musika alorrean nora joan naizen; hau da, nire bidaia musikal pertsonala erakusten dut biga-

rrenean. Eta euskal kantu eza-gunen moldaketa berriak eskaintzen ditugu hirugarren zatian, aurrez aipatutako musika bidaia horren emaitza moduan uler daitekeena".

Jendaurrean aurkezten ari dira *Lurra eta bidea*, baina, oraingoz, ez dute proiektua diskoan jasota. "Ez dut baztertzen diskoa grabatzea, baina, oraingoz, ez daukat ezer lotuta. Aurrreratuko dizuet, baina, Gabonetan ETBn ikusteko aukera izango dela orain dela gutxi Beasaingo Igartza jauregian grabatu genuen kontzertua".

Oñatin domekan

Lurra eta bidea proiektua hitz-kin definitzea zaila dela dio Berasartek, baina, orain arteko emanaldietan ikusi duen moduan, "jende oso ezberdina *engantxatzen*" duela dio: "Gazte asko ere etorri direla ikusi dugu; oso garaikidea eta arriskutsua da gure proposamena. Ez du inor hotz uzten".

Zortzi eurotan eskura daitezke sarrerak; domekan, Santa Ana antzokian, eta aurrez, Foruen Plazan dagoen txarteldegian eta Txokolateixan.

Goienakideen txokoa

Azaroko sariak!

Errigorako saskia

Parte hartzeko sariaren izena: Saskia



Sarrerak

Arrikutz kobak bisitatzeko, sarrerak. Parte hartzeko sariaren izena: Arrikutz

ARRIKUTZ
OSTIAIZKO D.A.

www.horremendenda.org
Bisita Arrikutz sarrerak

Otarrea

Bidezko merkataritzako produktuak. Parte hartzeko sariaren izena: Otarrea

PARTE HARTZEKO:

